2018-10-05 EGUBAKOITZA / 787. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena

Zu hemen zaude.



Gorka Idigoras rallysprint pilotua, Euskadiko txapeldun

Gorrek entzunarazi egin dituzte aldarrikapenak




GOIENA TELEBISTAN **UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA**

## GERTUKO IKUS-ENTZUNEZKOAK, ESKU-ESKURA

'Goiena nahieran' aplikazioarekin, Goiena telebistako saioak tabletetan eta smartphoneetan / 23

IMANOL SORIANO

# Kooperatiben eredua ezagutzen Arrasaten

Bilbon egin den Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroan parte hartu duten 300 lagunek interes handiz bisitatu dituzte hainbat enpresa / 2

**Euskara batuaren iragana, oraina eta etorkizuna aztertzen ari da Arantzazun Euskaltzaindia** / 40

**SINADURAK**


BEÑARDO KORTABARRIA / **8**


JOSE LUIS MADINAGOITIA / **35**


MARIJE UGALDE / **29**


ANDER EXTEBERRIA / **48**





Arrasaten egon diren 300 bat bisitarietatik 55 inguruk ezagutu dute Goiena Komunikazio Taldearen egoitza eta eredu kooperatiboa, bi taldetan banatuta. Argazkian, lehen taldea. XABI URZELAI

# Kooperatibismoa hauspotu guran

Arrasatek presentzia nabarmena izan du bukatu berri den Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroan; mundu osotik etorritako hainbat ordezkarik hemengo eredu kooperatiboa gertutik ezagutzeko aukera izan dute; Goiena bisitatzen ere izan dira

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroaren laugarren edizioa Bilbon egin dute asteon (Global Social Economy Forum, GSEF).

GSEF nazioarteko sarea da, eta gizarte ekonomiaren eta eredu kooperatiboaren garapena babesten duten tokiko gobernuak eta gizarte zibileko interestaldeak elkartzen dira sare horretan. Helburuari dagokionez, mugaz haraindiko elkarlanaren eta lankidetzaren bidez ikuspuntuak nahiz esperientziak partekatzeko gunea izatea gura du foroak.

Jardunaldi hauek jasotzearekin batera, "garapen jasangarrirantz aurrera egiteko administrazio publikoen egitekoaren eta gizarte ekonomiaren etorkizunaren gaineko eztabaidarako munduko hiriburu" bihurtu da Bilbo egun hauetan, antolatzaileen esanetan.

Foro hau Bilbon egitearen arrazoi nagusienetako bat, ordea, Arrasaterekiko gertutasuna da. Izan ere, "Bilbok ekonomia sozialean ez du horrenbesteko esperientziarik, eta Arrasate erreferentzia da mundu mailan", Mikel Lezamizen esanetan. Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko idazkaria da Lezamiz, eta gizarte ekonomian aditua. "Bartzelonarekin eta Parisekin lehiatu ostean, Bilbo hautatu zuten foroa jasotzeko", dio.

Hori dela eta, kongresuko 300 partaide inguru Arrasatera etorri dira eguaztenean eta eguenean, hemengo gizarte ekonomia eredua ezagutzeko –1.000 pertsona inguru batu dira, guztira, foroan–. "Munduari hemen dagoen garapen sozioekonomikoa erakusteko aukera bikaina izan da", adierazi du Lezamizek.

Ander Etxeberriak, Mondragon Taldeko hedapen kooperatiboko arduradunak, adierazi du Mondragon esperientziak betidanik eduki duela oihartzuna nazioartean. "Jendeak beti gura izan du esperientzia hau gertutik ezagutu. Azalpenak emateaz arduratu zen lehen pertsona Arizmendiarrieta bera izan zen, eta duela bi hamarkadaz geroztik, pertsona bat daukagu kanpoan gure jarduna ezagutarazteaz arduratzen dena. Orain, nik daukat ardura hori", dio.

**Lau ibilbide Arrasaten**

Aipatutako 300 pertsona horiek bi taldetan banatuta etorri dira: eguazten arratsaldean talde bat eta eguen goizean beste bat, hain zuzen ere. Eta herriko hainbat enpresa eta eredu kooperatibo ezagutu aurretik, Kulturateko klaustroan prestatutako erakusketan egin die harrera Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak. Erakusketa horretan, besteak beste, Arizmendiarrietaren historia, Arrasatek duen esperientzia kooperatiboa, Mondragon Taldea, Mondragon Unibertsitatea, Goiena Komunikazio Taldea eta ekonomia solidarioko beste elkarte batzuk ezagutzeko aukera izan dute –Caritas, Emaus, Gureak, eta abar–, panelen bitartez. Erakusketaren ostean, lehen eskutik ezagutu dituzte horietako hainbat gune, bisiten bidez. Azken hauek lau multzotan banatu dituzte antolatzaileek: ekonomia solidarioa; herria eta balioak; industria eta hezkuntza. Hala, partaideen interesaren arabera, bisita bat edo beste egiteko aukera izan dute.

Lehenengo taldekoek Emaus Taldea, Gureak eta Caritas bisitatu dituzte, ekonomia solidarioan oinarritutako enpresa edota erakunde gisa.

Arrasate eta haren balioak ezagutu gura izan dutenak herriko erdigunean ibili dira –Olarte, Zarugalde, Zurgin kantoia, San Juan Bataiatzailea parrokia eta J.M. Arizmendiarrietaren hilobia–, eta Goiena Komunikazio Taldearen egoitzara ere egin dute bisita.

Hirugarren taldea industria arloan zentratu da, eta hauek Fagor Arrasate ezagutu dute.

Azkenik, hezkuntza arloan sakondu nahi zutenek Gaztelupe-Arizmendi Ikastolara egin dute bisita, eta ondoren, Mondragon Unibertsitatera.

**Goiena Komunikazio Taldea**

Bisita horien guztien artean, esan moduan, Goiena Komunikazio Taldearen egoitza ere bisitatu dute munduko hainbat ordezkarik. Izan ere, foro honekin bat egin du enpresa honek, eta hemengo jarduna ezagutarazi gura izan du kanpora begira. "Nahiz eta Mondragon Taldearen barruan ez egon, Mondragon esperientziarekin bat egiten du Goienak hasieratik, idealekin eta ereduarekin bat egiten dugulako. Mondragon esperientziak hainbat gauza

## "Pozik gaude foroak eman duenarekin"

**MARIA UBARRETXENA**
ARRASATEKO ALKATEA



GOIENA

Jardunaldien balorazio positiboa egin du alkateak, eta pozik azaldu da.

**Zer moduz joan da foroa?**
Hemen gauzak egiteko modu desberdin bat dugu, eta garrantzitsua da. Ekonomia egiteko beste modu batzuk existitzen dira eta baliagarriak dira. Hori ikusteko eta erakusteko oso aproposa izan da foro hau, eta mapan kokatzeko ere balio izan digu. Oso gustura gaude.

**Arrasatek badu zeresana arlo honetan, ezta?**
Noski. Arrasatek presentzia bat izango zuela bermatu nahi izan zuten antolatzaileek, zentzua ere ematen ziolako foroari, eta gu oso pozik gaude, jardunaldien ostean bisita batzuk bertara ekartzea lortu dugulako. Nazioarteko harreman batzuk egiteko aukera izan dugu, eta etorkizunari begira garrantzitsua da hori.



eman dizkigu; tartean, kooperatibismoak berak ematen dituenak", azaldu du Iban Arantzabalek, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendariak.

Kooperatiba berezi bat da, Arantzabalen esanetan: "Publikotik eta pribatutik dauka. Berezia da, gurean erdigunean dagoena, benetako bezeroa, hizkuntza komunitatea da, eta ez gaude erakunde ekonomiko baten menpe. Horrek guztiorrek ikusmira bat eta jakiteko gogo bat sortzen du. Iruditu zait etorri diren bisitariek eredu moduan hartu gaituztela, eta harritzekoa da munduko edozein txokotatik gurera etorri izana. Hori, guretzako, ona da, mapan kokatzen gaituelako".

**BILBON EGIN DUTE LAUGARREN FOROA, BAINA ARRASATE IZAN DA HIZPIDE NAGUSIENETAKO BAT**

Bisitariak erakarri dituen beste puntu bat izan da komunikazio arloan finkatutako kooperatiba ereduarena. "Ez zaie erraza egin ulertzeko komunikabide bat kooperatiba izatea. Mundu mailan ohituta gaude ikustera oso jende gutxiren menpeko hedabideak eta hori gero nabaritu egiten da editorialetan eta gainontzekoetan. Guretako zama handia da editorialki orekatua izatea, baina kooperatibak horretan ere laguntzen du, ez gaudelako gainontzeko eragin ekonomiko edo alderdikoien azpian. Eredu hori gustatu egin dela esango nuke", azpimarratu du zuzendariak.

### Bisitariak, gustura

Arrasate bisitatzeko aukera izan duten 300 lagunetatik 55 lagun inguruk bisitatu dute Goienaren egoitza, eta, oro har, harridura nagusitu da haien erreakzioetan. Izan ere, gauza "berria" izan da haientzat. "Ikusgarria da Goiena. Ekonomia soziala eta solidarioa edozein sektoretan aplikatu daitekeela erakusten duzue", azaldu du batek.

Beste batek dio garrantzitsuak direla horrelako proiektuak hizkuntzarentzat eta kulturarentzat. "Egun hauetan asko ikasi dugu mundu osoko proiektu ezberdinak ezagutuz, eta gehien azpimarratuko nukeenetako bat zuen proiektua da".

"Zuen egoitzara etortzeak aukera eman dit daukazuen esperientzia kooperatibo zoragarri hau deskubritzeko. Oso urte gutxian egonkortu den proiektua daukazue", azpimarratu gura izan du beste batek.

EUSKARALDIA, GERTU!

49 EGUN FALTA DIRA

# Euskaraldia herrira zabaltzeko modu polita

Aretxabaletako eta Eskoriatzako batzordekideek lau bideo grabatu dituzte, Huheziko ikus-entzunezko komunikazio ikasleekin batera, egunerokoan herriko komertzioetan gerta daitezkeen lau egoera posible irudikatuz; atzo kaleratu zuten azken bideoa

**E.A.** DEBAGOIENA

Lau bideo hauen bitartez lortu gura dutena zera da: "Euskaraldiaren mezua herritarrei helaraztea, egoera ezberdinak islatuz. Protagonistak herritarrak izatea gura izan dugu. Hala, askoz ere gertuagokoa da mezua, eta inpaktua ere handiagoa da. Modu honetan, eraginkorragoa izango dela uste dugu, herritarra identifikatuta sentitu daitekeelako, eta pausoa errazago eman".

Bi herriotako batzordekideak Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleekin harremanetan jarri ziren eta proposamena egin zieten. Ikasleek onartu egin zuten, eta haiek grabatu zituzten lau bideoak, ekainean. Ondoren, publikatzen joan dira banan-banan, eta azkena atzo bertan plazaratu zuten.

Leku ezberdinak aukeratu dituzte bideoetarako, "egunerokoan ohikoak izan daitezkeen lekuak edota horren ohikoak ez direnak: lehenengo bideoa Aretxabaletako Hankabeltz dendan da; bigarrena Eskoriatza Santa Ana gozotegian; hirugarrena Aretxabaletako taberna batean eta laugarrena, azkenik, gasolindegian, Eskoriatzan –argazkian ikusi daiteke azken bideoa grabatzen ari zireneko une bat, gasolindegian–.



**Huheziko ikasleak, azken bideoa grabatzen.** HUHEZI

### Beste ekintza batzuk

Aretxabaletan, San Migel jaiak aprobetxatuz, Euskaraldiaren proba pilotu bat egin zuten pasa den asteburuan, *ahobizi* eta *belarriprest* pegatinekin. "Herritar mordoak" hartu zuen parte, eta gustura ibili ziren parrandan", batzordekideen esanetan.

Izena emateko aukera ere badago, Arkupen, kiroldegian, udaletxean eta Loramendi euskara elkartean.

Bestalde, Oñatin ere San Migel jaiak aprobetxatu zituzten Euskaraldiaren berri emateko. Danborrada nagusian, adibidez, *ahobizi* eta *belarriprest* panpinak irten ziren dantzan, eta eskuorriak banatu zituzten Olaitturri elkartearen antzerkian. Gaurko bertso-saioan eta biharko herribazkarian ere banatuko dituzte eskuorriak, herritarrei informazioa emateko.



# Bazkide gehiagorekin ekin dio Goienagusik

2018-2019 ikasturteari hasiera eman dio Goienagusi elkarteak. Bergarako Seminarixoan egindako ekitaldian, batzorde berria aurkezteaz gainera, edizio honetarako antolatu dituzten hitzaldien eta gainerako ekintzen berri eman dute

**Maialen Regueiro** DEBAGOIENA

Goienagusi elkarteak 2018-2019 ikasturteari hasiera eman dio Bergarako Seminarixoan egindako aurkezpen ekitaldiarekin batera. Elkarteko lehendakari Matilde Sainzek egin du edizio honetako aurkezpena, bere kide Nati Etxaberekin eta Pili San Migelekin batera. Horrez gain, Enplegu eta Gizarte Politiketako zuzendari Emilio Solak, Elena Lete Bergarako alkateak eta Amaia Azpiazu Arrasateko Udaleko Ongizitate Saileko zinegotziak hitz batzuk esateko aukera ere izan dute.



Ikasturte hasierako aurkezpena. MAIALEN REGUEIRO

**161 bazkide**

Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio, Antzuola eta Oñatiko herritarrek osatzen dute edizio honetako bazkide taldea; guztira, 161 lagun izango dira. Gehienak emakumeak izango badira ere, gizonezkoek ere izango dute beraien errepresentazioa elkartean. Azken hiru ikasturteetan, gainera, gora egin du bazkide kopuruak, Sainzek aditzera eman duenez.

Elkarteko bazkideak gogotsu daude dagoeneko ikasturte berriari hasiera eman eta batzordeak antolatu duen urte osoko egitarauaz gozatzeko.

**Batzorde berria**

Aurreko urtekoari erreleboa eman eta ikasturte berrirako, Goienagusiko batzordea aldatu egiten dute; hala, elkarteko ordezkaritza sei lagunek osatuko dute. Horrez gain, bazkideetako bat elkarteko bloga elikatzen arituko da, ikasturtean zehar egiten dituzten ekintzen berri emanez eta plataforma mota desberdinetako edukiarekin elikatuz, besteak beste. Batzordeak, gainera, hiru komisioz osatuta dago: *Irteera kulturala* komisioa, *Musika* komisioa eta *Goienagusi etorkizunera begira* komisioa.

**Helburuak eta ikaskuntza**

2001ean sortutako elkarte soziokultural hau bailarako pertsona guztiei zuzenduta dago eta helburu batzuk ditu finkatuta egiten dituzten ekintzei begira. Antolatzen dituzten hitzaldi zein ekintzekin, arlo ezberdinetako ezagutza areagotzea eta gaitasun intelektualak trebatzea nahi dute. Era berean, ezinbestekotzat jotzen dute aisialdiaz gozatzea eta beste ideia eta pentsatzeko moduetara zabaltzea. Azkenik, gizartean partaidetza eta garapen aktiboa bultzatu nahi dutela adierazi du Sainzek. Ekitaldian azpimarratu dute, gainera, ikasteko gogoak adinik ez duela eta garrantzitsua dela norberak izan nahi duen hori izatea.

Ikaskuntzak norberari eman ahal diezaiokeenaz ere mintzatu dira aurkezpen ekitaldian. Izan ere, ikaste prozesuak ase egiten duela adierazi dute; zerbait berria ikastea edota ezagutzea erronka bat dela, alegia.

**Jakintza gaiak**

Hitzaldiak izan ohi dira protagonista nagusiak Goienagusik antolatzen duen egitarauan. Aurtengo hitzorduak Bergarako Seminarixoan eta Arrasateko Kulturaten izango dira astelehen eta asteazkenetan, goizeko hamarretan hasita. Hala ere, aurten, Oñatira eta Arantzazura bisita gidatu bat antolatu dute, urriaren 24rako.

Guztira, 53 hitzaldiz gozatzeko aukera izango dute elkarteko bazkideek. Hitzaldietako gaiak aukeratzeko orduan, testuinguru desberdinetako gaiak jorratu nahi izaten dituzte. Aurten, gizartea, literatura, politika, historia, zientzia, musika, erlijioa, osasuna, artea, zinea, filosofia eta etika, teknologia, zuzenbidea, astronomia eta fisika izango dira hitzaldietan jorratuko dituzten gaiak.

Hitzaldi guztiak adituek eskainitakoak izaten saiatzen dira. Horretarako, hainbat aditurengana jotzen dute, eta horiekin data bat finkatu. Aditu batzuek urtetik urtera errepikatu egiten dute; izan ere, hitzaldi bakoitzaren ostean bazkideek galdetegi bat bete behar izaten dute hizlariaren komunikatzeko modua, hizkuntza, materiala eta gaia baloratzeko. Balorazio hori oso lagungarria izaten da elkarteko batzordearentzat, egitaraua osatze aldera.

Bestalde, Goienagusik harremanak ditu Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Eusko Ikaskuntzarekin, Zumalakarregi museoarekin eta Euskaltzaindiarekin; harremanok oso garrantzitsuak izaten dira adituekin harremanetan jartzeko orduan.

**Hiru hiruhileko**

2018-2019 ikasturtea hiru hiruhilekotan antolatu du Goienagusik. Lehena urriaren 3tik abenduaren 19ra izango da; bigarrena, urtarrilaren 7tik martxoaren 27ra; eta hirugarrena, apirilaren 1etik maiatzaren 29ra. Hala, ikasturte honetan bi batzar nagusi egingo dituzte, lehena otsailaren 25ean eta bigarrena maiatzaren 29an. Bi egun horietan, Arrasateko Etxaluzen elkarteko bazkide guztiak elkartuko dira, balorazioa egiteko.

**Astelehenean lehen hitzaldia**

Goienagusiko bazkideek lehen hitzordua izango dute astelehenean, Arrasateko Kulturaten, goizeko hamarretan hasita. Onintze Salazar EITBko eguraldia ataleko aurkezlea izango da hizlaria, eta *La predicción del tiempo no es cuestión de las témporas* izango da lehen hitzordu horren jakintza-gaia.

**HITZALDIEZ GAIN, ARANTZAZURA ETA OÑATIRA BISITA GIDATUA EGINGO DUTE URRIAREN 24AN**

## Bihar, Donostiara, etorkizuneko pentsioen alde egiteko asmoz

18:00etan hasiko da manifestazioa, Alderdi Ederren, eta aurretik elkarretaratzea egingo dute

**Maialen Regueiro** DEBAGOIENA

Urriaren 1ean Nazioarteko Pertsona Nagusien Eguna ospatzen da. Aurtengoa astelehena izan dela aprobetxatuz, pentsiodunak kalera irten dira, beste behin ere, zahartzaro duina eskatzeko. Hala, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, esate baterako, elkarretaratze jendetsuak egin dituzte.

Etorkizuneko pentsioen alde egiteko deituta dago biharko manifestazioa Donostian. Urriaren 1ean Bilbon, Iruñean eta Gasteizen egin dira. Gipuzkoako pentsiodunen hainbat taldek egin dute biharko deialdia. Hala, 18:00etan emango diote hasiera manifestazioari, Alderdi Ederren, nahiz eta aurretik elkarretaratzea egingo duten. Aldunditik igaro ostean, Bulebarrean amaituko dute eta manifestua irakurriko dute. Antolatzaileek adin guztietako pertsonak espero dituzte; izan ere, egoera horren kaltetu nagusiak pentsiodunak badira ere, gazteei ere eragiten die.




Astelehenean Bergaran egindako manifestazioa. GOIENA




Agorrosin Kirol Guneko sarrera nagusia, artxiboko argazki baten. GOIENA

# Bergararrek beste ordaintzea eskatzen dute

Azken hiru agintaldietan moduan, Antzuolako eta Elgetako alkateek Bergarakoari eskatu diote Agorrosin erabiltzearren Bergaran erroldatutakoek beste ordaindu dezatela; 2019ko ordenantza fiskaletan horixe bermatzea eskatu dute, besteak beste

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Azken hiru agintaldietan hainbat alditan irten den debatea izan da Antzuolako eta Elgetako biztanleek Bergarako Agorrosin kiroldegia erabiltzeagatik tasa gehigarri bat ordaindu behar izatearena. Agorrosingo igerileku berriak egiteko, 2006an Bergarako Udalak 2.100.000 euro inguruko diru laguntza jaso zuen Diputaziotik, eta, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak azaldu dutenez, diru laguntza lerro hark jasotzen zuen Agorrosinek Bergaraz haragoko zerbitzua eskaini behar zuela; hala ere, diote "zehaztapen handirik gabe" dagoela jasota puntu hori.

### 2019ko ordenantza fiskalei begira

Ordutik hona, agintaldi ezberdinetan, hainbat negoziazio izan dira. Orain, Bergarak 2019rako ordenantza fiskalak onartu aurretik, Elgetako alkate Iraitz Lazkano eta Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria Bergarako alkate Elena Leterekin batzartu ziren irailaren 12an. Lazkanok eta Kortabarriak uste dute "injustua" dela elgetarrek eta antzuolarrek bergararrek baino tasa altuagoak –"altuegiak", euren ustez– ordaindu behar izatea: "Hiru herrietako biztanleok oinarrizko kirol zerbitzuak baldintza beretan erabili beharko genituzke, Bergarako Udalak Aldundiarekin sinatutako akordioaren arabera. Hainbat saiakeraren ondoren, Aldundiari eskatu genion berma zezala akordioan ezarritakoa, eta erantzuna aldekoa izan da".

Hori horrela, Kortabarriak eta Lazkanok eskatzen dute 2019rako ordenantza fiskalak onartzean Bergarako Udalak berma dezala antzuolarrek eta elgetarrek bergararrek baino gehiago ordaindu behar ez izatea "guztiontzat eraikitako" instalazioak erabiltzeagatik. Bergarako Udalak ez du akordioa horrela ulertzen, eta berriro batzartuko da Diputazioko ordezkariekin. Elena Lete alkateak ez du, oraingoz, gai horren inguruan adierazpenik egin nahi izan.

**EGUN, BERGARARREK BAINO IA %30 GEHIAGO ORDAINTZEN DUTE ANTZUOLARREK ETA ELGETARREK**

### Bergararrek baino ia %30 gehiago

Bergarako Udalak bere garaian planteatu zion Antzuolari eta Elgetari erabiltzaileen araberako modu proportzionatu baten defizitarioa den zerbitzuari eurek ere aurre egitea, eta orduan ezezkoa izan zen erantzuna, bi udal horiek Agorrosingo kudeaketan ez dutelako parte hartzerik. Gaur-gaurkoz, ia %30 gehiago ordaintzen dute antzuolarrek eta elgetarrek bergararrekin alderatuta; Bergaran erroldatutako pertsona heldu batek 232 euro ordaintzen ditu urtean eta Bergaran ez erroldatutako batek, berriz, 302 euro.

# Pinua hilzorian utzi duen onddoa "izugarri" hedatu da udaberrian

Basozainak "oso kezkatuta" daude, eta pinua bota ostean zer landatu ondo hausnartu behar dela diote

**J.B.** BERGARA

Bada, azkenaldian, pinu jabeak eta nekazaritza sektorea kezkatuta dituen izurrite bat: *Lecanosticta acicola* izeneko onddoak eragindakoa, hain justu. Azken asteetan nabarmena da Debagoieneko zein Euskal Herriko paisaian marroi koloreko banda, intsinis pinua erasotzen ari dena; egoera "kezkatzekoa" da, Fermin Lezeta basozainaren arabera: "Iazko udazkenerako Bergara aldean ikusi genuen kolore marroixka eta egun batzuk pasatu zirenerako izugarri zabaldu zen. Kanpanzartik eta Olabarta ingurutik ere sartzen ari da, eta baita Aramaio ingurutik ere; horrenbeste hedatu da udaberri honetan, esan dezakegu dena hartuta dagoela".

### Espero baino hedapen azkarragoa

Basozainek bazekiten onddoa bazetorrela, baina ez zuten espero horren azkar hedatuko zenik eta gogora ekarri dute pinu gazteenetan eragiten dutela kalte handiena: "Pinu jabeak oso kezkatuta daude egurraren salerosketari begira. Bestalde, ezin da ahaztu basogintzan ez dagoela belaunaldi aldaketarik eta berriro landatzeko eta behar den moduko jarraipena egiteko ez dagoela borondaterik. Ondo baloratu beharko da zein zuhaitz sartu eta zein modutan jokatu behar den etorkizunean".

Pinua egoera sozioekonomiko zehatz baten testuinguruan hedatu zen Euskal Herrian eta Debagoienean, eta egoera hori aldatu egin da, Lezetak dioenez: "Ondo pentsatu eta hausnartu beharreko aldaketa esanguratsu baten aurrean gaude. Pinuaren amaiera denik ezin dut baieztatu, baina gaur egun dagoeneko beste espezie batzuk landatzea ari gara gomendatzen".



*Lecanosticta acicola* onddoa bazegoen iaz, baina aurten "oso azkar" hedatu da. GOIENA

## 'Kamarada' hilaren 10ean aurkeztuko dute Arrasaten, Kulturaten

Urriaren 10ean, eguaztena, aurkeztuko dute *Kamarada* izeneko dokumentala, Arrasaten, Kulturaten (19:00). Lumiere Produkzioak ekoiztutako lan honek Julia Juaniz du zuzendari eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Juan Ramon Garaik idatzitako *Celestino Uriarte. Klandestinitatea eta erresistentzia komunista* izeneko biografian oinarritu dira dokumentala egiteko. Celestino Uriarte (Arrasate 1909, Madril 1979) borrokalari komunistaren bizitzarekin batera, erresistentzia antifrankistan aritu ziren hamasei pertsonaren bizipenak ere batzen ditu dokumentalak. Intxorta 1937 Kultur Elkarteak *crowdfunding*-a jarri du martxan eta horretarako kontu korronte zenbaki bat ireki dute: ES46 3035 0001 57 0010105700 (Laboral Kutxa). Dokumentalak ordu eta hamar minutu irauten du.

# 14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

## egin klik!

## 1. SARIA



**ANTELOPE CANYON, ARIZONA** | Argazkia: Iosune Kortabarria

**SARIA:** Redmi 5 Plus smartphonea, Eroski Arrasateri esker

## 2. SARIA



**UR AZPIAN JENDETZA** | Argazkia: Itziar Arrizabalaga

**SARIA:** Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria

## PUBLIKOAREN SARIA



**TURKIA** | Argazkia: Maria Aginagalde Mendibil

**SARIA:** Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, Arrasate Bidaiei esker

Beste behin ere, **Goiena**k antolatzen duen **Udako Argazki Lehiaketak** aurreikuspenak gainditu ditu. Guztira, **430 argazki** jaso ditugu; eta, gainera, Publikoaren Saria aukeratzeko, **406 boto.** Horregatik guztiagatik, parte hartu duzuen debagoiendar guztiei **eskerrik asko!** Datorren urtean ere zuen argazkien zain egongo gara.

**Urriaren 11**ko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

ANTOLATZAILEA:
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
EROSKI ARRASATE
GURE AMETSA JATETXEA
ARRASATE BIDAIAK

## Beti egongo zarete gurekin

ITZIAR JAUREGI
CONSUELO ESCUDEROREN ETA ANTONIO VAZQUEZEN LAGUNEN IZENEAN
ARRASATE

Consuelo eta Antonio maiteak.

Zorte handia izan zen zuek ezagutzea. Zuekin Etxaluzen batzen ginen dantzatzeko, eta oso ondo pasatzen genuen.

Orain, zuen hutsunea gelditzen zaigu.

Ez zaituztegu inoiz ahaztuko.

Eskerrik asko, zuekin asko ikasi genuelako.

Baina beti egongo zarete gure bihotzetan.

Eskerrik asko.

Maitasunez.

## Gainazaleko parte hartzeak

ENEKO FERNANDEZ
ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuaren azken arrakasta San Andresko jolas parke berria aukeratzeko parte hartze prozesua izan da. Enpresa batzuek aurkeztutako 8 proiektu aukeran eman zaizkie herritarrei. Baina proiektuek benetan asetzen al dituzte auzotarrek, ondoan dagoen eskolak, haur eta zaintzaileek dituzten beharrak?

Azkenaldian herrian berriztu diren parkeen oinarrizko ezaugarriak ondo aztertuak eta benetan modu parte hartzailean landuak izan diren zalantzan jartzen dut. Hau da, parkeek haurren garapenean zein ekarpen egingo duten, zein adin tarteri zuzenduta egongo diren, zein azalera eta formatu eman nahi zaien, estalkia edo itzala behar duten, familia osoarentzat erakargarriak eta erosoak izango diren, natur elementuetan oinarritzea posible den, ezintasun fisikoak eta bestelakoak dituztenentzat irisgarriak diren, ghettifikazioari aurre egiteko haurren elkar ezagutza bultzatzeko balioko duten… Nire ustez, koloreak eta formak aukeratzea ez da nahikoa.

Arrasateko haur eta familiek dituzten beharrek erantzun landuagoak merezi dituzte, hauek hezkuntza formalean, ez formalean, gurasoen eta haurren artean bilatu beharko genituzke, ez bakarrik politikari eta hirigintza-obretako teknikari gutxi batzuen artean. Badira herrian hirigintzako esku hartzeetan modu hezitzailean eragiteko sortu diren ekimen oso interesgarriak, baita ekimen txikiagoak ere. Hain justu, Kurtze-txiki parkearen ondoan Bedoñabe eskola dago. Eskola honetako lagunek parte hartze bitartez –bilerak eginez, ez Internet bidezko bozkak– lan txukuna egin berri dute, patiorako proiektu bat diseinatuz. Esango nuke Udalak Kurtze-txikirako aukeran eman dituen 8 parke horiek ez dutela inongo konexiorik eskolan modu paraleloan egin den lanketaz. Uste dut patioa eta parkea elkar osagarriak izan daitezkeela, baina horretarako lanketa oinarrian egin beharko litzateke, erabiltzaileekin. Horrelakorik egiten ez dela argi dago, parkeko eserlekuen gainean taula sintetiko batzuk jarri berri dituzte, eguzkiarekin izugarri berotzen direnak eta heldu gehienei hankak lurrera heltzea eragozten dizkietenak… izugarriak dira.

Auzo horrek eta parke horrek berdegunea, itzala eta plangintza erakargarri bat behar dituzte, ez gainazaleko parte hartze mediatikoak.

## Eskerrik asko!

KRISTINA ZEZIAGA
MARI LUZ MENDIZABALEN ALABEN IZENEAN
ARRASATE

Gutun honen bidez Eskoriatzako eta Arrasateko eguneko zentroetako eta garraio zerbitzuetako langileei eskertu nahi diegu azken urteetan gure amarekin izandako arreta eta emandako maitasuna. Honi esker, gure familia bizitza eta bizitza laborala uztartu ahal izan ditugu. Halaber, etxeko ospitalizazio zerbitzu-taldearen profesionaltasun eta gizatasuna goraipatu nahi dugu. Bide batez, gure amaren heriotzaren ondoren jaso ditugun elkartasun eta maitasun adierazpen guztiak eskertu nahi ditugu.

Bihotz-bihotzez esker mila denoi.

## Alderdien harremanetik haziz

IÑAKI IDIGORAS IGARTUA
OÑATI

Alderdikeriaren mozkorrak utzitako biharamuna atzean utzi nahi, eta oinez abiatu naiz basoan barrena. Aire garbia arnastuta eta barneko har batek bultzatuta, Aramaiora joan naiz. Baso ilunetik irtetean, ez dut *nire* Udalaitzik ikusi. "Hor nonbait beharko luke, ba!". Aramaioar jator batekin topo egin eta galdetu diot. Eta berak: "Udalatx? Parez pareko horixe". "Udalaitz?", nik. "Bai, Udalatx", berak.

Urtu naiz jakitearen beroarekin. Kontatu diot zerk nenkarren, eta… bera izan apustua eutsi zidana! Orduan gainetik ipini zait: "Ikusten, nik zeukeat arrazoi! hiru tontorreko haitz puska zabala duk Udalatx!". Bere alde jatorra kikildu du bere alde autoritarioak; barne mekanismoren batek izoztu egin du lehen ur zena.

Ni urtzea ekarri duen fenomenoa daukat gogoan: ikuspuntua. Enpatia. Bere begiekin ikustea. B-egia. Bere egia onartu diot, eta apustuan jokatua eman ere. Ohartu naiz nola bat-batean, barne mekanismoak alde autoritarioa ezkutatu dion eta alde harroa –ez harroputza– aurpegira ekarri. Egoera probestuz, Oñatirako gonbita luzatu diot.

Udanako begiralekura joan gara uztaileko iluntze argian. Ahozabalik daukat laguna. Hitzik egin gabe, sorbaldatik heldu diot, aurrean daukagunari so: Udalaitz eta Anboto, zeru gorria atzean dutela, zein baino zein edarrago. Izakiak eraikitako Gizako piramideak balira bezala, non, eta gure lurretan, izadiak berak jasoak. "Hemen arnastu ote zuten haiek?", otu zait.

Oñatiarron begi-puntuak erakusten digun Udalaitzen aurpegiari so. Lagun aramaioarra ere, barne mekanismo baten eraginez, urtu da, eta gerri gainetik heldu nau. Bat egin dugu. Ikuspuntu desberdinek egia bat beraren alderdi bi erakusten zizkigutela ohartu berri da bera ere. Jokatutakoa bueltatu dit. Parra geratu gara, baina ez geunden lekuan.

Biok geunden tokitik mugitzeak inork ez genuen ikuspuntu osotuago bat eman digu, bioi. Ohartu gara gauzak ez direla norberak ikusten dituen bezalakoak soilik; bat eginik osoago ikusten ditugula.

Ikusiz ikasi dugu ur sentitze honen hazia gerturatzean eman dela, harremanean, hartu eta ematean. Hartu-emanak elikatzen gaituela, hazi. Harremanaren hazitik hazten baikara.

## Bergarako Udalaren eta Seminarixoaren inguruan

AITOR ALDANONDO LABORDA
WHAT A BAND TALDEKO KIDEA
BERGARA

Ilusiño eta kuriosidadiakin hartu giñuan Seminarixoa bezelako areto bat herrixan zabaltzia. Musikia, antzerkixa, zinia, eta abar.

Ez zeban asko iraun ilusiñuak...

Kudeaketaren inguruan dudak zeren, normala dan moduan, gauzak egitteko modu asko darelako.

Mahai inguru bat antolatu zan Irizar jauregixan horri buruz hausnartzeko.

Udaletxeko iñor ez zan agertu.

Kontua da Bergarako Udalak bakarrik kudeatzen dabela Seminarixoa, herriko beste edozein kultur eragile kontuan hartu barik. Eta horrek, klaro, eskeintza aniztasunian, bestiak beste, eragiña dauka. Hurrengo hiru hillabetietako egitaraua ikustia besterik ez dago.

Uda aurretik kontaktuan jarri giñan udaletxeko Kultura arduradunekin; WAB taldiak gure bigarren diskua grabau dogu eta pentsau giñuan, Gaztetxiaz aparte, beste kontzertu bat Seminarixoan egittia ideia ona izango zala, gaztetxera inguratzen ez dan jendiari bideratuta.

Kontzertua egitteko prest zeren, hori bai, eurak jarrittako baldintzetan. Udalak Goikorock-ekin daukan akordio bat baliauta, afari baten truke jotia zan eskaintza.

Gu prest gare urtian behin Goikorock-eko *jai* baten, debalde edo afari baten truke joteko –akordio hori betetzeko–, baiña ez disko bat aurkezteko.

Gure eskaintza hau izan zan; katxe baten truke jo edo sarreran ateratzen zan diruaren portzentaje bat adostu, banatzeko.

Erantzuna: afari baten truke edo ezer ez.

Ba ezer ez.

Ez gara musikatik bizi eta ez daukogu iñungo diru afanik, baiña uste dogu dirurik ez kobratziak desbirtuau egitten dabela musikuaren jardueria.

Espero dogu egunen baten konturatuko dala Bergarako Udala herrixarena dan areto bat herriko kultur eragillien laguntzaz kudeau bihar dala, herri guztiandako lanian, eta, gaiñera, asko eskatzia ez bada, baldintza duiñak eskaintzen herriko jendiari be bai, kanpokuei badakigu eskatutakua emoten dotzela eta.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



ZABALIK

**BEÑARDO KORTABARRIA**

# Benetan gertatu zena!

Iban Asenjo EH Bilduko kideak Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuari ekainaren 7an Gipuzkoako Batzar Nagusietan idatziz egindako galdera: *Aste bukaera honetako euriteek zer-nolako eragina izan dute Antzuola-Bergara autobiaren eraikuntza obrek Antzuolan pairatutako kalte materialetan?*

Uztailaren 11n diputatu andrearen erantzuna: *Antzuolak pairatutako kalte materialak aste bukaera honetako euriteengatik izan dira.*

Irailean eman dit Iban Asenjok galdera-erantzunaren berri. Ez nau harritu, baina bai haserretu, berriro ere haserretu. Izan ere, ekaineko uholdeetan gertatu zenaren inguruan Aldunditik egiten ari diren kontakizunak efektu hori dauka antzuolarrongan: sutu egiten gaitu. Bihotzez sufritu eta begiz ikusi genuen hura, benetakoa ez dela esaten digutenean; gutxietsi, ninguneatu, tontotzat hartzen gaituztenean, berotu egiten gara.

**GUTXIETSI, NINGUNEATU, TONTOTZAT HARTZEN GAITUZTENEAN, BEROTU EGITEN GARA**

Hala ere, hotz azalduko diot gertatutakoa entzun nahi duenari.

Ekainaren 3ko euri-zaparrada ikaragarriak autobideko obran zegoen material asko eta asko mugiarazi zuen. Material horrek, lehenik, obrako hodi eta arketa asko eta asko trabatu zituen. Pasa ezinda, urak ezohiko bidea asmatu zuen, errepidea gurutzatu, eta obrako material asko eta asko ekarri zuen herrigunera, gure hodieria trabatu eta kalteak eragiteraino. Guk tonaka todouno atera genuen geure hodieriatik, eta, ordutik, obrako hodieriatik ere makina bat tona atera dute.

Antzuolako denok dakigu kontatu dudana dela gertatu zena. Eta, kontrakoa sarri errepikatu arren, ez dugu bestelako bertsiorik onartuko.

Uholdeak ez ziren inoren errua izan, baina eragindako kalteen erantzukizunak norbaitena izan behar du, obrako materiala ez zelako berez iritsi Eztala inguru horretara, norbaitek ekarri zuen; eta ez zen euria izan.

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




HANDIK ETA HEMENDIK

## Hego haizea

**ONINTZA ENBEITA**

HTTPS://LABUR.EUS/PQ7ZW

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Eguna laburtu da jada, baina iluntze gozoak sor ditzake oraindik hego haizeak.

Haize epela izaten da hegotik datorrena: indabak eta piperrak lehortzeko bere bizikoa.

Udazkenaren ezaugarrietako bat izaten da hemen, hego haizeak hostoak nola dantzatzen dituen ikustea.

Naturaren beste elementu askoren moduan, eragina dauka guregan.

Hala esaten dute behintzat gaixotasun kronikoak dituztenek.

Nerbio sistemako edo buruko gaixotasunak dituztenak aztoratu egiten omen ditu.

Zientzian bakarrik fidatzen direnek nekez sinisten dituzte halakoak, baina gaitz horiekin bizitzen ikasi dutenek baietz esaten dute

Agian horregatik esango zaio andra haizea hego haizeari.

Ez daukat erantzun zehatzik, baina susmoa daukat ez ote diguten, disimuluan, historikoki, guri egotzi nahi izan burutik ondo ez egotea.

Txolintasunarekin lotuta bezala erabiltzen da askotan andra haizea.

Litekeena da hala ez izatea, eta emakumeak protagonista egiten gaituen arrazoi historiko ederrak izatea izen hori erabiltzeko.

Ez dakit baina zer esan: genero markarik gabeko gure hizkuntza hau sortu eta mantendu dugun lurretan gizonak izan dira jaun eta jabe.

Beraz, ariketa polita litzateke, halako esapideak nondik datozen aztertzea, ulertzea, jakitea.

Horrela, merezi ez dutenak ez ditugu inora eramango.

goiena“ KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Gizartea euskalduntzen duen eskola da publikoa"

**ANTONIO REGAÑO** KOLDOTXO GURASO ELKARTEKO LEHENDAKARIA

**Eneko Azkarate** BERGARA
Urriaren 20an ospatuko da, lehenengoz, Debagoieneko Eskola Publikoaren jaia. Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolako Koldotxo Guraso Elkartea ari da lanean.

**Zergatik jai hau?**
Euskal Eskola Publikoak gure eskualdean egiten duen lana balioan jartzeko. Hemen, eskola publikoaren matrikulazio kopurua txikiagoa da beste eskualde batzuetan baino. Hori horrela, eskualdeko gurasoen elkarteok, Baikararekin batera, egoki ikusi dugu jaia antolatzea, alde batera utzi barik ekainaren 2an Errenterian, *Makina bat taupada* lelopean, ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren jaia.

**Zergatik Eskoriatzan?**
Eskoriatzan ikasleen %30 matrikulatzen dira eskola publikoan. Beste inon baino nabarmen gutxiago.

**Jaiaz gain, aldarrikapen eguna ere izango da?**
Kaleko errealitatea aintzat hartuz heztea nahi dugu, ezelako bazterketarik gabe: izan arraza, genero edota ezgaitasun. Era berean, euskararen alde eskola publikoak egiten duen lana balioan jarri nahi dugu. Gizartea euskalduntzen duen eskola gara; izan ere, inguruneagatik edo jatorriagatik, euskaratik urrun dauden haur gehien eskolaratzen dituen hezkuntza eredua da Euskal Eskola Publikoarena.



Antonio Regaño, Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolaren aurrealdean. IMANOL BELOKI

**Kolokan ikusten duzue euskarazko eta kalitatezko eskola publiko doanekoaren iraupena?**
Eskoriatzan bai. Herri txikia da gurea, jaiotza-tasa murrizten doa eta, ondorioz, ikasle kopurua ere gero eta txikiagoa da. Eta bi ikastetxe daude. Hortaz, zera galdetu beharko genioke geure buruari: zein hezkuntza eredu nahi dugu? Guk argi daukagu: hezkuntza sistema publiko, euskaldun eta kalitatezkoa. Arlo guztietatik eredu honen alde apustu egitea nahi dugu.

**Zeintzuk dira Euskal Eskola Publikoaren zailtasun handienak eta erronka nagusiak?**
Gure erronka da gure seme-alaben hezkuntzaren alde herritik eta herriaren alde lanean segitzea. Guretako oztoporik nagusia izan liteke erakundeek ez apustu egitea hezkuntza publikoaren alde.

**Egun osoko egitaraua prest duzue. Zer nabarmenduko zenuke?**
Ze Mays taldearen emanaldia nabarmenduko nuke, baina beste hainbat ekitaldik ere piztuko dute jendearen arreta. Denetik izango da urriko hirugarren zapatuan. Jai eta aldarrikapen egun polita izango da.

ITURRI ONETIK

## Garagardo Azokarik ez Eskoriatzan

Garagardo Azoka solidarioa egin ohi da Eskoriatzan sasoi honetan, Jose Arana zaharren egoitzaren alde sosak batzeko. Aurten ez da egingo, ordea. Batetik, zaharren egoitzaren egoera ekonomikoa egonkortuta dagoelako eta, bestetik, lan eta inbertsio handia eskatzen duelako eta mozkinak ez direlako horren handiak. Dena den, askotariko garagardoak edateko eta Alemaniako jakiak eta oilasko izterrak jateko aukera eskaini duen azoka berreskuratu egin nahiko luke herriko talde batek datorren urtean.

ALBISTE IZAN ZEN


GOIENA

2005-10-02

## Kilometroak euripean, Leintz bailaran

Milurteko lehen Kilometroak jaia Leintz bailaran ospatu zen, 2005ean; gerora etorri ziren Bergarakoak, 2007an eta 2016an eta Oñatikoa, 2017an. 2005eko urriaren 2an, hasiera ekitaldia –argazkian– Aretxabaletan egin zen. 100.000 lagun espero zituzten, baina eguraldiak ez zuen lagundu eta aurreikuspenak ez ziren bete. Hala ere, antolatzaileek "oso balorazio positiboa" egin zuten. Domekan da Kilometroak, Urretxu-Zumarragan.

HAU BE BADOGU!

## Begiradak, San Mamesko derbian



Athleticek eta Realak jokalarien joan-etorrien polemikaz betetako derbia jokatuko dute gaur, eta sare sozialetan bolo-bolo ibili da gaia azken astean.

*@arranobeltza*: "Penagarria iruditzen zaizkit Errealaren eta Athleticen arteko pike horiek. Lehenengo, futbola baino ez da, eta bigarrenik euskaldunak gara, ez espainiarrak, beraz ez dugu haiek bezala jokatu behar, derbia disfrutatzeko eta gozatzeko da, ez aurkariak haserretzeko".

## Klimaren aldeko Alternatiba itzulia

Aldaketa klimatikoaren aurkako bizikleta martxa antolatu dute, eta egunotan Euskal Herrian zehar ibili da. Horrela, *#touralternatiba trending topic* izan da erabiltzaileen artean.

*@IxoneRekalde*: "5.000 km egin ostean Donostiara iritsiko da. Hartu bizikleta eta eman ongietorria itzuliari. Ekonomia zirkularra, kontsumo arduratsua, ekonomia sozial eraldatzailea soluzio ona dira klima aldaketari aurre egiteko".

## 'Trending topic' izan da '#GSEF2018'

Gizarte ekonomiaren inguruan Bilbok eta Arrasatek elkarlanean hartu duten mundu mailako foroa hizpide izan da sare sozialetan:

*@GSEF2018*: "Hiru egunetan zehar lan bikaina burutu da gizarte ekonomiaren etorkizunaren inguruan".

*@ibonantero*: "*#GSEF2018* itxiera: 1.700 pertsona, 80 herrialde, 11 hizkuntza eta 11 kolore. Laboral Kutxako Txomin Garcia, ekonomia soziala balioan jartzen".

# Txikito-zaleen patroi, hemen da Maritxu Kajoi

40 urte baino gehiago pasa dira lehen alditik, eta baliteke gaur egun marrubizko tekila gehiago edatea Errioxako ardoa baino. Baina Maritxuk ez du lagunak mahai inguruan batzeko gaitasuna galdu, ezta urteko gaurik dotoreenaren izendapena ere

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Jendartea aldatu egin den bezala, gauza bera egin du Maritxu Kajoik urteen joan-etorriarekin.

Izebaren edo osabaren jantzi zaharra erabiltzetik, Internet bidez astebete lehenago eskatutako jantzia estreinatzera; miraririk ez izatetik, urtero egitera; edo arratsaldean hasten zen jaia izatetik goizetik goizeraino luzatzen den festa izatera.

"Lehen, arratsaldeko jai bat zen; lanetik irten eta txikiteo orduan hasten zena. Poteoa, miraria eta afaria egitea zen hasieran ohikoena. Baina egia da gaur egun goizeko txikiteotik hasten dela jaia", azaldu du Maritxu Kajoi jaiaren sortzaileen artean dagoen Agustin Ibarluzea *Txispas*-ek.

Baliteke, ordea, bazkariek indarra hartzearen *errua* hasierako antolatzaileena izatea, jende guztiak afaria egiten zuenean eurek bazkaria egiten zuten eta. "Goizean irteten ginen, auto eleganteekin, motorrekin, zaldi gurdiekin... Arratsaldean lan ugari egin behar izaten genuenez, bazkaria egiten genuen. Batzuetan, bazkaria eta afaria egiten genuen, baina mirariagatik edo bestelako zereginengatik, askotan, afaltzeko tarterik gabe geratzen ginen".

**Komisiñuak, aurten, bi keinu**

Urtero legez, jai handia badatorrela iragartzeko *nobenaixua* egin zuten Maritxu aurreko barikuan. Aurten, Besaide Mendizale Elkarteko kideek jaso dute Komisiñuaren aitortza irudikatzen duen inbutu preziatua. "Besaidek urte mordoxka daramatza herrigintzan isilpean lanean. Komisiñoko partaideok badakigu zelako lan nekeza den hori. Oso proiektu interesgarriak egin dituzte herriarentzako. Kurtzetxiki, adibidez: lehen, narra bakarrik zen, eta orain, herritar mordoa joaten da. Berdina Anporretarekin. Etxezarretako proiektua ere hor dago... Oso lan interesgarriak egin dituzte", azaldu du Komisiñoko kide Onintze Gorospek.

Baina, Komisiñoko kideek eskapularioa ere baliatu dute herrian aktibo dagoen beste kolektibo bati keinua egiteko. Izan ere, aurtengoak *1.080* zenbakia eta pentsiodunen argazkia izango ditu atzealdean. Herriko pentsiodunek atseginez hartu dute aitortza, Musakolako jaietan jaso zutenean bezalaxe.

**'Photocall'-a**

Aurten ere *photocall*-a jarriko du Goienak Herriko Plazan. Hain zuzen, 12:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:30era egongo da udaletxe aurrean.



2017ko mirariaren une bizi bat. IMANOL SORIANO

## Maritxu Kajoiko egitaraua

- **08:00** Etxafuegoak, "sare sozialei jaten emateko".
- **12:00** Meza santua, herriko harategien alde.
- **17:30ean** Potx eta Lotx pailazoekin *Izar berriak* haurrentzako ikuskizuna, Seber Altube plazan.
- **18:00** Brazzet MV Brass Band taldearen eskutik Jazz Fussion ikuskizun paregabea, Herriko Plazatik hasita.
- **18:30** Kilikiak eta erraldoiak herrian zehar.
- **19:00** Oria txaranga beteranoa, Herriko Plaza inguruan.
- **20:30** Maritxuri lore eskaintza eta miraria Herriko Plazako iturrian.
- **21:00** Txosnagunean flashmob-lipdub-fotoa, *Tubo basoik ez suduraundixen eskubideen alde* lelopean.
- **00:00** Luhartz taldearen dantzaldia, Herriko Plazan.
- **03:00** Arbolapetako zuhaitzari ardoa botatzea.
- **06:00** Ur jolasak gaztetxean, bertako "ittufin ugarixek aprobetxaute".
- **08:00** Gaupaseroen sinposioa.

**Oharrak:**

- Eskapularioa jantzi.
- Maritxuk ez du eraso sexistarik onartuko.
- Gogoratu Maritxuk eskertu egiten duela loreak jasotzea.



# Ausortu: sormena erreferenteegandik gertu

Txatxilipurdik eta Ttak!-ek diseinatu berri duten sormen laborategiak 15 eta 19 urte bitarteko gazteak hainbat diziplina artistikotara hurbiltzeko asmoa du. Horretarako, diziplina bakoitzeko artistak ekarriko dituzte; adibidez, Izaro Andres eta Kepa Errasti

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

"15 eta 19 urte bitarteko gazteen eskaintzan hutsunea ikusten genuen. Hori estaltzera dator Ausortu; betiere, euskaratik, eta artista garrantzitsuekin elkarlanean", adierazi dute Txatxilipurdiko eta Ttak!-eko antolatzaileek.


Txatxilipurdiko eta Ttak!-eko kideak ekimenaren aurkezpenean. MAIALEN REGUEIRO

**Lau diziplina, lau saio**

Lehen hitzordua urriaren 20an izango da eta arte plastikoak landuko dira, Helena Azkarragaurizarrekin eta Joana Manzisidorrekin; pintura eta marrazketa saio bat izango da. Bigarrenean, ikus-entzunezkoetan adituak diren Ekaitz Filarmendi eta Itziar Bastarrika arituko dira, urriaren 27an; kasu horretan, argazkigintzan murgilduko dira. Arte eszenikoak landuko dituzte hirugarrenean, eta Kepa Errasti izango da gazteekin arituko dena; antzerkiaren mundura gerturatzeko aukera egongo da azaroaren 10ean. Azkenik, Izaro Andres izango da musika diziplinaren ordezkaria, azaroaren 24an.

**Izen ematea**

15 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen ekimena da eta hitzordu bakoitzean parte hartzeko aurrez izena ematea komeni da. Izena emateko azken eguna saioa baino astebete lehenago izango da: urriak 12, urriak 19, azaroak 2 eta azaroak 16, hurrenez hurren. Izena emateko moduak honako hauek dira: Txatxilipurdi (943 79 54 46) eta AED (943 77 12 28). Saio bakarrean parte hartu nahi duenak 15 euro ordaindu beharko ditu eta denetan parte hartu nahi dutenek, aldiz, 50. Arrasaten erroldatutakoek izango dute lehentasuna, baina bailara osoko gazteei zuzenduta dago.

## Jaiki talde politikoa ez da aurkeztuko hauteskundeetara

Talde politikoaren sorreraren berri eman dute. Bertan azaltzen dutenez, "alderdi politikoetatik at herrigintza borrokalaria bultzatzeko" asmoz jaio den taldea da. Herriko gazte batzuk –eta hain gazte ez direnak ere– daude ekimenaren atzean, eta "independentzia, sozialismoa, feminismoa eta euskaltzaletasuna" izango dituzte ardatz.

OHARRA

## Inaugurazioa

Ezker Anitza IUk egoitza berria du Aldai kaleko 9. zenbakian eta astelehenean inauguratuko dute, 18:30ean. Eskualdeko pertsona ezkertiarrentzako topagunea, "ikuspuntu feminista, ekologista, errepublikano eta sozialistatik elkarbanatu, hausnartu, eztabaidatu eta lantzeko gunea" izan gura du.



# Ikurren parekidetasuna lortzeko akordio zabala

Guztiek bat egin dute gai horren inguruan, eta besteak beste, osoko bilkura aretoan emakumezkoen eta gizonezkoen erretratuen kopurua berdina izatea adostu dute. Horrez gain, 2019rako ordenantza fiskalak onartu dituzte, oposizioak botatu gabe

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Urriko osoko bilkuran akordio zabala lortu da herriko ikurren parekidetasuna lortzeko. Gaia mozio bidez jarri zuen mahai gainean Baleikek, eta adierazpen instituzional gisa onartua izan zen, beste alderdiekin testu bateratu bat adostu ostean.

Alderdi moreak osoko areto bilkura jartzen zuen parekidetasun faltaren adibide gisa. Bertan, Arrasateri ekarpenak egin dizkioten hiru gizonezkoren erretratuak daude gaur egun; Esteban Garibai, Pedro Biteri eta Maisu Arano. Horrez gain, Arizmendiarrietaren Lagunak elkartekoek hitza hartu zuten urriko osoko bilkuran, "herrian arrasto sakona utzi zuen abade markinarraren erretratua gela horretan jartzea" eskatzeko.

Baleikekoek bazekiten eskari horren berri, eta prentsa oharra bidali zuten gaiari buruz egiten zuten planteamendua azaltzeko. Ostean, gainontzeko alderdien onespena lortu zuten, hauen ekarpenak kontuan hartu ostean –EAJrenak eta EH Bildurenak–. Hala, ondorengo sei neurriak hartuko ditu Udalak: aditu talde bat eratuko da aitortza merezi duten Arrasateko emakumeen zerrenda bat egiteko, eta ostean, herritarrek horien artean gustukoena botatuko dute. Aitortzak ez dira soilik norbanakoenak izango, baita kolektiboak ere. Diagnostiko bat egingo da, genero ikuspegitik, espazioaren memoria eta aitortza erabileraren inguruan. Berrikusketa feministak, besteak beste, kaleak, estatuak, plazak eta eraikin publikoak hartuko ditu kontuan. Lanak egiteko baliabide ekonomikoak 2019rako aurrekontuan sartuko dira. Eta, azkenik, osoko bilkura aretoan emakumezkoen eta gizonezkoen erretratu kopuru bera egongo da.



Udalbatzako zinegotziak eta aretoan dauden hiru erretratuak. XABI GOROSTIDI

### Polemika ordenantza fiskalekin

Oposizioak salatu zuen euren proposamenak ez zirela kontuan hartu; batez ere, progresibitateari lotuta. Jarraian, puntua botatu aurretik, eserlekutik altxatu, eta osoko bilkuratik atera ziren oposizioko zinegotzi guztiak, "protesta seinale gisa". EAJren eta PSE-EEren botoekin onartu ziren ordenantzak, eta biek oposizioaren jarrera kritikatu zuten. Ordenantzetan ez dago tasa eta zerga igoerarik, eta *Goiena.eus* dago horiei buruzko informazioa.



Etxez etxeko zerbitzuaren gaineko eguazteneko manifestazioa. TXOMIN MADINA

## Kooperatiba sortzeko aukera ez dute gustuko etxez etxekoek

Gatazka konponbidean jartzeko Udalaren proposamena ez dute "oraingoz konponbidetzat ikusten" langileek

**X.G.** ARRASATE

Hiru hilabete baino gehiago greban daroaten Arrasateko etxez etxeko langileek manifestazioa egin zuten eguaztenean, *Arrasateko Udala, konponbidea orain!* lelopean. Langileez gain, hainbat elkarte eta kolektibotako kideak batu ziren bertan, baita EH Bilduko, Baleikeko eta Irabaziko udal ordezkariak ere.

Langileen esanetan, "hitzarmen propio duin" bat lortzea izan zen mobilizazioaren helburua, eta Udalari eta Maria Ubarretxena alkateari zuzendu zitzaizkien manifestazioan zehar egindako aldarrietan.

### Kooperatiba sortu

Hain zuzen ere, Arrasateko Udalak prentsa-ohar bat kaleratu du etxez etxeko langileen gatazkaren inguruan egungo egoeraren berri emateko.

Bertan, azaltzen dute gaur egun Aurrerantz kooperatiba dela etxez etxeko zerbitzua emateko Udalak azpikontratatuta daukan enpresa, eta dagoeneko amaitu dela CLECE enpresarekin zuen kontratu, lotura eta harremana. Udalak gaineratzen du lehiaketa publikorako pleguak elkarlanean jorratzeko aukera eskaini diela etxez etxeko langileei.

### Plegu berria lantzeko mahaia

Horren arabera, langileek hiru pertsonaz osatutako talde ordezkaritza bat osatuko lukete udalarekin plegu berria lantzeko. Langileak ados agertu dira puntu honekin. Baina ez Udalak egiten duen beste proposamen batekin. Izan ere, Udalak kooperatiba bat eratzeko aukera jarri die mahai gainean etxez etxeko langileei, eta, horretarako, Enplegu Sailaren erabateko laguntza eskaini die. Langileek diote hori ez dutela oraingoz konponbidetzat ikusten.

arbolapeta
arrasate
beinke

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



# "Beste lau urte gehiago egiteko eskatu didate"

**JUAN LUIS MERINO** IRABAZIKO ZINEGOTZIA

Maiatzeko hauteskundeei begira Irabaziko zinegotziak kargua utziko zuela iragarri zuen. Alderdiak, baina, geratzeko eskatu dio, eta ikusteko dago zer egingo duen

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Eskoriatzan hasi zuen ibilbide politikoa, eta azken urteak Arrasateko zinegotzi egin ditu.

**Zein balorazio egiten duzu EAJk eta PSE-EEk agintean egin duten lanari buruz?**

Txarra. Kudeaketa ona edo txarra egin dezakezu, eta, gure ustez, txarra izan da. Adreilua kudeatzera mugatu dira. Euren proiektu faraonikoak lehenetsi dituzte pertsonen gainetik.

**Zer neurri hartuko zenituzke, agintaldi hasieran boterean egonez gero?**

Gure lehentasun nagusia enplegua izango litzateke. Horrez gain, zerbitzu sozialak indartu egingo genituzke, eta Iturbide egoitzako funtzionamendua aldatu. Fiskalitate progresibo bat ezarriko genuke, aberastasuna hobeto banatzeko.

**Zein da agintaldi honetan Irabazik lortu duen ekarpenik handiena?**

Gobernua kontrolatzea izan da gure eginkizun garrantzitsuena, eta uste dut helburu hori lortu egin dugula. Batzordeetan gogor egin dugu lan, eta gure iritzia kontuan hartua izan da.

**Mozioak izan dira zuen mezua helarazteko erabili duzuen estrategia bat. Aurkeztu dituzuenen artean, zeintzuk izan dira eraginkorrenak?**

Bat aukeratu beharko bagenu, frankismoko krimenen aurkakoa aukeratuko nuke. Guk egun genuen trakzio lana, baina azpimarratu nahiko nuke alderdi guztiok babestu dugun zerbait izan dela. EAJren eta PSE-EEren gobernua komenentziako ezkontza bat izan da, eta behin berriz aplikatu digu *11 vs 10 arrabola*. Hala, nahiz eta ez diren onartuak izan, guretzat, hiru mozio hauek oso garrantzitsuak ziren: auzoetako hauteskunde sistemarena, kontratazioen ikuskaritzarena eta Udalaren laikotasunari buruzkoa. Azken hau onartua izan zen, baina duela gutxi Arantzazun ikusi ahal izan dugu ez dutela bete.

**Jakina da ez zarela hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko. Zer egingo du Irabazik?**

Hala zen, baina Ezker Anitza-IUtik errepikatzeko erregutu didate, beste lau urte gehiago egiteko; beraz, oraindik ikusteko dago egongo naizen edo ez. Horrez gain, Irabazi hil egingo da, eta Ezker Anitza-IUtik izango da Arrasaterako hautagaiak aurkeztuko dituena.



Juan Luis Merino. GOIENA

## OHARRAK

### Euskaraldia, umoretik azalduta

AEDk *Ttak!* izeneko antzerkia antolatu du urriaren 12rako. Beatriz Egizabalek antzeztuko du, Kulturaten, 19:00etan.

### Herriko zazpi gune asfaltatuko dituzte laster

Besteak beste, San Andresen eta Musakolan izango dira.

### Bizikletak garbitzeko gunea

Arruena parkean asteon hasi dituzte gunea egokitzeko lanak.

### Auzoko ekimeneko izen ematea, zabalik

943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara dei dezakete, edo Ekinen lokalera joan.

Debagoieneko
GREMIOAK

AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
*e.arrasate@gmail.com*

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkoneak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



**Pasa den eguenean aurkeztu zuen denboraldia ARTk.** ISEI BARBERO

# 100 jokalari inguru izango ditu aurten ARTk

Arrasate Errugbi Taldeak pasa den eguenean aurkeztu zuen 2018-2019 denboraldian izango duen kirol egitura. "Aspaldiko partez", klubak ia-ia kategoria guztietan talde propioa izango du aurten –16 urtez azpikoena izango da salbuespen bakarra–

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

"Gogotsu eta ilusioz" ekin dio Arrasate Errugbi Taldeak denboraldi berriari. Pasa den eguenean egin zuten aurkezpena, Seber Altube plazan.

Jokalari kopuruari dagokionez, "azken urteetako ekitaldirik onena" izango da aurtengoa Arrasate Errugbi Taldearentzat, "aspaldiko partez" klubak ia-ia kategoria guztietan talde propioa izango du eta –16 urtez azpikoena izango da salbuespen bakarra–. Gainontzeko kategorietan, eta aurreko urteetan ez bezala, arrasatearrek ez dute beste klub batzuekin taldea partekatzeko beharrik izango.

Hala, ia 100 jokalarik jantziko dute denboraldi honetan elastiko zuri-morea.

Senior mailako taldeak Euskal Ligako Lehen Mailan lehiatuko du eta Igor Isasik 25 jokalari izango ditu; 18 urtez azpikoetan ere 25 jokalari izango dira; 16 urtez azpikoetan, lau jokalari besterik ez; infantil mailan, 20 jokalari eta Errugbi Eskolan 25 neska-mutiko: 12 urtez azpikoetan hamabost eta 10 urtez azpikoetan hamar.

## "Azken denboraldia izango dut hau, buruak atsedena eskatzen dit"

**IGOR ISASI** KANPANZAR ART-KO ENTRENATZAILEA

Kanpanzar ARTko entrenatzaileak aitortu du "gutxienez urtebeteko" atsedena behar duela eta, ondorioz, bere azken denboraldia izango dela aurtengoa. Kirol arloan, lehen jardunaldian galdu ostean, partidu garrantzitsua dute domekan arrasatearrek, Gernikaren aurka. Mojategin izango da, 13:00etan.

**Zein izango da taldearen helburua aurten?**

Orain arte moduan, partiduz partidu joango gara, aurreko partiduetatik gauzak ikasi eta datorrenari aurre eginez. Gura duguna da lehiakorrak izan eta ahalik eta ondoen pasatu.



GOIENA

**Mailari eutsi gurako diozue, ezta?**

Hori da. Begiz jota ditugu talde batzuk, gutxi gorabehera, gure maila berekoak direnak, eta horien kontrako partiduak izango dira garrantzitsuenak. Ahal bada, irabazi, eta, bestela, puntuak lortu. Gernika aurkari horietako bat da. Guk gure lana ondo egiten badugu eta astean landutakoa zelaian erakusten badugu, aukera asko izango ditugu irabazteko.

**Etxeko partiduak garrantzitsuak izango dira.**

Bai, eta, gure kasuan, are garrantzitsuagoak, belar artifiziala daukagu eta. Puntu gehienak etxean lortzea izango da normalena.

**Diferentzia handia dago belar naturaletik artifizialera?**

Bai. Jokoa askoz ere geldoagoa da belar naturalean, eta, gure taldeak dituen ezaugarriak kontuan hartuta, joko azkarragoa hobeto datorkigu, jokalari arinagoak ditugulako.

**Ordiziaren eskaintzari ezetz esan diozu uda honetan. Asko pentsatu behar izan duzu?**

Bi aukerak mahai gainean jarri eta guztia hartu behar izan dut kontuan, baldintza ekonomikoak zein kirol arlokoak. Bestalde, orain arteko hamar urteetan oso gustura egon naiz Arrasaten, eta Eibartik ere Arrasate gertuago daukat Ordizia baino. Gainera, azken urtea izango da hau; beraz, ondo bukatu gura dut hemen.

**Hamaikagarren urtea duzu hemen. Azkena, zergatik?**

Buruak atseden pixka bat eskatzen dit. Errugbian jokatzen hasi nintzenetik, ez dut atsedenik hartu eta errugbiari denbora luzea eskaini diot. Beste gauza batzuei ere eskaini nahiko nieke denbora; beraz, urtebeteko atsedena hartuko dut eta gero ikusiko dut hau faltan igartzen dudan edo ez. Baina lehenik, ea mailari eusten diogun aurten. Datorren urtean, gainera, 18 urtez azpikoen taldetik igoko dira jokalariak eta jende gehiago egongo da taldean.

## "Ez nago ohituta, baina gauza polita da tituluak irabaztea"

Mikel Gonzalez 'Gontxa'-k Txipreko Superkopa irabazi du AEK Larnaca taldearekin; bere bigarren titulua da

**E.A.** ARRASATE

Pasa den zapatuan jokatu zuten Txipreko Superkopa iazko Liga txapeldunak –Apoel Nikosia– eta kopa txapeldunak –AEK Larnaca–. Azken hau izan zen irabazlea, penaltietan. Hala, bere ibilbide profesionaleko bigarren titulua eskuratu zuen *Gontxa*-k. "Ez nago ohituta, baina gauza polita da titulu bat irabazi, kopa jaso, eta lagunekin ospatzea. Gainera, taldeak ez du sekula titulu hau irabazi, eta horrek are politago egiten du lorpen hau", adierazi du arrasatearrak.

Partiduan bana berdindu ostean, penaltietan irabazi zuen AEK Larnacak.

### Dinamika onean

Denboraldia dinamika onean hasi dutela azpimarratu du *Gontxa*-k. "Europa Leaguerako sailkatzea lortu dugu, eta liga hasiera ona egin dugu, partidu bat irabazi eta bestea berdinduta". Era berean, adierazi du azken urteetan AEK Larnaca moduko taldeak indartzen ari direla pixkanaka, eta herrialdeko talderik indartsuena den Apoel Nicosiaren mailara gerturatzen.



***Gontxa*, seme-alabekin.** AEK LARNACA

### Txipren, "oso pozik"

Bizitzen ari den esperientziari dagokionez, "oso pozik" dagoela nabarmendu du. "Klubak eskaintzen didan tratua oso ona da, emaitzak laguntzen ari dira, hiria gustatzen zait, eta familia ere gustura dago hemen. Banuen horrelako esperientzia bat bizitzeko gogoa", azaldu du.

# Aspanogiren aldeko lehiaketa martxan dago

Artgazki elkarteak laugarrenez antolatu du 'Udazkena Euskal Herrian' argazki lehiaketa, eta parte-hartzaileek azaroaren 21era arte aurkeztu ahal izango dituzte euren lanak; gero, koadroak salgai jarriko dira, Aspanogi elkarteari laguntzeko

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Artgazki elkarteak *Udazkena Euskal Herrian* argazki lehiaketa jarri du martxan.

Izenak dioen moduan, Euskal Herriko udazkena da lehiaketaren gaia, eta "aurkeztutako lanek erakutsi behar dute Euskal Herriko basoak, errekak, itsasoa, herriak, baserriak, eta abar nola dauden urteko sasoi honetan", taldeko kideen esanetan.

Parte-hartzea librea eta doakoa izango da, betiere, elkarteko kide izanez gero. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, helbide honetara bidaliz: *lehiaketak@artgazki.org*.

Aurkeztutako argazkiak ondorengo datuak eduki beharko ditu: argazkilariaren izena eta abizenak, helbide elektroniko bat, telefono zenbaki bat, argazkiaren titulua eta argazkia non aterata dagoen. Era berean, "argazkiak ezin izango du eraman inprimatuta ez egilearen izenik, ezta inolako anagramarik ere".

**Debekatuta**

Debekatuta daude fotomuntaketa bidez egindako irudiak eta argazki bat baino gehiagorekin osatutakoak, eta epaimahaiak baztertu ahal izango ditu, bere iritziz, manipulatuta dauden argazkiak, hala nola "irudiaren elementu bisualak erantsi, kendu edo lekuz aldatuz osatutakoak". Eta ez dira onartuko argazkiaren jatorrizko formatua aldatzen dituzten mozketak.

**Aspanogiri laguntzeko**

Azaroaren 21a izango da lanak aurkezteko azken eguna, eta 25ean jakinaraziko dituzte argazki sarituen izenak. Epaimahaiak aukeratutako argazkirik onenak Arrasateko hainbat establezimendutan erakutsiko dira, eta, ondoren, Kulturateko erakusketa aretoan. Lanak salgai jarriko dituzte, eta jasotako dirua Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteari laguntzeko erabiliko dute.

Sariei dagokienez, irabazleak 300 euro eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak, 200 euro eta garaikurra; eta hirugarrenak, 100 euro eta garaikurra. Publikoaren saria ere egongo da: mendiko materiala.

Informazio gehiago, *Artgazki.org* webgunean.




Pasa den edizioko sari banaketa, Kulturaten. GOIENA

## Maila handiko bi kontzertu izango dira urrian Taupa tabernan

Lehena datorren eguenean izango da, urriaren 11: Donna Dunne eta Phllip Doyle bikote irlandarrak osatutako Craic 'N' Roll taldearen emanaldia, 19:00etan. Urriaren 20an, bestalde, Ganberock jaialdiaren bosgarren edizioa izango da. Rotten XIII punckrock talde tafallarrak eskainiko du kontzertua Taupa tabernan, 20:00etan.

## Cigüeña taldeak eskainiko du Kooltur Ostegunetako bigarrena

90eko hamarkadako indie eta hardcore-punk melodikoaren korronteetan murgiltzen den bikote valentziar bat izango da datorren eguenean gaztetxean: Cigüeña. Unai Lilly gitarra-jole eta abeslariak eta Martin Arles bateria-joleak osatzen dute bikote indartsu hori. Kontzertua urriaren 11n izango da, 22:00etan. Sarrera bost euro da.





Neska-mutikoak, Arantxa Iza eta Matilde Sainz irakasleekin, Herriko Plazako eskaileretan. JON ANTXIA



Hainbat neska-mutiko zelai batean jolasean. MATILDE SAINZ

# Lehen ikastolari esker onez

Loramendi Ikastola sortu zela 50 urte bete dira aurten. Eta hori gogoan, ospakizun xume baina goxoa gertatu dute, biharko, lehen bi promozioetako ikasleek. Sasoi hartan, Aretxabaletan, euskal hezkuntzaren alde lan egin zutenak eskertu gura dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Loramendi Ikastolak 50 urte beteko lituzkeela izango dute gogoan askok bihar, urriak 6. Ilusio handiarekin gertatutako ospakizun ekitaldi xumea egingo dute; izan ere, ikasleak, irakasleak, gurasoak eta sasoi hartan ikastolaren lehen oinarriak lantzen jardun zuten guztiak elkartu gura dituzte; besteak beste, lau irakasleak: Matilde Sainz, Kristina Gomez, Edurne Gallastegi eta, Arantxa Iza zenaren izenean, haren ahizpa Ixabel.

Herriko Plazan elkartuko dira, 12:30 bueltan, eta Arkupe kultur etxera joko dute, ikastolaren ibilbidea jaso duen ikus-entzunezkoa ikustera. Ondoren, udaletxe zaharrean jarraituko du ospakizunak, eta ezustekoz beteta datorrela jakinarazi dute antolatzaileek.

### Gurasoak babes bila

Ikastolaren sustatzaileetako batek, Jabier San Migelek, gogoan du orain dela 50 urte baino lehenago hasi zirela lehenengo mugimenduak Euskal Herrian: "Urtebete lehenago, Arrasateko ikastola jarri zen abian. Eta gure herriko gurasoen aldetik bazegoen halako ardura bat; hala, talde bat sortu zen eta, denborarik galdu gabe, aurrera egiteko gogoa agertu zuen". Halaxe, babes juridiko ofizial baten bila hasi ziren, eta Elizarengana jo zuten; Escuela Parroquial La Asuncion izan zen ikastolaren lehenengo izena: "Don Angel Garmendia parrokoak gogo onez eman zion babesa", dio San Migelek.

**BABES JURIDIKOA ELIZAK EMAN ZION ETA ESCUELA PARROQUIAL LA ASUNCION IZAN ZEN LEHEN IZENA**

Abian jartzeko, irakasle ofizial baten beharra ere bazegoen: "Irakasle lanik ez egin arren Dolores Arregi arrasatearrak bazuela titulua eta harengana jo genuen. Eta hark eman zigun".

Lekuari dagokionez, ostera, Durana kalean kokatutako udaletxe zaharraren egoitza utzi zion Udalak. Urte gutxi batzuk egin zituzten han ikasleek; izan ere, laster geratu zen txiki. "Egoitza handiagoa behar zen, eta Costrucciones Elorzak Nafarroa kalean zuen lokal bat eman zigun baldintza ezin hobeekin", dio San Migelek. Erosteko, baina, dirua behar zuten; baita asmatu ere norengana jo: Juan Arregi enpresa-gizon aretxabaletarrarengana: "Hari eskatu eta handik egun gutxi batzuetara dokumentua gertu zeukan guk sinatzeko. Milioi erdi pezeta eman zizkigun". Arregirekin batera Juan Antonio Garmendia botikaria ere gogoan dute ikastolaren sustatzaileek, eskertu ezinezko laguntza eskaini zuelako.

Lokal berriaren erosketaren ondoren, kooperatiba bihurtu zen ikastola, 1973an, eta izen eta titularitate aldaketak ere etorri ziren; aurrerantzean Loramendi Ikastola izango zen eskolaren izena eta jabe berria Loramendi Gurasoen Kooperatiba.

### Pedagogia berriak ikasten

Gasteizen irakasle-eskolan zegoela deitu zioten Matilde Sainz arrasatearrari hainbat gurasok: "Ikasketak bukatzerakoan urtebeteko trebakuntza eskaini zidaten Donostian, andereñoen erresidentzia batean. Besteak beste, euskal kultura eta pedagogia berriak ikasten egon nintzen, praktikak eginez", dio Sainzek. Urtebete egin zuen udaletxe zaharrean irakasle, eta gero, Nafarroa kaleko lokalera joan zen neska-mutikoekin batera. "Hasiera hura esperientzia

## Ikasleen aitortza eta esker ona





Nuria eta Martxi ikasleak. M.A.

Loramendi Ikastola desagertu egin zen, baina orduan lanean jardun zutenek zutabe sendoak eraiki zituzten, eta arrasto sakona utzi du askorengan apal-apal baina ilusio handiarekin udaletxe zaharrean egoitza izan zuen lehen ikastola hark. "60ko hamarkadan loraldi garrantzitsua izan zen Euskal Herrian, orokorrean, eta baldintza guztiak eman ziren gurean ere ikastola abian jartzeko. Guraso askoren inplikazio zuzena behar izan zen horretarako, baina herritar norbanako askok ere parte hartu zuten. Eta, gainera, domino efektuarekin, bata bestearen ostean etorri ziren beste hainbat", dio Martxi Perezek, ikastolako lehen promozioko ikasleak, eta gaineratu du: "Nire kasuan, gurasoak erdaldunak izanik, ikastolari esker euskaldundu nintzen. Hortaz, garena hari esker da". 50 urte pasatu ondoren aitortza egiteko ordua dela uste du: "Gogoan nuen data, eta orduko guraso, sustatzaile eta andereñoei esker ona adierazteko eta gorazarre txiki bat eskaintzeko unea da".

Handikeriarik gabe ekitaldi xumea, gertukoa eta kuttuna egin gura izan dutela dio Nuria Fernandez de Arroiabek: "Eskerrak emango dizkiegu haiei guztiei, gure borondaterik onenarekin". Lehen bi promozioetako ikasleen burutazioa izan da, baina ekitaldia edonori dago zabalik: "Ikastolan jardun zutenei zeresanik ez, eta gainerako herritarrei ere bai".

## "Juan Arregiri omenalditxoa egin genion laguntza eskertzeko"

**JABIER SAN MIGEL** SUSTATZAILEA

Ikastolaren sorreran beste hainbatekin batera lanean jardun zuen.

**Jose Mari Sarasuak zeresan handia izan zuen, ezta?**
Jose Mari izan zen, nire ustez, lan gehien egin zuenetakoa.

**Eta zu alboan…**
Niregana jo zuen hark, eta nik esan nion egunero ezingo nintzela egon, baina edozer behar izanez gero gertu nengoela laguntzeko. Halaxe, kontu pare batean haren alboan ibili nintzen.

**Juan Arregiren laguntza ere garrantzitsua izan zen, ala?**


M.A.

Enpresa-gizon famatua zen Gasteiz aldean eta borondate onez hartu gintuen. 500.000 pezeta eman zizkigun, %5eko interesarekin. Politika kontuengatik kreditu horrek erantzule batzuk behar zituela esan zigun, eta Jose Mari Sarasua, Joxe Olabe eta ni neu egin ginen horren arduradun. Handik urte pare batera deitu egin zigun, eta dokumentua geure aurrean apurtu zuen, kredituarekin ahazteko esanaz; a ze lasaitua hartu genuen! Eskertzeko omenalditxoa egin genion; *Burgalesenean* afaldu genuen. Benetan gustura geratu zen.

**Atzera begiratuta, pozik egindakoarekin?**
Zalantza barik. Baina, gainera, uste dut eskola publikoan ikasketak euskaraz ematen hasi ziren lehenengoetakoa izan zela Aretxabaleta. Hori oso garrantzitsua izan zen, eta horrek benetan pozten nau.

## "Jarraipen estua egiten ziguten gurasoek, eta ulertzekoa da"

**MATILDE SAINZ** IRAKASLEA

Arantxa Iza izan zen lehenengo irakaslea eta bigarren urtean Matilde Sainz iritsi zen.

**Gurasoak joan ziren zure bila…**
Bai, Gasteizen ikasten nengoela. Ikasketak gazteleraz ziren orduan, eta horiek bukatutakoan euskal kultura, pedagogia berriak eta beste hainbat kontu ikastera joan nintzen Donostiara, hango eta hemengo beste hainbatekin batera.

**Pedagogia berritzaileen alde egin zenuten, ezta?**
Ni eskola frankistan ikasita nengoen: kopiaketa zen oinarria,


M.A.

buruz ikastea, diziplina zorrotza… Eta beste pedagogia batzuk ezagutu eta aztertu genituen hona ekartzeko. Benetan esperientzia aberasgarria izan zen.

**Zelako harremana zenuten gurasoekin?**
Harreman estua zegoen, eta, era berean, jarraipen estua egiten ziguten: zer egiten genuen klasean, zein pedagogia erabiltzen genuen… Orduan, gazteagoa izanik, ez nuen hain gustukoa gertuko jarraipen hori, baina, gerora, oso ondo ulertu dut euren kezka; izan ere, gure esku utzi zituzten euren seme-alabak eta lehengoarekiko apurtzailea zen pedagogia erabiltzen genuen. Hortaz, ulertzekoa da ardura.

**Pedagogia apurtzailea, adibidez?**
Erlijioarekin, esaterako; guk ez genuen irakatsi nahi eta gurasoei proposatu genien hezkuntza humanitarioa bultzatzea, eta onartu egin ziguten.

bitala izan zen niretzako, ez bakarrik irakasle moduan, baita pertsona moduan ere", dio, eta gaineratu du: "Gurasoek eskura jarri ziguten gura izan genuen guztia; Bordelera joan ginen, esaterako, Freinet pedagogia ezagutzera. Hori ekarri genuen hona, material berritzaileak behar genituelako". Hiru urte egin zituen Loramendi Ikastolan: "Edurne Gallastegi eta biok umeekin Almenera joan ginen gero. Gure umeek ez zuten eskola txartelik, ikastola legeztatu barik zegoelako, eta Almenek txartela eman zigun nagusiendako. Eta orduan, Almen ere euskalduntzen hasi zen".

### Oroitzapen asko

Ikastolaren lehen promozioan hiru adinetako umeak elkartu ziren: 1963 eta 1965 bitartean jaiotakoak, hain zuzen. Horien artean zegoen Martxi Perez: "Gogoan dut Ana Mari Errotabarrikoarekin oinez etortzen ginela neska-mutikook. Umeak eraman eta ekarri, egunero lau kilometro egiten zituela dio hark. Baina oroitzapenak baino gehiago, sentsazioak ditut, oso sentsazio onak". Nuria Fernandez de Arroiabe, ostera, 1966an jaiotakoa izanik, urtebete geroago hasi zen eta hango kontu asko ditu gogoan: "Udaletxe zaharreko atartean jolasean jarduten genuen. Ekintza asko eta asko egiten genituen: ogia egin, hostoak jaso, kantuak ikasi, suge bat ekarri gelara eta tripak atera…".

Azken hilabeteotan, orduko argazki asko jaso dituzte, eta haiei begira milaka kontu, istorio eta pasarte darabiltze esku artean.


Umeak, oinetakoak josten dagoen artisauari begira, azokan. AITOR AGIRIANO


Afaldu bitartean kantuan. A.A.


Dantzan Herriko Plazan. M.A.


Hainbat dantzari abesbatzak habanerak kantatu bitartean dantzan. IMANOL SORIANO

# Jendetza elkartu da euskal giroaren bueltan, sanmigeletan

Kantu afariak, azokak eta Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldiek arrakasta izan dute, beste behin

**M.A.** ARETXABALETA

San Migel jaiak etorri orduko joan dira, baina aho zapore gozoa utzita. Jende asko elkartu zen antolatutako ekitaldietan zein kale bazterretan, eta, aparteko eguraldia lagun, balorazio ezin hobea egin dute askok, Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak, esaterako: "Pozik gaude jaiek eman dutenarekin. Jende asko elkartu da eta giro jatorra sortu kalean". Eta "arrakasta handiena" izan duten ekitaldiak aipatu ditu: "Kantu afarian Herriko Plaza beteta; azoka eta haren bueltako kontuetan ere jendetza: taloak, animalien gunea, bertsolariak… Beinke-Loramendi dantzak ere jende asko elkartu zuen, eta, zeresanik ez, Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldiak". Ezustekoei dagokienez ez zela apartekorik egon nabarmendu du, "farolaren bat bota badute ere ibai alboan".

Ekitaldi horiekin batera, bolo txapelketak ere sortu zuen ikusmina; Josu Aranak irabazi zuen urdaiazpikoa. Doke txapelketan UDA izan zen nagusi, eta haren atzetik geratu ziren Basotxo eta Udala. Eta herri kirolei dagokienez, gertutik jarraitu zituzten askok Alex Txikonen eta *Bihurri*-ren erakustaldiak.

# Antzezlanez beteko da Arkupe, domekan hasita

Antzerki Hilabetea antolatu du Udaleko Kultura Sailak, eta adin guztietara egokitutako bederatzi lan eroango ditu urrian Zaraia aretoko oholtzara. Horietarako sarrerak dagoeneko salgai dituzte kultura etxeko harreran

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Antzerkiari egin gura izan diote lekua Arkupen, urrian. Hala, zinemaren etorrera azarora atzeratu, eta bederatzi antzezlan ikusteko aukera izango da domekan hasi eta hilaren 28a bitartean. Horietarako sarrerak, gainera, dagoeneko salgai dituzte Arkupeko harreran.



Ander Lipus eta Patricia Urrutia *Hozkailua* antzezlanaren une batean. ARTEDRAMA

**Antzerkigintza indartu**

"Antzerkigintza indartzea erabaki dugu, eta hilabete osoa eskaini horri", jakinarazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. Hala, Udalak balioan jarri gura du "antzerkigintza alorrean inguruan garatzen den talentua". Adin guztietara egokitutako lanak ekarri gura izan dituzte: "Helduendako, familiendako eta umeendako; horiek, gainera, eurendako bakarrik diren hiru emanaldi izango dituzte". Astelehenetik eguaztenera hain zuzen ere, ikasleak izango dira Arkupeko gonbidatuak eta ikusiko dituzte eskarmentu handiko hiru talderen lanak: Teatro Paraiso, Tdiferencia eta Markeliñe.

**Tomaxen Abenturak domekan**

Familia giroan ikusteko antzezlanarekin ekingo diote hilabeteari. Tomaxen Abenturak bikoteak *Hamar urte* eskainiko die, domekan, 4 urtetik gorakoei; urtebetetze festa baten bueltako kontuekin ondo pasatzeko aukera izango dute horiek.

Eguenean, hilaren 11n, ostera, helduek gozatuko dute Unai Iturriagak idatzitako eta Manex Fuchek zuzendutako *Hozkailua* lanarekin. Hozkailu baten barruan Londrestik lagunaren hilotza dakarren bikotearen gorabeherak izango dira oholtza gainean, luxuzko aktoreekin, gainera: Ander Lipus eta Patricia Urrutia.

## Herritarrendako emanaldien egitaraua

**Urriak 7, domeka**
- **17:00** Tomaxen Abenturak: *Hamar urte.*

**Urriak 11, eguena**
- **22:00** Artedrama: *Hozkailua.* 12 urtetik gora.

**Urriak 14, domeka**
- **17:00/19:00** Xake produkzioak: *Lur.*

**Urriak 21, domeka**
- **19:00** Ausarta taldea: *Las chicas del balneario.*

**Urriak 26, egubakoitza**
- **22:00** Javier Liñera: *Tendríamos que haber empezado de otra manera.* 12 urtetik gora.

**Urriak 28, domeka**
- **19:00** Diego Perez: *San Jose, hecho un Cristo.* 12 urtetik gora.

## Ikasleendako emanaldiak

Umeendako eta gaztetxoendako bereziki izango diren antzezlanak.

**Urriak 8, astelehena**
- **09:15/ 10:15/ 11:15** Teatro Paraiso: *Lorategian.* 4-5 urte bitartekoak.

**Urriak 9, martitzena**
- **09:00/ 11:00** Tdiferencia: *Jolastokia.* 8-10 urte bitartekoak.

**Urriak 10, eguaztena**
- **09:00/ 10:30** Markeliñe: *Hareazko ipuinak.* 11-12 urte bitartekoak.

# 'Margotutako hormak' erakusketa zabalduko du Murgoitiok gaur

Aretxabaletako 27 pintaketaren eta muralen argazkiak ere jaso ditu, eta urriaren 30era arte egongo da zabalik

**M.A.** ARETXABALETA

Josune Murgoitio artista arrasatearraren *Margotutako hormak* erakusketaren irekiera ekitaldia izango da gaur, 18:30ean, Arkupen.

Euskal Herriko hormetan egindako aldarrikapen pintaden –grafiti politikoak eta sozialak– eta muralen esanahia, balioa eta erabilera sinbolikoa aztertzen jardun du Murgoitiok: "Giza eta kultura antropologiaren perspektibatik ere bai, bake kulturari, memoriari eta giza eskubideei lotutako espazio publikoetan oinarrituta", dio.

Aretxabaletan bertan jasotako pintaketen eta muralen argazkiak ere jaso ditu: "27 argazki berri sartu ditut, 17 paneletan banatuta. Eta erakusketaren diseinu grafikoa aldatu egin dut apur bat; Arkupeko sarreran hasiko da bisita, ez aretoan."

Erakusketa urriaren 30a bitartean izango da zabalik: astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 eta zapatuetan, 11:00-13:00. Bisita gidatu bi ere eskainiko ditu: urriaren 9an, astelehena (18:30), eta urriaren 20an, zapatua (12:00).



M.A.

## Kataluniako kontuak gogoan

Kataluniako erreferenduma egin zela urtebete da –urriaren 1ean–, eta Aretxabaletako Gure Esku Dagok gogoan izan zituen orduan bizi izandakoak. Hala, hainbat udal ordezkari eta herritar elkartu ziren, *Gernikatik munduari* lelopean, Herriko Plazan, GEDk irailaren 29an, Gernikan, egin zuen ekitaldiari keinu eginaz.

## Paco Etxeberriak hitzaldia egingo du martitzenean

Auzitegi mediku, antropologo eta ikertzaile entzutetsu Paco Etxeberriak (Beasain, 1957) *Memoria historica* hitzaldia egingo du martitzenean, urriaren 9an, 19:00etan, Arkupen. Memoria historikoa berreskuratzen azken urteotan egindako lanen gaineko argibideak emango ditu, eta herritarren galderak erantzuteko gertu izango da.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Apotzaga auzoan egindako 4x4 trial erakustaldia. IMANOL SORIANO

# 4x4 trial erakustaldia, zapatuan, Torrebason

Esteibar baserriaren eta argi-transformadorearen arteko lur-zatian egingo da hamaikagarren 4x4 trial erakustaldia. Azken urteetan baino eremu txikiagoa izango da aurtengoa, eta, guztira, hogei auto arituko dira erakustaldia egiten

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Trialzaleek hitzordu garrantzitsua izango dute bihar, zapatua. Izan ere, Eskomotor taldeak antolatuta, Eskoriatzako hamaikagarren 4x4 triala izango da; aurten, Torrebasoko poligonoan egingo da, arratsaldeko hiruretan hasita.

Azken urteetan, Apotzaga aldean egin izan dute erakustaldia, baina aurten, Torrebason batuko dira 4x4 autoak, Esteibar baserriaren eta argi-transformadorearen arteko lur-sailean. Beste urte batzuetan egin diren lekuekin alderatuz, hogei autoko muga jarri dute erakustaldia eskaintzeko, eremu txikiagoan egingo dute eta. Honela adierazi du Xabi Oñederrak, Eskomotor taldeko kideak: "4x4 trialarekin hasi ginenean, Bolibarren egin genuen erakustaldia, eta urte askoan Apotzaga auzoan egin izan dugu. Leku ederra dugu han ibilbidea nahi dugun erara prestatzeko, baina lanak egiten ari dira, lurra ekartzen... Beraz, eskatu dugun arren, ez digute baimenik eman. Hala, arrozoi beragatik, iaz ez genuen antolatu. Oraingoan, eremu txikiagoan egingo dugu erakustaldia, ez dugulako beste aukera edo proposamenik jaso, eta parte-hartzaile kopuru muga jarri behar izan dugu".

### Bi modalitatetako ibilgailuak

Egubakoitzean atonduko dute Torrebasoko eremua, eta zailtasun askotariko eremuak jarriko dituzte bertan; 4 edo 5 izango direla aurreikusten dute antolatzaileek, parte hartuko duten ibilgailu guztiek egiteko modukoak, hain zuzen ere. Hala, hainbat gunetan zehar, maldan gora eta behera bi motatako ibilgailuak arituko dira errubera erraldoiekin. Batetik, errepidean ibili daitezkeenak direnak; eta, bestetik, aldaketa handiak dituzten ibilgailuak, hibridoak direnak.

**ERAKUSTALDIA EREMU TXIKIAGOAN EGINGO DUTENEZ, HOGEI AUTOKO MUGA JARRI DUTE ANTOLATZAILEEK**

Sarrera bi euro da eta bertaratzen diren pertsona guztiak sartuko dira zozketan.

### Leku baten beharrean

Aurten, leku aldaketa da berritasuna 4x4 trialean, eta, antolatzaileak pozik agertu diren arren, aurrera begira eremu finkoa izatea gustatuko litzaiekeela adierazi dute. "Aurtengo erakustaldirako badugu eremua. Ez da oso handia, baina eskertuta gaude lur-jabeak utzi izanaz. Edozelan ere, terrenoa duen edonor edo proposamenen bat egin nahi diguna eskuak zabalik hartuko dugu, eta etor dadila guregana, ongietorria izango da. Horrekin batera, zapatuan trialera etortzeko gonbidapena egin nahi dugu, erakustaldi ederra izango da".

EUSKARALDIA

# Udalbatzak bat egin du Euskaraldia ekimenarekin

Udal barruan ez ezik, udalerrian ere sustatzaile lana egingo dute, herritarrak Euskaraldia ekimenera animatuz

**I.B** ESKORIATZA

Iraileko ezohiko osoko bilkuran, Eskoriatzako udalbatzako kideek Euskaraldia ekimenarekin konprometitzen diren adierazpen instituzionala onartu zuten. Aho batez onartuta, talde argazkia atera zuten, osoko bilkura amaitzean.

### Eskoriatzako datuak hobetzera

Azken neurketetan baieztatu da euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen ari dela Euskal Herrian. Eskoriatzan, 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren %62,58 euskalduna da eta biztanleen %76,43k euskara ulertzen dute. Eskoriatzako Udalari dagokionez, ordezkari politikoen %100ek ulertzen dute euskara, eta udal langileen %88k. Ezagutza datuak Eskoriatzan horiek izan arren, kale erabilera %37,5ekoa da; beraz, datu horiek hobetzeko Euskaraldia ekimen garrantzitsua dela uste dute udalbatzako kideek.

### Onartutako adierazpena

Eskoriatzako udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez,erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du. Ordezkari politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzeko urratsak egingo dituzte, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan. Udal barruan ez ezik udalerrian ere, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu, besteak beste.




Udalbatzak osoko bilkura aretoan ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI



# Dena prest dago Eskola Publikoaren jairako

Debagoieneko Eskola Publikoaren lehenengo jaia urriaren 20an izango da, Eskoriatzan, eta, lau gunetan banatuta, egitarau oparoa prestatu dute: dantzak, kontzertuak, tailerrak, herri bazkaria, antzerkiak eta kirola izango dira nagusi

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Aurten ospatuko da, lehen aldiz, Eskoriatzako Koldotxo Guraso Elkarteak eta Baikarak (Gipuzkoako Guraso Elkarteen Federazioa) bultzatuta, Debagoieneko Eskola Publikoaren jaia, eta, hain zuzen ere, Eskoriatzan izango da. Helburua eskola publikoa bultzatzea da.

Egitarau zabala prestatu dute, eta, eguna hasteko, harrera ekitaldia egingo zaie bisitariei. Horretarako, ikasle bat, guraso bat, Antonio Regaño Koldotxo Guraso Elkarteko presidentea eta Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea izango dira.



Luis Ezeiza Herri Eskolako jaian dantza egiten, Fernando Eskoriatza plazan. GOIENA

**'Flashmob'-a prestatzen**

Eguna girotzeko, *Hezi eta hazi* abestia dantzatuko dute, eta horretarako hainbat entsegu egin dituzte. Hurrengoa urriaren 17an egingo dute, 18:00etan, eskolako patioan. Hala ere, dantza ikasi nahi duenak aukera izango du horretarako, *Luisezeizalhi.hezkuntza.net* webgunean. Izan ere, bertan, koreografiaren bideoa dago ikusgai. Dantzak amaitzean, kalejira izango da, trikitilariek lagunduta, eta pankartak jarriko dituzte eskola aurrean.

**Bailarako eskoletakoen bisita**

Jaiarekin bat egiteko, bailarako eskoletakoak ere izango dira Eskoriatzan, bakoitza bere eskolako kamisetarekin: Kurtzebarri, Ipintza, Arrasate Herri Eskola, San Martin, Errekalde, Elgetako Herri Eskola, Antzuolako Herri Eskola eta Arrasate eta Bergarako institutukoak.

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolatik batukada irtengo da Eskoriatzara bidean. Kirola ere izango da; izan ere, Gorosarri plazan, capoeira eta kenpo erakustaldia izango da. Luis Ezeizan, berriz, eslaloma bizikletekin eta saskibaloi eta hockey txapelketak izango dira, eta txikienentzat, aldiz, txapak egiteko eta aurpegiak margotzeko tailerrak izango dira, Jose Aranan.

**600 pertsona bazkaritarako**

Herri bazkaria 600 pertsonarendako izango da, Santa Marina plazan, eta paella mistoa izango da bazkaritarako. Txartelak eskolen bitartez ari dira saltzen, eta Eskoriatzan, Benta Motz Berri tabernan ere lortu ahalko dira, zortzi eurotan.

**Gonbidapen mezuak**

Luis Ezeizako haur, guraso eta irakasleek urriaren 20an egingo den jairako gonbidapen bideoa egin dute, hizkuntza ezberdinetan. Horrez gain, BocaBeats Comediakoek, Potx eta Lotx pailazoek eta Ameli Barquin Huheziko Kultura Arteko Hezkuntza irakasleak ere bat egin dute jaiarekin, eta hauen gonbidapen bideoak ere ikusgai daude Koldotxo Guraso Elkarteko Facebook orrialdean.

Horrekin lotuta, Jose Arana kalea itxita egongo da egun osoan, eta eguraldi txarra egiten badu plazan egiteko antolatuta dituzten ekintzak pilotalekuan egingo direla ere jakinarazi dute antolatzaileek.

## Urriaren 20ko egitaraua gunez gune

- **10:30** Harrera ekitaldia, plazan.
- **11:00** *Flashmob* erraldoia, plazan.
- **11:30** Tailerrak, Gernika plazan eta Jose Arana kalean.
- **11:30** Kirol txapelketak, Luis Ezeizan.
- **11:30** Kirol erakustaldiak, Gorosarri plazan.
- **12:30** Potx eta Lotx pailazoak, plazan.
- **13:00** Txerrikumeak eta Deskarga taldeen kontzertuak, gaztetxean.
- **14:00** Herri bazkaria, Santa Marina plazan.
- **15:30** Umeentzako antzerkia, Zaldibarren.
- **16:00** BocaBeats Comedia, plazan
- **17:15** DJ Moto, plazan.
- **19:00** Zea Mays, Luis Ezeizan.



IMANOL SORIANO

## Erretiratuei omenaldi beroa

Eskoriatzako udal ordezkariek omenaldia eskaini zieten herriko erretiratuei. Joseba Iñurrategi pilotalekuan 190 pertsona inguru batu ziren bazkaritarako, eta ostean, 96 urteko Elena San Vicentek eta 100 urteko Pablo Ganboak omenaldi berezia jaso zuten –bazkarira joan ziren nagusienak–. Horrez gain, opari eta oroigarri batzuk ere zozketatu zituzten.

## Dagoeneko eman daiteke izena buztingintza ikasteko

Buztinatek, buztingintza eta zeramika elkarteak, martxan jarri du ikasturtea, eta, iaz moduan, haurren saioak 16:45etik 17:45ak arte izango dira eta helduenak, berriz, 18:00etatik 20:00etara bitartean, Zubiaten.

Aurten, helduentzako zeramika ikastarorako izen-ematea handitzeko helburuarekin hasi dute ikasturtea. Honela adierazi du Olatz Pagaldayk, elkarteko kideak: "Haurren ikastaroan taldetxo handia sortzen da urtero; helduenean, berriz, lan kontuak direla-eta saio guztietara jarraian ezin dira joan asko. Hori horrela, gonbidapena egin nahi diegu herriko helduei klaseetara etorri eta zer egiten dugun ikus dezaten".

Hileroko kuota 50 euro da, eta ikasturte osorako materiala, irakaslea, tornua, buztina, pintura eta labearen erabilera sartzen dira, besteak beste.

## GORA ETA BEHERA




NURIA MARTINEZ

### Atxorrotxeko maketa apurtzen saiatu dira

Duela astebete bukatu zuten Nuria Martinez eta Mikel Isasmendik Atxorrotxeko ermitako maketaren konponketa lanak. Jarri eta egun gutxira, apurtzen saiatu direla jakinarazi dute.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Berdintasunik eza izan dute hizpide kafe-tertulian

Pasa den domekan, genero berdintasunaz eta feminismoaz hitz egiteko batu ziren hainbat lagun kultura etxean. Gai honen bueltan dauden estereotipoez, gezurrez… mintzatu ziren; ondorioak jaso zituzten Eskoriatzako errealitatea hobeto ezagutzeko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Feminismoarekin kezkatuta dauden Eskoriatzako emakume batzuek kafe-tertulia irekia antolatu zuten pasa den domekarako, irailaren 30erako, kultura etxean. Adin guztietako emakumeei eta gizonezkoei zuzendutako ekintza izan zen, eta, hala, antolatzaileak pozik geratu dira egitasmoak eman zuenarekin.

Helburua zen feminismoaren gainean hitz egitea, iritzi ezberdinak partekatzea eta informazioa helaraztea, kafea edo tea hartuz eta pasta batzuk janez. "Oinarrizko helburua zen genero desberdintasunei buruz inguru atseginean hitz egitea, eta helburua bete genuen; izan ere, parte-hartzaileak gustura irten ziren bertatik. Beste helburuetako bat zen genero ezberdintasunaren gaia Eskoriatzan nola ikusten den jakitea, eta horretaz ere mintzatu ginen", adierazi dute antolatzaileek.



Kultura etxean egindako kafe-tertulian batu zirenak talde argazkian. GOIENA

**Balorazio positiboa**
Guztira, 20 pertsona batu ziren tertulian; horien artean, bi gizon, adingabe bat eta 60 urte inguruko beste bi pertsona. "Halako deialdietan ematen du jende gehiagok hartuko duela parte, baina pozik gaude ekimenak eman zuenarekin eta gerturatu zirenekin. Guztiok hartu genuen parte, eta, hain zuzen, ondorioak atera izan genituen; hori horrela, bertara etorri zirenei eskerrak eman nahi dizkiegu".

**Tertulian egindakoak**
Hitz egin behar zutenaren gaineko azalpen orokorra eskaini zuten. Feminismoaren kontzeptua aztertu zuten eta genero ikuspegi kulturalik ez dagoela jabetu ziren. Erasoak sexistak jasaten dituztenen biktimizazioa izan zuten hizpide, besteak beste.



AITOR AGIRIANO

## Garun Paralisiaren Eguna

Garun Paralisiaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten eguaztenean Luis Ezeiza Herri Eskolakoek. Herri eskolan Tximeleta Gela dago; Aspaceko gela egonkor bat da, eta bertan, garun paralisia edo antzeko alterazioren bat duten ikasleak daude. Hala, Tximeleta gelako ikasle guztiak Haur Hezkuntzakoen eraikinean batu ziren eguna ospatzeko. *Ez begiratu beste aldera* lelopean jolasak egin zituzten, pankarta bat marraztu, eta argazkiak atera, besteak beste.



Iaz, Sorginak taldekoak taloak egiten. GOIENA

## Sanmilixenetan postua jartzeko baldintzak jendaurrean daude

Artisau azokan postua jarri nahi duenak urriaren 26a baino lehen bidali beharko du dokumentazio guztia

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA
Azaroaren 11n izango da San Milixan eguneko artisau azoka Leintz Gatzagan. Aurtengoa 26. eskulangintza azoka izango da, eta, urtero moduan, frontoian jarriko dituzte postuak bertara datozen artisauek.

10:00etatik 14:30era iraungo du azokak, eta muntaia egiten 09:00etan hasiko dira. Standaren neurriek, berriz, honako hauek izan beharko dute: 2x3 metro, standaren hormetan ezin izango da ezer josi, 2x0,7 metroko mahaia, eta bi aulki. Hori horrela, postua jarri nahi duenak oinarri orokor batzuk ere bete beharko ditu.

**Bete beharreko oinarri orokorrak**
Erakusgai edo salgai egongo diren produktuen egilea izatea derrigorrezkoa izango da, bai eta azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea. Artisauak berak landu ez dituen produktuak ez dira onartuko. Horrez gainera, hainbat dokumentu eraman beharko ditu artisauak: parte hartzeko eskaera behar bezala beteta, erakusgai izango diren produktuen bi argazki, eta abar. Dokumentazio guztia *Leintzgatzaga.eus* webgunean dago ikusgai.

Artisau azokaz gain, artisautzako tailer herrikoia prestatzeko aukera ere izango da. Haur, gazte eta helduei zuzenduta dago, eta 10-15 pertsonako taldeak izango dira.

**Eskaera aurkezteko**
Eskaerak aurkezteko epea urriaren 26an itxiko da, eta aukeratutako artisauei urriaren bukaeran jakinaraziko zaie. Eskaerak ondorengo helbidera bidaliko dira: Leintz Gatzagako Udala; San Migel plaza 2, 20530, Leintz Gatzaga (Gipuzkoa).

## Begiralea behar dute Leintz Gatzagako ludotekarako

Leintz Gatzagako Gurel guraso elkarteko kideak ludotekarako begirale bila ari dira. Hain zuzen ere, lana azaroaren 1etik ekainaren 1era arte da eta ordutegia, berriz, honako hau: martitzenetan, 17:30etik 19:30era; eguaztenetan, ordutegi berean; eta hilean behin, berriz, egubakoitz bat, hiru orduko lana egiteko. Hainbat ezaugarri baloratuko dituzte, eta kontuan hartuko dute umeekin esperientzia izandakoa izatea.

Urtero 10 bat umek ematen dute izena gune hau aprobetxatzeko, eta, umeei beraiei hitza emanda, mota ezberdinetako jolasak antolatu beharko ditu begiraleak, herrira begirakoak izango direnak. Hala, interesa dutenek *Gatzakogurel@gmail.com* helbidera bidali beharko dute curriculuma urriaren 20a baino lehen.


Lierni Altuna, Manex Agirre, Ane Zuazubiskar eta Xabi Igoa, txapelketako kartelarekin. ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

# Aramaioko lehen kopla txapelketa, urriaren 19an

Bertso Eskolak antolatuta, hamabi bertsolarik parte hartuko dute; arratsaldean jokatuko dira bi finalerdiak, eta sei bertsolari onenek lortuko dute finalerako sailkatzea. Finala Iturrieta sagardotegian izango da, afalostean, musikaz lagunduta

**Julen Iriondo** ARAMAIO
Azken urteetan herrira bi bertsolari gonbidatuta hasi izan du Aramaioko Bertso Eskolak ikasturtea, baina aurten "zerbait desberdina" prestatu nahi izan dute, eta kopla txapelketa izango da hori, "kurtsoa indarberrituta hasteko modu bat", Xabi Igoaren arabera: "Badaramatzagu urte batzuk herriko bertsobizitza astintzen. Urtero ditugu hainbat hitzordu finko –Gabonetako saioa, Santa Ageda batzea...–, baina gustatzen zaigu gauza bereziak antolatzea ere".

Hamabi bertsolarik hartuko dute parte txapelketan, herrikoek eta Aramaiorekin muga egiten duten udalerrietakoek: Paula Amilburu, Peru Abarrategi, Martin Abarrategi, Aitor Ugarte eta Andere Arriolabengoa, batetik; Otxandioko Aitor Esteban, Abadiñoko Txaber Altube, Arrasateko Jokin Labaien eta Ane Zuazubiskar, Aretxabaletako Martin Berrizbeitia, Eskoriatzako Haizea Arana eta Oñatiko Maider Arregi –muga kontuei dagokienez, salbuespena–, bestetik.

18:30ean Goiko taberna parean eta 19:30ean plazan izango dira finalerdiak –sei bertsolari batean eta sei bestean–. Bikoteka ofizio bat egingo du bakoitzak, eta ariketako onena pasako da finalera. Finala Iturrietan izango da. 21:00etan, afaria –izena emateko azken eguna, urriaren 15a; 615 73 92 55, Manex–, eta gero, saioa. Bi ofiziotan jardungo du bertsolari bakoitzak, eta buruz burukoa egingo dute bi onenek. Musikaz lagundutakoa izango da finala: Jon Aranburu mandolinarekin, Ekaitz Aranberri gitarrarekin, Maialen Ballina panderoarekin eta Amaia Arregi trikitiarekin izango dira.

## Lau talde Bertso Eskolan

Nagusien taldea eta beste hiru izango ditu aurten Aramaioko Bertso Eskolak. Nagusiena autodidakta da, eta, besteei dagokienez, bitan Peru Abarrategi izango da irakasle eta bestean Martin Abarrategi eta Aitor Ugarte. Gaztetxoen taldeak antolatzerakoan, duten maila da irizpidea, adina baino gehiago. Nagusien taldea dozena inguru lagunek osatzen dute; herrikoak dira gehienak, baina bada Arrasateko, Aretxabaletako eta Otxandioko jendea ere. Denera, 25-30 lagun batuko dira aurten Aramaion eskolen bueltan –oraindik eman daiteke izena–. "Baina inguruan dagoen jendea ere garrantzitsua da: gai jartzaile, antolatzaile, epaile... 40 bat izango gara", dio Xabi Igoak. Kopla txapelketa hasi aurretxoan egingo dute Bertso Eskolaren aurkezpena ere.


Umeak ur parkean jolasten. XABI GOROSTIDI

# Neska-mutikoek oso harrera ona egin diote ur-parkeari

Aurreko barikuan inauguratu zuten, eta, eguraldia lagun, egun batzuk, behintzat, izan dituzte gozatzeko

**J.I.** ARAMAIO
Barikua, 16:15; neska mutikoak irrikaz, bainujantzia soinean, hesien atzean, ur-parkera sartzeko baimena noiz jasoko. Ireki dute, eta umeak korrika jolasetara. Itxaronaldia luze egingo zitzaien, baina eguraldiak egun batzuetan, behintzat, azpiegitura berriarekin gozatzeko aukera eman die, zorionez.

"Eskerrak udazkena bero hasi dela, egun batzuk baditugu ibiltzeko; pozik ikusten dira umeak, ea funtzionatzen duen eta erabiltzen den", zioen alkateak.


**LEXURI KORTABARRIA**
ERABILTZAILEA

"Oso ondo dago parkea. Lehen, errekara joaten ginen bero zegoenean, eta orain, hau ere badugu. Baina hara ere joango gara, karramarrotara".


**HEGOI AZKARATE**
ERABILTZAILEA

"Txokolate-jana dugu eta bertan egingo dugu. Gero sartuko naiz, noski. Lehen, errekara eta Otxandioko igerilekura joaten ginen beroarekin; orain, hona".

## Kaleko margo lehiaketaren 27.a, hurrengo barikuan

Lanak Aramaioko udalerrian egin beharko dira, egunean bertan. Euskarriak Sastiñan zigilatuko dituzte, 09:00ak eta 11:00ak artean, eta margolanak han bertan aurkeztu beharko dira 14:00ak aurretik. Sariak izango dira 700, 500 eta 400 euro helduetan –aramaioar onenari 150–, eta 16 urtera artekoetan 150, 100 eta 50 euroko bonuak.

## OHARRAK

### Arabako erretiratuak

Euren eguna ospatuko dute urriaren 20an, Guardian. Bisita gidatua eta bazkaria izango dira. Izena emateko, sartu 33 euro Laboral Kutxan, urriaren 12a baino lehen.

### Erretiratuen Eguna

Urriaren 27an izango da, eta azokan postua jarri nahi dutenek hilaren 15a bitartean eman dezakete izena.

# GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

## Goienako saioak nahieran ikusten

Mugikorretan eta tabletetan ikusi eta entzuteko aplikazioa da 'Goiena nahieran'. Euskal Herriko toki telebista -izan euskarazko, gaztelaniazko zein frantseseko- bakarra da Goiena edukiak gisa honetara eskaintzen dituena

**Eneko Azkarate** ARRASATE

Asko aldatu da azkeneko urteotan, teknologiari esker, telebista kontsumitzeko modua. Gaur egun, gailu askotan ikus daitezke bideoak. Ez bakarrik telebista pantailan. Eta hauek geroago eta ugariagoak dira etxeetan.

Goiena ere modu, toki eta gailu askotan ikus daiteke: ohiko telebista bidez, seinalea antenaz, satelitez zein Internetez jasotzen da; edo ordenagailuan, eskuko telefono adimendunean zein tabletan. Azken bi hauetan ikusteko atera da *Goiena nahieran* aplikazioa. Android zein iOS sistema eragileak darabilten gailuetara egokituta, Google Play zein App Store dendetan eskura daiteke. Eta doan da.

Telebistako saioak edozein modu zein tokitan ikusteko aukera eskaintzen du. Baldintza bakarra da Interneteko konexioa edukitzea.

Saioka sailkatuta, Goienaren eskaintza osoa dago *Goiena nahieran* aplikazioan. 17 saio ezberdin eta saio bakoitzeko azkeneko atalak. Era berean, saioen artetik, ikusienak ere kontsulta daitezke.

**Edukian ere berritasunak**

Bestetik, edukiari dagokionez ere berritasunak dakartza udazkenean Goiena telebistak. *Euskaraldia* eta *Elkarrizkettap* dira horietako bi. Lehenengoan, Julen Iriondok eta Izaro Insaustik Gipuzkoako eskualde ezberdinetako *ahobizi* eta *belarriprest*a-k aurkeztuko dituzte; *Elkarrizkettap* saioan, bestalde, *Ttap* agerkari digital multimedian argitaratutako elkarrizketak ikusteko aukera izango da.

*Harira* ere berritasunekin dator. Batetik, Debagoieneko alkateak ez ezik, zinegotziak ere pasako dira Goiena telebistako platotik. Bestetik, *Harira* eztabaida saioan, ordezkari politikoekin mahai-inguruak egingo dira. Gaurkotasuna aztertuko da horietan, Goiatz Aranak gidatuta.

Azkenik, *Hautsi bolumena* musika saioa. Musikariei elkarrizketak egingo dizkie Amaia Txintxurretak on line.

## 'Goiena nahieran' aplikazioa deskargatu pausoz pauso




**'APP' DENDETAN AUKERATU**
Android zein iOS sistema eragileetan erabiltzeko moduko aplikazioa da *Goiena nahieran.* Tabletetarako zein eskuko telefonoetarako. Hortaz, Google Play zein App Store dendetan deskarga daiteke, doan.




**'GOIENA NAHIERAN' BILATU**
Google Play zein App Store denden bilatzaileak erabilita, bilatu *Goiena nahieran.* Aplikazio asko eta askotarikoak daude aukeran, baina bakarra Debagoieneko euskarazko ikus-entzunezkoak batzen dituena: *Goiena nahieran.*




**DESKARGATU**
Google Play izan edo App Store izan, eta behin *Goiena nahieran* aplikazioa aukeratuta, hura deskargatu. Doan da. Deskarga hobeto egiteko, wifi sareari lotzea komeni da, nahiz eta ez izan ezinbestekoa.



**TOKI NAGUSIAN KOKATU**
Behin deskargatuta, *Goiena nahieran* aplikazioa goiko irudian ikusten den moduan azalduko da telefono adimendunean edo tabletan. Toki nagusian jarriz gero, erabilgarriago, bideoetara azkarrago heltzeko.




**SAIO GUZTIAK KLIK BATEAN**
*Goiena nahieran* aplikazioan, Goiena telebistako ikus-entzunezko guztiak daude, saioka antolatuta, behar den hori erraz aurkitzeko; menu samur eta intuitiboa du. Goiena telebista zuzenean ikusteko aukera eta guzti.

# Goiena, saioz saio: denetik eta bertatik

Era askotako saioz osatuta dator Goiena telebistako udazkeneko programazio berritua. Ohiko 'Hemen Debagoiena' eta 'Harmailatik' saioez gain, berriak ere badira: 'Euskaraldia' eta 'Elkarrizkettap' dira horietako bi. Baina badira berritasun gehiago




## ALBISTEAK

Eguneko albistegia. Unean uneko albisteak, egunekoak, azkar eta arin emanak. Lekukoen edo protagonisten testigantzekin. Astelehenetik egubakoitzera bitartean; asteburuan, asteko albisteen errepasoa.

- **Egunero**
- **14:30/16:15/17:00/17:45**



## HARMAILATIK

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa. Aste bukaerako kirol kronikak, elkarrizketak, erreportajeak, eta abar, protagonisten ahotan. Eskualdeko kirola, sakon aztertuta.

- **Astelehena**
- **21:30 eta 23:30**
- **Aurkezlea: Xabier Urzelai**




## HEMEN DEBAGOIENA

Goienaren magazina. Debagoieneko gertaerak, tokiak, jarduerak, berriak eta pertsonak protagonista dituen saioa. Kanpoko erreportajeak, platoko elkarrizketak eta solasaldiak batzen ditu. Goiena telebistaren programazioaren zutarria da, eguneroko saio bakarra, *Albisteak* saioarekin batera.

Ordubeteko saioa da eta Txomin Madinak aurkezten du, baina Goienako kazetariak ere magazineko aurpegi ohikoak dira.

Astelehenetan, asteburuko gertaeren berri ematen da. Eta Xabi Urzelaik *Harmailatik* saioaren aurrerapena egiteaz gain, kirolak asteburuan eman duena kontatzen du. Martitzenetan, Itziar Larrañagak sare sozialetako joera eta bitxikeriak kontatzen ditu; eguaztenetan, Monika Belastegik *Puntua* aldizkariko asteko gai nagusiak dakartza; eguenetan, Mireia Bikuñak asteburuko agendako hitzordu garrantzitsuenak aurreratzen ditu; egubakoitzetan, Eneko Azkaratek *Goiena* aldizkariaren errepasoa egiten du eta Xabi Urzelaik asteburuan kirolak ekarriko duenaren gaineko azalpenak ematen ditu. Era berean, Olgeta jolaserako baliabide zerbitzuko Itsaso Pagoagak familian aritzeko jolasen berri ematen du. Horretaz aparte, Goienako herrietako berriemaileak egunero sartzen dira platoan eta egunero dago elkarrizketatu bat, eta baita kanpoan grabatutako erreportajeak ere.

- **Egunero**
- **18:00 eta 20:00 eta 22:00**
- **Aurkezlea: Txomin Madina**

## HAUTSI BOLUMENA!

Musika saioa. Ikus-entzule gazteenekin komunitatea osatuz, gazteek eurek eskatutako bideoklipak aurkezten ditu saioak. Ikus-entzuleak ere har dezake parte, sare sozialen bidez gustuko musika eskatuz. Gainera, denboraldi berrian, musikariekin elkarrizketak.

- **Egubakoitza**
- **21:00 eta 23:00**
- **Aurkezlea: Amaia Txintxurreta**



# EUSKARALDIA

Euskaraldia ekimena aitzakia hartuta, Gipuzkoako herrietako hamaikakoetako hainbat protagonista aurkeztuko dituzte Julen Iriondok eta Izaro Insaustik. Saio hau Gipuzkoako euskarazko toki telebistek elkarlanean ekoiztutakoa da: Goierri telebistak, Erlo telebistak, 28. kanalak eta Goiena telebistak. Gipuzkoako eskualde guztietako herritarrak agertuko dira saio honetan.

Eskualdez eskualde, *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak ezagutzera emango dituzte astero. Eta saiatuko dira adierazten zer den Euskaraldia eta zer diren horren baitako bi pertsonaia edo rol nagusiak. Era berean, *ahobizi* edo *belarriprest* izateko aukeratuak izan direnen eta izena eman dutenen esperientziak jasoko dituzte; betiere, umoreari uko egin barik.

Ekimen berritzailea da Euskaraldia, gizarte eragileetatik eta erakundeetatik bultzatutakoa. Ohitura eta jokabide aldaketan lagundu nahi du euskararen erabilerari dagokionez. Euskaraz adierazteko gai den oro euskara ulertzeko kapaz den guztiari euskaraz zuzen dakion lortu nahi du, eta euskaraz ulertzeko kapaz den oro animatu jendeak euskaraz egin diezaion eskatzeko.

Horretarako, garrantzitsua da ohiturak aldatzea, kontzientzia hartzea, lotsak gainditzea, aurreiritziak albo batera uztea, ahaleginean ari denarekin ulerkor izatea, lehen hitza euskaraz egitea, elkarrizketa elebidunak aukera moduan kontenplatzea... Eta gai hauek guztiak jorratuko ditu Euskaraldiari buruzko saioak Gipuzkoako eskualde guztietako *ahobizi* eta *belarriprest*-ekin.

- **Eguaztena**
- **21:00 eta 23:00**
- **Aurkezleak: Julen Iriondo eta Izaro Insausti**






## BARRU

Kirol erreportaje saioa. Kirolari debagoiendarrak gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen du Xabi Urzelai kazetariak. Surfari eskeinitako saioa ekoiztuko du; asko dira kirol hau maite duten debagoiendarrak. Zarautzen elkartu da horiekin.

- **Eguena**
- **21:30 eta 23:30**





## OSOKO BILKURAK

Arrasate, Bergara eta Oñatiko udalbatzen ohiko osoko bilkurak, oso-osorik. Hilean behin izan ohi dira herrietako ohiko osoko bilkurak. Eskualdeko herri nagusietakoak osorik grabatu eta emititzen dira Goienan.

- **Eguna: Zapatua eta domeka**
- **Ordua: 19:00 eta 22:00**
- **Aurkezleak: Arrasate, Bergara eta Oñatiko berriemaileak**



# ELKARRIZKETTAP

Euskal Herriko pertsona ezagunei elkarrizketak. Astero bi saio estreinatuko dira: eguaztenetan gipuzkoarra izango da elkarrizketatua eta egubakoitzetan, bizkaitarra.

Sara Gandara, Jon Gomez, Maite Goñi, Amane Ibañez, Juan Kruz Lakasta, Leire Palacios, Miren Arregi, Xabi Paya eta Joni Ubeda dira elkarrizketagileak. Eta elkarrizketatuak, berriz, kultura, kirol eta gizarte alorretako euskal pertsonaia ezagunak. Horietako batzuk: Maialen Chourraut palista, Iker Galartza aktorea, Itziar Ituño aktorea, Eneko Atxa sukaldaria… Elkarrizketak Euskal Herriko toki zaindu eta esanguratsuetan eginak dira.

Elkarrizketek ordu erdi inguru iraungo dute eta elkarrizketatua bere ohiko zereginetik harago ezagutzeko aukera eskainiko dute. Grabaketak egiteko aukeratutako lekuak, bestalde, Euskal Herriko areto dotore eta esanguratsuak dira, hala nola Bilboko Euskalduna jauregia, Foru Liburutegia eta Rekalde aretoa; Donostiako Keler aretoa; eta Iruñeko Zentral aretoa.

Datorren eguaztenean, hilak 10, Iker Lauroba musikaria elkarrizketatuko du Maite Goñik. Egubakoitzean, berriz, Eider Merino txirrindulariarekin jardungo du solasean Amane Ibañezek.

- **Eguaztena eta egubakoitza**
- **21:30 eta 23:30**

# HARIRA

*Harira* saioak bi formatu eskainiko ditu denboraldi honetan. Batetik, elkarrizketa saioa Debagoieneko herri ordezkariekin. Gori-gori dauden kontuak, herritarrei zuzenean eragiten dietenak. Oraingo denboraldian berritasuna da alkateak ez ezik, zinegotziak ere elkarrizketatuko dituztela. Herri guztietakoak.

Bestetik, eztabaida edo mahai-inguru formatuan, hamabostean behin elkartuko ditu politikariak Goiatz Aranak gaurkotasunaz eztabaidatzeko. EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Irabazi eta Ahal Duguko ordezkariak izango dira mahaiaren bueltan.

- **Martitzena / Eguena**
- **21:30 eta 23:30 / 21:00 eta 23:00**
- **Aurkezleak: Eneko Azkarate eta Goiatz Arana**





## JAIAK

Debagoieneko jaiei eskainitako saioa. Datorren asteko eguenean, hilak 11, Oñatiko jaiei eta Maritxu Kajoiri eskainitakoa ikus ahal izango da.

- **Eguena**
- **21:00**
- **Aurkezlea: Aitor Agiriano.**





# ERREPORTAJEA

Debagoienean kokatutako erreportaje bereziak, sakon landuta. Gertuko gaiak hainbat protagonistaren ahotik. Denboraldi berrian, honako hauen gainekoak ikus ahalko dira:

Elgetako frontea, Larraitz Zeberiok egina. Erreportajean, gerra bizi izandako gizon-emakumeen testigantzak jasotzen dira. Elgeta inguruko familia askok etxe atarian izan zuten frontea zazpi hilabetez eta hara eta hona ihes egin behar izan zuten 1936ko udazkenean. Bueltan, suntsitutako herria eta apurtutako etxeak aurkitu zituzten. Egoera hura eta gerra ostean etorri zen errepresioa nola bizi izan zituzten kontatuko da *Gerra etxe atarian* izeneko dokumentalean.

Euskaltzaindiaren mendeurrena, Miren Arregiren eskutik. 2018tik 2019ra bitartean betetzen da euskarazko akademiaren mendeurrena eta, era berean, 50 urte, euskara batuaren oinarriak finkatu zituen 1968ko Arantzazuko Biltzar hartatik. Euskaltzaindiak gure bailararekin eta, bereziki, Arantzazurekin duen loturatik abiatuta, erreportajea landuko da. Zer eman dio Euskaltzaindiak euskal gizarteari, sortu zenetik gaur arte? Zein izan da Arantzazuko Biltzarretik gaur egunera euskara batuak egin duen bidea? Zeintzuk etorkizuneko erronkak?...

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoaren 75. urteurrena eta Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketa Eskolaren 90. urteurrena, Julen Iriondorekin. Erreportajeak aztertuko ditu eskola bien iragana, oraina eta etorkizuna, Debagoiena eskualdearen izaera industrialaren testuinguruan eta hezkuntzaren eta enpresa arloaren arteko lotura estua eta harremanak ardatz hartuta.

- **Eguena**
- **21:00 eta 23:00**

## HUHEZINEMA

Huhezinema film laburren jaialdira aurkeztutako ekoizpenak erakutsiko dira saio honetan. Sortzaileak gertutik ezagutuko ditugu, eta dagokion film laburra ere eskainiko du saioak.

- **Egubakoitza**
- **21:30 eta 23:00**
- **Aurkezlea: Aitor Agiriano.**



# "Hitanoa 'label' markaz lotzen dute gazteek"

**ONINTZA LEGORBURU** IKERTZAILEA

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko hitanoaren erabilera aztertu du Onintza Legorburu antzuolarrak. 18-20 urte arteko gazteek hika balioan jartzen hasiak dira

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Onintza Legorburu ikertzaile antzuolarrak hitanoaren erabilera aztertu du Antzuolan. Tokaren –gizonezkoei egiten zaien hikamodua– eta nokaren –emakumeei egiten zaiena– arteko ezberdintasunak aztertu ditu Unibertsitateko master bukaerako lanean.



Onintza Legorburu, Goiena telebistako platoan. MAIDER ARREGI

**Behaketaren eta elkarrizketaren metodologia erabilita egin duzu hitanoaren azterketa.**

Bai; metodologia kualitatiborako bi teknika erabili ditut: batetik, herriko tabernetan eta kalean egin ditut behaketak; bestetik, 12 elkarrizketa sakon egin ditut.

**Genero ikuspegitik aztertu duzu. Ondorioetako bat da gizonezkoen artean hitz egiten dela nagusiki.**

Nire adineko mutilek toka hitz egiten zutela ohartu nintzen. Eta nik etxetik jaso arren eta ezagutza osoa izan arren, ez nuela erabiltzen konturatu nintzen. Eta bai, ikusi dut generoaren rolak pisu nabarmena izan duela emakumeak hitanotik aldentzeko eta toka mantentzeko.

**Tesian diozu sozializatzeko modu ezberdinen ondorioa dela.**

Emakumeak eremu pribatuan, etxean egon gara historikoki. Gizonezkoen toka kalean mantendu egin da, ordea. Hiru eremutan, nagusiki: lantokietan, tabernetan eta eskolan. Eskola ez ezik, beste bi esparruak gizonezkoen guneak izan dira historikoki.

**Zein adin tartetan erabiltzen da?**

Egun, 18-20 urterekin gertatzen da hitanorako mudantza gizonezkoetan. 50-55 urtera arte, toka da nagusi. 55-60 urtetik gora, toka eta noka bizirik mantentzen dira, ordea. Emakumeek noka gainera, gehiago erabiltzen dute adin tarte horretan.

**Debagoien mailan joera berbera mantentzen da?**

Elkarrizketatuetako bat Juan Martin Elexpuru da, Uberakoa. Berak bailarako hitanoaren erradiografia orokor bat egin du eta dio Antzuola eta Oñati toka bizien mantentzen diren herriak direla.

**"HITANOA –NOKA– FEMINISMOTIK SUSPERTU DAITEKEELA ERE ONDORIOZTATU DUT"**

**Belaunaldien arteko transmisioa nola egiten da?**

Sasoi batean, etxetik jasotzen zen hitanoa. Egungo errealitatea, ordea, aldatu egin da. Mutilen artean toka hitz egiten da kalean eta berdinen artean. Hitanorako saltoak bizitzan gertatzen diren beste aldaketa batzuekin dauka zerikusia.

**Identitatearen eraketarekin du zerikusia?**

Bai. Izan ere, Antzuolan giro jakin batzuetan prestigioa duen hizkuntza toka da. Eta identitate maskulinoarekin lotuta dagoela ikusi dut.

**Kalitateari dagokionez, ondo, zuzen hitz egiten da hitanoa?**

Ez. Herri askotan gertatzen den hiper-hiketa dago. Hau da, hiketa behar ez den lekuan erabiltzen da. Aditzak ez dira zuzen erabiltzen, alegia. Eta erabili egiten da, baina ez da zuzena hikaren erabilera.

**Hitanoaren erabilera arauak ere hautsi egin dira?**

Arau apurketak ere jaso ditut, bai. Batez ere, lan munduan. Lantegietan zaharragoei hika egiten zaiela ikusi dut. Baita etxean gurasoei ere.

**Emakumeen artean, badirudi susperraldia bizi duela nokak.**

Bi neskak hitanorako eman duten jauzia aztertu dut. Lotsak gainditu eta gizontasuna dagoen esparruan sartu dira. Ondorioztatu dudana da hitanoa feminismotik suspertu daitekeela. Ahalduntzearekin harremana ere badaukala uste dut.

**Askorentzat, marka pertsonala da?**

Nortasunarekin, *labeltasunarekin,* lotu dute gazteek: autentikotasunarekin. Balio erantsitzat dute askok hitanoaren erabilera. Euskararen ohorezko matrikula gisa ere definitu izan dit bakarren batek.

**Hitanoa berreskuratzeko ekimenik sustatuko duzue?**

Oraingoz, ez dago ezer zehaztuta, baina nik neuk nokaren berreskurapenerako lan egitea badaukat buruan.




Kortabarria, Antzuolan jokatu zen Lehendakari lasterketako podiumean. A.K.

## Onenen artean amaitu du Aritz Kortabarriak denboraldia

Eulen taldearekin laugarren denboraldia egingo du eta "aurrean jarraitzeko lanean" segituko duela dio

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Amaitu da errepideko txirrindulariendako denboraldia. Eta Aritz Kortabarria antzuolar gazteak ez du edonolako denboraldia egin. Onenen artean, podiumera igo da. Euskaldun Torneoan hirugarren postua eskuratu du. "Denboraldi hasieran taldearendako lan egin dut; erditik aurrera, postu ona egiteko aukera nuela ikusi nuen eta pozik nago. Azkenean, hirugarren postua lortu dut Euskaldun Torneoan. Lehendakari proban ere sekulako maila egon da", kontatu du. Azpimarratu behar da lehen euskal ziklista izan dela elite mailako txirrindularien proban. Lehen postua Marti Marquez katalanak eskuratu du eta bigarrena, Albert Muelak –Kortabarriaren taldekidea–.

**Eulen taldean laugarrenez**

Bi astez atsedenaldia hartuko du Kortabarriak: "Azaro erdian hasiko ditut berriro entrenamenduak eta Eulen taldearekin jarraituko dut denboraldi berrian ere, laugarrenez. Aurrean jarraitzeko gogoz nago eta ea beste urrats bat egiteko aukera daukadan".

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

### Hondakinen kudeaketa egokia

Antzuolako autobiako eta Abiadura Handiko Treneko obretan lanean ari diren langileek hondakinak gaika sailkatzeko eta kudeatzeko ardura dutela txalotu gura izan du herritar batek.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# "Informaziorik eza" Zubietako obran

Zubietako zubi zaharra birgaitzeko lanen aurrean haserre agertu dira bizilagun batzuk; diotenez, informaziorik ez zutelako eta lau hilez oinezkoendako itxita egongo delako; Udala aztertzen ari da, besteak beste, Bolurako zirkulazioa Ibargarai edota Artekaletik bideratzea

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Zubieta kaleko zubiko obra zeresana ematen ari da azken egunotan. Bizilagun batzuek, obraren hasierarekin haserre, obra geldiarazi eta alkatearekin bilera urgente bat eskatu zuten. Eguenean bertan protesta egin zuten zubi ondoan eta astelehenean, urriak 1, aldarrikapena San Martin plazara eraman zuten; *Bide alternatibo bat behar dugu ya! Zubia gure bidea* leloa zuen pankarta baten atzean jarri ziren. Udalaren partetik "behar den moduan" informatu ez izana salatzen dute.



Zubietako zubi zaharra birgaitzeko lanak martxan, eguaztenean. SOFIA GIMBERT

**Lete: "Proiektua ezaguna zen"**

Elena Lete alkatea birritan elkartu da bizilagunekin. "Exekuzioaren aurretik gorabeherak izan dira; akaso, horren inguruan gehiago informatu genezakeen, baina proiektuaren gaineko ezagutza bazegoen. Esan genuen zubia berreskuratzeko eta argiteria, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko zela". Udalaren arabera, Zubietarako proiektua idatzita dago eta lanak faseka egingo dira: "Zubiarekin hasi behar da, lehentasunezkoa da".

Bestalde, bizilagunek eskatzen duten oinezkoendako pasabide horren inguruan, Letek dio Ura agentziak ez duela pasabide hori egitea ahalbidetzen: "Uholde arriskua dela-eta Ura agentziak dio bertan ezin dela egiturarik jarri, eta, beraz, eskari horrek ez dauka ibilbiderik". Afekzioei dagokienez, alkateak pazientzia eskatu du eta gaineratu du eragozpen batzuk eragitea saihestezina dela: "Irala kalean obra egin zenean, terrazak, komertzioak eta etxebizitzak zeuden eta denek jasan zituzten zailtasun eta oztopo batzuk. Orduan ulertu genuen obrarekin egoera asko hobetzen zela; bada, obra honekin gauza bera gertatuko da".

**EH Bildu: "Ez da ondo informatu"**

EH Bilduk begi onez ikusten du zubia birgaitzeko proiektua: "Zubiaren irisgarritasuna hobetu eta zubiaren izaera historikoa indartzeko balioko du eta auzoarentzat ona izango da. Kontrara, auzotarrak ez dituzte ondo informatu. Ez zaie azaldu zergatik parte hartze prozesu batetik atera ziren beharrei lehentasuna eman beharrean, zubiaren eraberritzea lehenesten den; gainera, obrek iraun artean izango duen afekzioari ez zaio irtenbiderik eskaini".

**ELENA LETE: "UHOLDE ARRISKUAGATIK URA AGENTZIAK DIO ZUBI HORRETAN EZIN DELA EGITURARIK EGOKITU"**

**Atzerapen nabaria izan duen obra**

Zubiko lanek atzerapen nabaria izan dute. Enpresa adjudikatuak lan karga handia zuela-eta ezin lanak hasi zebilela, azkenean, kontratua eten zuen; lanak udaberrian hastea aurreikusten zen. Kontratu etetearen ondorioz, berriro egin zen esleipen-deialdia, eta Goitu Eraikuntzak enpresa ari da lanok gauzatzen. Lanek 313.864 euroko aurrekontua dute –BEZa barne– eta lau hilabeteko iraupena izatea onartu zen adjudikazio-pleguetan.

Aurrekontuaren %73 diru laguntzetatik etorriko da, eta, horregatik –eta orain bertan uraren maila baxua dela ere aprobetxatuta–, Udalak lehentasuna eman dio zubiaren obra ahalik eta lasterren gauzatzeari.

## "Haserre gaude, ez gaituztelako behar den moduan informatu"

**SOFIA GIMBERT** ZUBIETAKO BIZILAGUNEN BOZERAMAILEA



J.B.

Zubiaren gainean bizi den Sofia Gimbertek modu inprobisatuan hartu ditu eledun lanak: "Bide alternatibo bat eskatzen dugu".

**Zergatik zaudete haserre? Zer eskatzen duzue?**

Haserre gaude, ez gaituztelako behar den moduan informatu. Gehienok ez genekien obra noiz hasiko zen, proiektua ez genuen ezagutzen. Are gehiago, udaletxeko bileretan egon ziren bizilagunek ez zekiten zubia itxita egongo zela obrek iraun artean. Oinezkoendako bide alternatibo bat behar dugu eguneroko bizitzarekin jarrai dezagun, eta hori eskatzen dugu. Bere garaian, osoko bilkuretan-eta udaletxeari eskatu izan diogu hainbat alditan auzoko espaloiak zabaldu eta, oro har, egoera hobetu dezala; gaur egun, gurpil aulkiekin edo ume-kotxeekin ibiltzea ia ezinezkoa da. Zubiko lanekin hasi dira, premia handiago batzuei heldu beharrean.

**Zein erantzun jaso duzue alkatearen partetik?**

Birritan elkartu gara eta esan digu oinezkoendako pasabide hori jartzea ezinezkoa dela, Ura agentziak ez duela uzten. Deitu dugu Urara; esan digute aurrez abisatuko balitz, akaso, salbuespenezko interbentzio bat egin ahalko litzatekeela oinez beste aldera pasatu ahal izateko.




Zubieta kaleko bizilagun batzuen protesta plazan, astelehenean. J. BEREZIARTUA

## Protesta udaletxe aurrean ere bai

Irailaren 27rako, bizilagunek obra geldiarazi eta protesta deitu zuten zubian. Urriaren 1ean, alkatearekin batzartu ostean ere, San Martin plazara eroan zuten protesta. Bide alternatibo bat eskatzen dute, "euren egunerokoarekin jarraitu ahal izateko". Bizilagunen arabera, obrak hasi direnetik "hainbat intzidentzia" izan dira eta "neurriak hartzea" eskatzen dute. Udalak "jarraipen zehatza" egingo dio obrari eta behar handiena duten bizilagunei herri-bus eta taxi-bus zerbitzuak erabiltzea erraztuko die. Obrak baimentzen ez duen bitartean, zubitik ezingo da oinezkorik igaro eta, espaloi berria egin arte eta obraren arabera, noranzko bakarra jarriko da paso alternatiboarekin; edo bi noranzkoak erabili ahalko dira. Bolura igotzeko Ibargarai edota behar balitz Artekalea erabiltzea berraztertuko da. Amaitzeko, bost aparkaleku kentzea "ezinbestekoa" izango da obraren garapenerako.

# Erakusleihoaren kontra autoa jo osteko lapurreta

Eguazten goizaldean, auto batekin Ibargarai kaleko denda baten erakusleiho bat apurtu eta goi gamako hainbat mugikor eta kutxa gotorra eraman zituzten lapurrek; merkatarien artean kezka eta beldurra piztu ditu gertaerak eta Ertzaintza gertatutakoa aztertzen ari da

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ezustekoarekin hasi zuten eguaztena Ibargarai kalean dagoen Movistar saltokian: erakusleihoko dendaren kristala hautsita eta barruan produktuak falta zitzaizkiela. Lapurreta egin zieten, baina ez edozein modutara: auto bat erabili zuten kristala hausteko eta barrura sartzeko. Goizaldeko seiak aldera bertaratu ziren udaltzainak eta ertzainak. "Egundokoa muntatu da, jende asko hurbildu da zer gertatu den jakitera", adierazi zuen lekuko batek.

Goi gamako mugikorrak eta kutxa gotorra eroan zituzten. Dena den, denda zabalik zegoen goizerako. Saltokiko arduradunaren esanetan, iaz ere izan zuten lapurreta bat, baina ez oraingo sistema bera erabilita.

**Ez da bailarako lehena izan**

Gure bailaran ez da bat ere ohikoa lapurrek modu horretan jokatzea. Hala ere, ez da lehen aldia gertatu dena; 2002ko urtarrilean, Arrasateko Elkoro elektronika dendan –orduan Seber Altube plazan zegoen– lapurrek auto bat erakusleihoaren kontra jo eta orduko hainbat bideokamera –merkeena 140.000 pezetakoa– eta bideo-kontsola bat eroan zituzten lapurrek.




Ertzainak Ibargarai kalean, lapurreta gertatu zen dendaren atarian. ANDONI GOITI

**Merkatariak, kezkatuta**

Herritarren artean denetariko erreakzioak izan zituen gertaerak. "Orain arte beste leku batzuetan entzun izan ditugun gauzak, orain, poliki-poliki gurean ere hasi dira gertatzen", zioen herritar batek. Beste herritar bati ez dio kezka berezirik eragiten: "Lehen aldia izan da halakorik Bergaran gertatu dena, eta, beraz, ez gaitezen behar baino gehiago larritu...". Hori bai, Ibargaraiko hainbat merkatarik kezka adierazi zuten gertatutakoaren aurrean. "Beldurra ematen du, hemen halakoak bizitzera ez gaude ohituta. Alarma badaukat, baina ez dakit pertsiana bat-edo jarriko dudan", zioen arropa denda bateko ugazabak. Bedelkarreko presidente Maitane Azkarate ere bat zetorren: "Halakoak hiriburuetako albisteetan entzuten dira eta hemen gertatu izana deigarria da. Badirudi ez dutela inongo oztoporik gura dutena eramateko".

Ertzaintzak jakinarazi duenez, ikerketa zabalik dago eta gertatutakoa aztertzen dabiltza.



NIRE USTEZ

**MARIJE UGALDE**

## 'Billy Elliot' oraindik ere?

*Billy Elliot* pelikula izugarri gustatu zitzaidan; 1985ean Ingalaterran kokatzen da eta mutiko batek dantza ikasteko dituen zailtasunak ezin hobeto adierazten ditu. Istorioaren garaitik 33 urte pasa dira, eta Ingalaterran ez dakit, baina gure herrialdean horrelako arazoek gaur egun jarraitzen dute. Eskolan, nesken egoerak aurrerapauso anitzak eman ditu. Tamalez, mutikoen artean gauzak ez dira horrenbeste aldatu. Kirola egiten ez dutenak seinalatuta daude. Antzerkia, dantza, musika… gustuko dutenak mutil kuadrillatik baztertuak izaten dira. Askotan, onartuak izateko, saiatzen dira besteekin batera kirolean, baina, gehienetan, saiakerek frustrazioa sorrarazten diete. Beste askotan, mutikoek benetako zaletasunak ezkutatzen dituzte onarpena bilatzeko. Hori dela eta, mutiko batzuentzat, haurtzaroa sufrimenduz bizitako etapa bihurtzen da. Zorionez, gehienetan, familien laguntasun eta babesari esker etapa hori gainditzen dute eta indartuta irten, nortasun berezia izaten baitute heldutasunean. Tamalez, beste batzuetan, laguntza ez da nahiko izaten; frustrazioa luzarorako izan daiteke. Berdintasunaren aldarrikapenaren garaian, gai honek ere arreta merezi du.

## Espoloiko jaietako auzo bazkarirako txartelak, Ogiberrin eta Hamaikan

Gaur eta bihar jaiak ospatuko dituzte Espoloian. Gaur, frontenis eta tenis txapelketak (17:30); pintxo lehiaketa –izena eman behar da Ogiberrin eta Hamaika tabernan–; Kopla Barik bertso eskolakoen saioa (21:15); eta mus txapelketa –21:30ean izen-ematea, eta hamar euro bikoteko– izango dituzte. Bihar, zapatua, Espoloitxoren jaitsiera (12:00); haur jolasak (12:15); Arragoa taldearen kontzertua (13:30); auzo bazkaria –txartelak Ogiberrin eta Hamaika tabernan daude salgai– (15:00); helduendako jolasak (16:30); Mugi Panderoa taldearen kontzertua (18:30); triki-poteoa (20:30) eta Amaia Arriaranen partetik dantza egiteko aukera egongo da.

EUSKARALDIA

## Kike Amonarrizek hitzaldia egingo du hilaren 10ean, Irizarren

Datorren eguaztenean, urriak 10, Kike Amonarrizen hitzaldia egongo da Irizar jauregian (19:00). Euskaraldiaren *11 egun euskaraz* ekimenaren baitan eskainiko du hitzaldia eta bertan, bergararrak aktibatzeko 365 arrazoi emango ditu: "Ez galdu aukera eta gerturatu hitzaldi interesgarri hau entzutera!", dio Euskaraldiaren herriko batzordeak.

Bestalde, gogorarazi dute Barrenkalea 10ean lokala zabalik dutela eta honako hau dela ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 17:30etik 19:30era; eta zapatuetan, 11:30etik 13:30era (*bergaraeuskaraldia@gmail.com*)

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak
K21 KALITATEA



Laukizuzen itxurakoa eta solairu bakarrean, 86 aparkaleku berri aurreikusten ditu oinarrizko proiektuak. BEB ARKITEKTOAK

# Errotazio bidezko 86 leku berri seminario azpirako

2.285 metro koadroko solairu bakarrean, aparkaleku bakoitzak 14 metro koadro izatea aurreikusten du oinarrizko proiektuak eta autoendako sarrera-irteera Ibargaraitik egongo da; lizitazio-prozesua espero moduan joanda, obrak 2019ko udaberrian hasiko dira

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Laukizuzen itxurakoa, solairu bakarrean eta errotazio bidez funtzionatuko duten 86 aparkaleku berrirekin –horietatik hiru mugikortasun mugak dituztenentzat eta beste lau ibilgailu elektrikoentzat–. Halakoxea izango da seminario azpian eraikiko den parking berria. Sarrera eta irteera Ibargarai kaletik izango du, zehazki, Justo Garate plazaren azpian dagoen aparkalekuko sarrerari paralelo, eta bi sarrera-irteerak errazteko biribilgune erdi bat egitea proposatzen du Udalak.

Oinezkoendako bi sarrera aurreikusten dira, bakoitza mutur batean kokatuta: bata Ibargarai kaletik eta bestea, eskailerez gain igogailua izatea aurreikusten dena, Herri Lagunak kalera ematen duen plazatxotik.

**"Estrategikoa" herriarentzat**

Eguaztenean aurkeztu zuten, seminarioko patioan bertan, BEB Arkitektoak estudiokoek idatzi duten proiektua; Udalak 34.425 eurotan adjudikatu zion proiektuaren idazketa. "Udalaren ustez, estrategikoa da Bergararentzat erdigunean aparkatzeko aukerak erraztea, bai herritarrontzat zein arrazoi desberdinengatik bisitatzen gaituztenontzat; beste ate bat zabalik izatea bermatzen du honek. Bergarak hazkundea izaten jarraitzea errazteko eta herriko jarduera indartzeko beste pauso garrantzitsu bat da lur azpiko aparkalekua errealitate bihurtzea", esan zuen Elena Lete alkateak.

**"Neurri eskuzabalez" diseinatua**

Behin proiektua idatzita, lizitazio faseari ekingo zaio udazkenean. Udalak azkenaldian enpresa eraikitzaileak aurkitzeko arazoak izan baditu ere, espero dute 2019ko otsailerako jakingo dela zein enpresak egingo duen.

2.285 metro koadro izango dituen solairu bakarreko aparkaleku "erosoa" izango da. "Neurri eskuzabalekin diseinatu da, barruko ikusgarritasuna eta maniobrak errazteko". Plaza bakoitzak ia 14 metro koadro izango ditu, bost metro eta 30 zentimetro luzerarekin, bi metro eta 60 zentimetroko zabalerarekin eta, gutxienez, bi metro eta 60 zentimetroko altuerarekin.

**Exekuzioa, "ahalik eta laburren"**

Herri erdi-erdian izanik, obrak eragozpenak eragingo dizkie oinezkoei zein autoei. "Saihestezina izango da gure eguneroko bizitzarako oztopo bat izatea; hala ere, exekuzio-epea ahalik eta gehien laburtzeko, arkitektoek erabaki dute egitura aurrefabrikatua izatea. Diotenez, nabarmen murriztuko da obraren iraupena", aurreratu du alkateak.

**Horma botatzea aurreikusten da**

Seminarioko patioko urbanizazioari dagokionez, eremu horren eta Ibargarai kalearen arteko horma ezabatu egingo da, eta, ondorioz, Ibargarai kaleko espaloi zabalagoak lotura zuzena izango du seminarioko patioarekin. Hala ere, ume askok erabiltzen duten gunea izanik eta ondoan errepidea dagoela jakinda, segurtasuna bermatzeko hainbat aukera ari da aztertzen Udala.

**1.120.000 euroko mailegua**

2018ko udal aurrekontuan 1.400.000 euroko partida bideratu zuen Udal Gobernuak proiektu horretarako; horietatik 1.120.000 euro, 15 urtean amortizatzeko mailegu bidez lortuta.



Oinarrizko dokumentua seminarioko patioan aurkeztu zuten. TXOMIN MADINA

## Oinarrizko proiektua, ekarpenen zain

Oinarrizko proiektua eginda dago, eta orain, Udalak herritarren ekarpenekin osatu gura du. Elena Lete alkatearen arabera, mahai sektorialak egitea da asmoa: "Oso inportanteak dira ekarpenak, eta abiapuntu edo oinarri sendo batetik abiatu gura genuen".

# Doako lau tailer interesgarri Jabekuntza Eskolari esker

Urritik abendura arteko egitarau zabala antolatu dute, eta matrikulazioa zabalik dago dagoeneko

**J.B.** BERGARA

Udaleko Berdintasun Sailak atzo aurkeztu zuen herriko emakumeei begira antolatutako Jabekuntza Eskolaren urritik abendura arteko egitaraua. Doako lau ikastaro interesgarri antolatu dituzte, emakumeen partehartze soziala eta politikoa sustatzea helburu. "Banakako nahiz taldekako jabekuntza bilatzen dugu, hau da, autokontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, gure gaitasun propioak ezagutzea eta emakumeoi dagokigun espazioa berreskuratzea".

Honako hauek izango dira ikastaroak: teoria feministak –urriaren 30etik abenduaren 11ra bitartean, zazpi saio–, sabel dantza –azaroaren 7tik abenduaren 19ra, zazpi saio–, autodefentsa feminista –hiru saio, azaroaren 10ean, 17an eta 24an– eta, azkenik, *clown*-a eta ahalduntzea –lau saio, azaroaren 9an, 16an, 23an eta abenduaren 13an–. Ikastaro guztiak doakoak izango dira eta matrikulatzeko epea irekiko da ikastaro bakoitza hasi baino bost egun lehenago. Izena emateko, udaletxeko Berdintasun Sailera jo daiteke; telefonoz (943 77 91 65) eta posta elektronikoz (*berdintasun@ bergara.eus*) eman daiteke izena.

## Bergarako Wikipedia osatzeko beste saio bat urriaren 9an

Euskarazko eta Bergarako Wikipedia osatzeko eta sendotzeko asmoz beste hiru saio antolatu dituzte Udalak eta Jardunek. Hurrengo saioa, lehenengo saio praktikoa, urriaren 9an 18:30ean izango da Miguel Altuna Institutuko informatika gelan. Gaiarekin interesa dutenei, lehen aurkezpenean parte hartu edo ez, egin diete gonbidapena.



San Martin plaza agertoki eder bilakatu zen, eta udaletxeko proiekzioek are ikusgarriago egin zuten kontzertua. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO


Vivanco eta Alberdi, maitasun-dantza.

# Ikusi, entzun eta sentitu, 750 urteak gogoratzeko

Mila herritar inguru elkartu ziren agertoki eder baten itxura hartu zuen San Martin plazan, 750. urteurrena gogora ekartzeko 350 protagonistak eskainitako kontzertuan; musika eta dantza izan ziren ikuskizuneko zutabe nagusiak, askotariko proiekzioekin


Ikurrin dantzarik ez zen falta izan.

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ikuskizunean zehar izan ziren txalo zaparradek eta, bereziki, amaieran izan zirenek argi utzi zuten 750. urteurreneko kontzertuak arrastoa utzi duela hainbat bergararrengan –azken piezarako, *Bergarako ereserkia*, zutik jarri zen plaza–. Kontzertua ezin hobeto irten zen, testuinguru ezin ederragoan: "Proiektuan aurreikusitako guztia primeran irten da, oso pozik gaude. Hauxe da herrian izan dezakegun aretorik onena, hauxe da gure altxorra: udaletxea, seminarioa, San Pedro dorrea... Horrelako ikuskizun bat hemen egin ahal izatea benetan ederra da", adierazi zuen ikuskizunaren amaieran, pozarren, eszena zuzendari Valen Moñuxek.

Arlo musikalaren zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaque bera ere pozik zegoen: "Aniztasuna nabarmenduko nuke nik. Arlo artistikoari erreparatuta, denetarik egon da. Bergarako aniztasun artistikoa ikusi ahal izan da". Elena Lete alkatea, berriz, hunkituta zegoen emanaldiaren amaieran: "Benetan polita izan da. Jende askok hartu du parte eta jende asko egon da ikusten; antolakuntza aldetik ere ondo irten da dena. Zoragarria izan da".

**Musika, dantza eta proiekzioak**

Hain zuzen ere, musika eta dantza izan ziren kontzertuaren zutabe nagusiak. Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa gidari, doinu herrikoien eta klasikoen topagune bihurtu zen San Martin plaza. Udaletxearen fatxadako horma sendoak, ostera, herriko historiaren pasarte nabarmenenak erakutsi zituen, askotariko proiekzioen bidez. Amaieran, suziriak ez ziran falta izan, ezta San Pedro elizako kanpai hotsak ere. Bi ordu inguru iraun zuen emanaldian hainbat une eder bizi izan ziren eta horien artean aipatzekoak dira, besteak beste, Telmo Aierbe tiplearen ahots samurra eta Saioa Alberdiren eta Manex Alberdiren arteko maitasun-dantza berezia. Biak ala biak izan ziren une zirraragarriak.

San Martin plazan egon ziren mila herritarrek txalo artean agurtu zituzten ikuskizuneko 350 protagonistak. San Pedro egunean ez zen posible izan eta San Migel bezperan egin behar izan zen.

## OHARRAK

### Txapa irratirako deia

Denboraldi berrian irratsaio bat egin nahi dutenei dei egin diete; gaur gaztetxean elkartuko dira, 20:00etan.

### Beart: arte ikastaroak

Ume eta gaztetxoendako arte ikastaroak antolatu dituzte urritik ekainera. Jokin Oregi –astelehenetan– eta Mayra Jimenez –eguaztenetan– izango dira irakasleak. Bigarren umea erdi prezioan egingo dute; izena emateko: *beart.elkartea@gmail.com*.

### Kobrantza iragarkiak

Kioskoen, OHZren (IBI) eta taxi tasen; zabor, estolderiaren eta uraren tasen; eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren agiriendako epeak zabalik daude. Argibide gehiagorako, Udalera jo: *www.bergara.eus*.

### San Joxepe: irteera

Urriaren 18an Pasaiara egingo duten irteeran ordu aldaketa egon da: 08:30ean irtengo dira autobus geltokitik.

### Nazioarteko Organo Erromantikoaren XIX. zikloa Santa Marinan

Organo Erromantikoaren zikloaren 19. aldiaren barruan kontzertua izango da bihar Santa Marina elizan (19:00), doan. Stanislav Surin organo-jotzailea izango da biharko protagonista, Helmut Hauskellerrekin batera. Urriaren 20an izango da ziklo barruko Bergarako kontzertua; Loreto Aramendi organo-jotzailea izango da protagonista orduan.

Ford MUGARRI
7 urteko garantia
auto berri guztietan
Debagoieneko kontzesionario ofiziala
Arrasate • San Andres Auzoa 6
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86
www.mugarri.eus

# "Etorkizuneko erronkak ez dira ondo markatu"

**MIKEL LARREA** GU GEU ELGETA PLATAFORMA

Agintaldia lasai joan dela eta ez dela eztabaida handirik egon uste du oposizioko bozeramaileak. Plataformak hil amaieran egingo du jarraipenari begirako batzarra

**Eneko Azkarate / L.Z.** ELGETA

Gu Geu Elgeta plataformako Mikel Larrea *Harira* saioan izan da. Elkarrizketa osorik dago ikusgai *Goiena.eus* atarian.

**Nola baloratzen duzue Udal Gobernuaren kudeaketa?**

Gauzak ez dira gaizki egin. Egoera ekonomiko larria izanda ere, aurrekontuak bete egin dira, baina uste dugu badaudela aurrekontutik kanpoko egitasmoak ere. Hor eskas ikusi dugu Udal Gobernua.

**Zeintzuk dira egitasmo horiek?**

Elgetak agintaldi hasieran zituen arazo berberak ditu gaur egun, oraindik ere. Etorkizuneko erronkak ez dira ondo markatu: herriaren eta industrialdearen sarbideak, herriak zer-nolako garapena izan behar duen... Debatea sortu eta pausoak eman beharko lirateke beste erakundeekin batera eta herritarrei galdetuta. Agintaldi hasieran egin zen saiakera bat parte hartze prozesu batekin, baina sakondu egin behar da talde sektorialei galdetuta.

**Laster izango dituzue mahai gainean 2019ko udal zergak eta udal aurrekontua.**

Ez dugu aldaketa handirik espero. Ez dago inbertsio handirik egiteko aukerarik eta, azken finean, mantenurako aurrekontu bat izatea espero dugu.

**Jarraitzen duzue etxebizitza hutsei aplikatzen zaien gainordainketarekin ados ez egoten?**

Bazuen bere helburua, baina ez da zeharo betetzen eta isun moduan ikusten dugu. Ez dugu beharrezko ikusten hutsik dauden etxebizitzak alokairura edo salmentara ateratzea. Merkatua aztertu eta etxebizitza politika beste modu batera bideratu beharko litzateke, jendea zigortu gabe.

**Martxan da saiakera berria Espaloian kultura ekintzak antolatzeko.**

Aurrera egin behar da edozein aukerarekin, baina hainbeste saiakeraren ondoren uste dugu hausnarketa egin behar dela, jakiteko esperimentuetan jarraitu behar dugun edo irtenbide iraunkorragoa aurkitu behar dugun.

**Baduzue proposamenik?**

Proiektu zehatzik ez dugu, baina ideiak bota ditugu. Espazio bat dugu hor eta aztertu beharko da lehenagokora bueltatu nahi dugun edo azpiegitura hori elgetarren gauzetarako erabili nahi dugun.

**Bergarako Agorrosin ekintza-gunean elgetarrei eta antzuolarrei aplikatzen zaizkizuen prezioak eztabaida iturri dira. Zein iritzi duzue?**

Guztiz bat gatoz Elgetako eta Antzuolako alkateek egin duten eskaerarekin. Instalazio horiek egiteko diru laguntzak erabakitzerakoan, Diputazioak kontuan hartu zituen bai Elgetako eta bai Antzuolako biztanleak. Planteamendu hori pikutara joan da. Bailara bat gara, baina bakoitzak bere etxera egiten du. Debagoiendar sentimendua da hemen galtzen dena.

**Hurrengo hauteskundeei begira plataformaren formula berritzeko asmorik baduzue?**

Gure asmoa da hil honen bukaeran hausnarketa egitea, eta uste dut ondorio batzuk aterako direla hortik. Plataformaren formula errepikatuko den edo ez orain jakitea zaila da. Jendeak esango du.

**Zuk zeuk zer balorazio egiten duzu?**

Ez dugu oposizio bortitzik egin. Oztoporik ipini gabe egiten laga dugu. Gure parte hartzea izan da batzordeetan ideiak eta ekarpenak egitea. Balorazio positiboa egiten dut. Gauzak oposiziotik ikustea ere ondo etortzen da.

**Alkategai izango zara, orduan?**

Nik ere nire hausnarketa pertsonala egin behar dut. Plataforman sartu nintzen orain dela lau urte, eta jarraitzeko baldintza bat edo beste aldatu beharko dira: proiektua, programa... Baldintza pila bat aztertu behar dira, eta, gaur-gaurkoz, ezin dut esan hemendik zazpi hilabetetara zer gertatuko den.



Gu Geu Elgetako Mikel Larrea, martitzenean, Goiena telebistan. JAGOBA DOMINGO

**"ELGETAK AGINTALDI HASIERAN ZITUEN ARAZO BERBERAK DITU GAUR EGUN ORAINDIK ERE"**

## Lanean, Debagoieneko Eskola Publikoaren jairako

Urriaren 20an Eskoriatzan egitekoa den festan parte hartzeko dei egin du Maala guraso elkarteak

**L.Z.** ELGETA

Lehenengo aldiz egingo da Debagoieneko ikastetxe publikoen festa, eta egun osoko egitaraua gertatu dute Eskoriatzan hilaren 20rako. Elgetako Herri Eskolak eta Maala guraso elkarteak bat egin dute deialdiarekin, eta elgetarren parte hartzea errazteko antolaketa lanetan dihardute. Kamisetak aterako dituzte, autobusa antolatzeko aukera dago eta bazkarirako izen-emateak jasotzen ari dira. Interesatuek semearen edo alabaren gelako guraso ordezkariarekin jarri behar dute harremanetan.

**Kamiseta laranjak**

Herri bakoitzak bere kolorea izango du Debagoieneko Eskola Publikoaren jaian. Elgetako Herri Eskolak kolore laranja aukeratu du eta kamisetak eskatzeko aukera izan da asteon. Kamisetak iritsitakoan banatuko dituzte, eta orduan egin beharko da ordainketa. Guraso elkarteak jakinarazi du eskolako neska-mutikoek doan jasoko dutela.

**Autobusa eta bazkaria**

Bazkaria antolatu dute hilaren 20rako, Eskoriatzan. Paella dago menuan eta prezioa zortzi euro da. Komeni da aurrez izena ematea. "Eskaerarik balego, autobusa ipintzeko aukera ere mahai gainean dugu", esan du Elgetako guraso elkarteak. Egunotan emango dute horren inguruko informazioa. "Elgetarrak Debagoieneko Eskola Publikoaren jaian parte hartzera animatzen ditugu. Ez da Eskoriatzako eskolaren jaia. Debagoien osoko eskola publikoak elkartuko gara bertan, eta garrantzitsua da", esan dute.

## Diputaziotik ele bitan jasotako hitzarmen batekin kexu Udala

Kiroldegiko aldagelak berritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza akordioa dela-eta kexu agertu da Elgetako Udala. Ohar bidez aditzera emandakoaren arabera, Diputaziotik bi hizkuntzatan idatzitako akordio-zirriborroa bidali zuten eta Udalak neurriak hartu zituen prozedura euskara hutsean egin ahal izateko. Hala, euskara hutsezko bertsioa bidali zuen sinatuta Udalak. Bi hilabetera iritsi da Elgetara Denis Itsaso diputatuak sinatutako hitzarmena, bi hizkuntzatan. "Uste dugu Elgetako Udalak eskubidea duela bere hizkuntza politika zehazteko. Orain artean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izandako harremanetan ez dugu izan inolako arazorik euskaraz jarduteko, ez eta momentu honetan beste departamentu batzuekin ere", jakinarazi dio Udalak Aldundiari idatzi bidez.

## OHARRAK

### Podologoa

Urriko kontsulta hilaren 18an izango da. Txanda hartzeko, deitu: 943 76 80 77 (Nati).

### Berbalagunak

Taldeak osatzeko izen-ematea zabalik da *elgetanberbetan@gmail.com* helbidean.

### Mendi irteera

Kantsatzekek urriaren 21ean egingo du hurrengo irteera.

## Egoarbitzako udal lursailaren erabilera esleitzeko prozedura

Udalak esleipen prozedura publikoa zabaldu du eta interesatuek abenduaren 14ra arte dute udaletxean izena emateko. Onuradunak lur eremua animaliak bazkatzeko erabili ahal izango du 2019ko urtarriletik 2020ko abendua bitartean. Udalari ordaindu beharreko gutxieneko kanona, urteko, 90 eurokoa izango da.

EUSKARALDIA, GERTU! 52 EGUN FALTA DIRA

# "Euskara jakin gabe ere lan handia egin daiteke"

Euskaraldia batzordeak gonbidatuta, eguaztenean Elgetan izango da Xabier Paya. Gazteleraz egingo du hitzaldia; izan ere, bada euskara jakin gabe euskararen alde lan handia egin duen gizarte talde bat. Aitortza hori egiteko dagoela uste du Payak

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Nagusiki, euskara ulertzen ez dutenendako egingo du hitzaldia, 19:30ean, Xabier Payak. "Euskaldunentzako ere aberasgarria izango da, hizkuntza aniztasunari buruz arituko garelako eta, gehiago edo gutxiago, baina guztiek ditugulako ez euskaldunak gure inguruan", zehaztu du.


Xabier Paya. XABIER PAYA

Etxeko esperientziatik abiatuta egingo du gogoeta Payak. "Hiru payatar gaude gaur egun euskaraz dakigunak eta ekarpena egiten dugu gure ama ez euskaldunak —aitarekin adostuta, noski— erabaki zuelako guk euskaraz jakitea eta, gainera, bultzatu zuelako gugan euskara hizkuntza praktikoa, erreala eta bizia izatea". Euskaraz jakin gabe ere asko egin daiteke euskararen alde eta erabaki horiek hartzea da gakoa, Payaren ustez. "Zergatik erabaki zuen gure amak guk euskaraz ikastea berak jakin gabe? Halakoetan, behetik gora dator hizkuntza, umeek eramaten dutelako euskara etxera. Kasu horietan zein berezitasun gertatzen dira? Hizkuntza nahasketa ona edo txarra da?". Aurreiritzien inguruan ere berba egingo du getxoztarrak, eta, horrekin batera, eleaniztasun egoerek sortzen dituzten berezitasunei buruz. Saio partehartzailea egingo duela esan du, ariketa eta jolas ugarirekin, eta nork bere gogoeta egiteko aukera izango duela. "Eleaniztasunak baditu bere ezaugarriak eta euskal gizartea aldatzen ari da. Migratzaile kopurua handitzen doa eta argi izan behar dugu gure helburua euskarak zentraltasuna duen gizarte eleanitza bada, gurera erakarri beharko ditugula hiztun horiek guztiak, eta irribarre batekin lortzen da hori. Hizkuntzaren kudeaketak baditu bere gorabeherak, eta ez da beste software bat instalatzea bezain erraza".

**Euskaraldirako izen-ematea**

Zabalik da izena emateko aukera. Etxetik egin daiteke, *Izenematea.euskaraldia.eus* helbide elektronikoan. Udaletxean zein liburutegian ere egongo da fitxa betetzeko aukera, eta Xabier Payaren hitzaldian ere bai.

## Euskaraldiaren horma-irudia Torrealdean

Udalaren enkarguz horma-irudia egin dute Torrealdean Arrasateko Muralart taldeko kideek. Astelehenean ekin zioten lanari, eta ahodun loreen eta belarridun tximeleten artean nabarmentzen dira *Ahobizi* eta *Belarriprest* hitzak. Horma-irudiaren bitartez elgetarrak ere gonbidatuta daude rola aukeratzera eta Euskaraldian izena ematera.


Arrasateko Muralart taldeko kideak horma-irudia margotzen. L.Z.

# Antzerkia, Intxortako frontearen 82. urtemuga gogora ekartzeko

Domekarako bisita gidatu antzeztua eta 'Comunicado de muerte' antzezlana daude iragarrita Elgetan

**L.Z.** ELGETA

Nagusienek ondo gogoan dute 1936ko urriaren 4a. Egun hartan iritsi zen gerra Elgetara; izan ere, egun hartan ekin zioten erasoari tropa frankistek. Urtero egiten dituzte urtemuga gogora ekartzeko ekintzak herrian, eta aurten, bisita antzeztua eta *Comunicado de muerte* izeneko antzezlana daude iragarrita domekarako.

Bisita gidatua berezia izango da, boluntario talde baten laguntzarekin gerra garaiko hainbat pasarte irudikatuko baitira. Gidaria 10:00etan elkartuko da bisitariekin Mendizaleen Plazan ibilaldiari hasiera emateko.

**'Comunicado de muerte' obra**

Abadiñoko Banarte antzerki taldeak eskainiko du, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian. Bartzelonako Modelo kartzelan preso egondako Salvador Puig Antich militante anarkistaren eta presondegiko funtzionario Jesus Irurreren arteko adiskidetasun harremanean oinarritzen da antzezlana. Rafael Hercek idatzia, hainbat sari jaso ditu.

# Gazteleku zerbitzua barikuetan ere zabaltzeko aukera, aztergai

Espazioa egokitzeko asmoa ere badago, eta gaur egitekoa den batzar batera deitu dituzte erabiltzaileak

**L.Z.** ELGETA

Hobekuntzak izango dira ikasturte honetan Elgetako gazteleku zerbitzuan. Zapatuetan eta domeketan ez ezik barikuetan ere zerbitzua zabaltzeko aukera dago aztergai, eta horrekin batera espazioa erabiltzaileen beharretara egokitzeko asmoa.

Gaztelekuak gaur zabalduko ditu ateak, eta ate irekiak izango dira, 17:00etan. Anabel Fabra izango da aurten zerbitzuko arduraduna. Ludotekako arduradun Nerea Villarekin batera gidatuko du gaurko saio irekia. "Lehenengo hiruhileko egitaraua aurkeztuko dugu, eta ondoren, esku artean ditugun aldaketen berri emango dugu. Erabilera egonkortzen bada, barikuetan ere zerbitzua zabaltzeko aukera izango dugu, eta espazioa berriz diseinatzeko eta gazteen beharretara egokitzeko aukera egongo da", azaldu dute.

**Ludoteka zerbitzua**

Ludoteka martxan da. Hura ezagutzera emateko, martitzenean, ateak irekitzeko eguna egingo dute, 2 urteko gelako umeendako.

## Literatura ginkana eta ipuin saio bereziak, liburutegian

Urriaren 24an ospatzen da Liburutegiaren Eguna, eta aurten ere hainbat ekintza antolatu ditu Elgetako liburutegiak. Hilaren 15etik aurrera martxan izango da literatura ginkana. 2010. urtetik aurrera jaiotako elgetar guztiei irekia den lehiaketa da eta proba desberdinak proposatuko ditu hilaren 24ra bitartean. Puntu gehien lortzen dituenak liburu dendarako 60 euroko erosketa-bonua irabaziko du.

Ipuin saioak ere iragarri ditu liburutegiak. Hilaren 19an, yoga ipuinak egingo dituzte Geaxi Ezpeletak eta Alazne Azkaratek. 5 urtetik gorakoendako saioa izango da, 17:00etan.

Liburutegiaren Egunean, berriz, *Mozorro ipuin festa* izeneko saioa egingo dute Apika taldeko kideek. Saio hori adin guztietako publikoarendako izango da, 17:30ean.




Akizu, Osinaga, Zubia, Ibarrondo, Andres, Zubia eta Moiua, eguazten arratsaldean egindako aurkezpenean. O.E.

# LH-1eko eta LH-2ko herri materiala erabilgai dago

Urriaren 19an Hurretik gala egingo dute Santa Ana antzokian, 22:00etan. Umorezkoa izango da eta proiektuan parte hartu duten herritarrekin egindako bideoak eskainiko dituzte. Gonbidapenak Txokolateixian edo udaletxean jaso daitezke

**Oihana Elortza** OÑATI
Herri ondarearen transmisioan ditu sustraiak Hurretik egitasmoak. Hori herri curriculumean sartzea da helburuetako bat eta horretan lan egin du bi urtez, elkarlanean, herriko hiru ikastetxeetako eta Udaleko ordezkariz osatutako talde batek Topaguneko koordinatzaile batekin batera. LH-1 eta LH-2 mailetako ikasleendako materiala prestatzen ibili dira, eta egin dute. Ikasturte honetan, sarean sartu duten informazioa erabiliko dute ikastetxeetan maila horietako ikasleekin lantzen dituzten proiektuetan.

## Blog bat

Blog batean sartu dute bildutako eta landutako informazioa. Lehen Gizakia eta Erdi Aroa izango dira gai nagusiak eta horiei buruzko zortzi atal didaktiko egin dituzte. "Euskarri digitalaren alde egitea hasieratik ikusten genuen argi. Erakargarriagoa da, baina hor jasotako informazioa etengabe gehitu, osatu edo aldatu daiteke", adierazi du Hezkuntza zinegotziak, Nerea Zubiak.

Blogak atal ezberdinak dituela azaldu du lana koordinatzen ibili den Josu Zubiak: "Abestiak, jolasak eta bideoak ditu, adibidez. Eta horien bitartez Lehen Gizakiaren eta Erdi Aroaren garaiko Oñati ezagutzeko edo irudikatzeko modua izango dute ikasleek".

Ikastetxeetako irakasleek prest dute materiala ikasturte honetan erabiltzen hasteko. "Bi urtez ibili gara lanean. Denbora luzea da, baina eskatzen zuen; gauzak lortzeko denbora behar da", dio Txantxiku Ikastolako irakasle Aitziber Osinagak. Elkar Hezi-ko Elena Ibarrondori ere gustatu zaio emaitza: "Uste dut ikasleendako erakargarria izango dela, eta irakasleendako ere oso baliagarria da. Lehen, informazio bila aritzen ginen, eta orain, eskura dugu dena". Urgain Errekaldeko Nagore Moiuak hauxe gehitu du: "Eskuragarri dugu informazioa, eta orain, eskolan ikasleekin lantzen ditugun proiektuetan txertatuko dugu".

**IKASTETXEETAN LANTZEKO SORTU ARREN, EDONOR SAR DAITEKE BLOGEAN: 'WWW.HURRETIK.EUS'**

Ikasturte honetan, LH-1 eta LH-2 mailetako ikasleendako materiala estreinatuko dute, baina asmoa da Lehen Hezkuntza osora heltzea Hurretik. Izango duen hezurdura definituta dute.

## Gala

Urriaren 19an, Hurretik gala egingo dute Santa Anan. Potx eta Lotx pailazoek aurkeztuko dute eta umorezkoa izango da. Herritarrekin egindako bideoak eskainiko dituzte. "Oñatiar sentimendua ospatzeko festa izango da", dio Iñaki Akizuk, Hezkuntza teknikariak.



Iraileko lehen zapatuan egindako azoka eguna. IMANOL SORIANO

# Kultur ekintzak eta zozketak egingo dituzte berdura plazan

Zapatu goizetan egiten den berdura azoka biziberritu egin gura dute eta izen eta logo berria sortu dituzte

**O.E.** OÑATI
Zapatuetan egiten den berdura azoka biziberritzeko beharra ikusi dute bertan egoten diren saltzaileek. Udalari horren berri eman, eta bilerak egiten hasi ziren. "Azokan egoten diren ekoizle oñatiarrekin badugu harremana. Urte hasieran hasi ginen azoka indartzeko egitasmoa lantzen", dio Irati Etxeberria zinegotziak.

## Irudia

Zapatuetako azokak logo koloretsu bat izango du aurrerantzean eta izena ere beste bat izango da: Berdura Plazia. Lehengo izena berreskuratu gura izan dute. Logo berriaz gain, tarteka kultur ekintzak egingo dituztela ere adostu dute, eta baita zozketak ere. "Erosketa poltsen barruan sartzeko beste poltsa txiki batzuk oparituko dira bezeroen artean; irudi berria izango dute poltsa horiek. Eta zozketatuko dena erosketa-orga bat izango da", zehaztu du Etxeberriak. Datozen asteetan hasiko dira zozketak egiten.

Bestalde, azokara joaten diren erabiltzaileen artean inkesta bat egingo dute.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

### Azken metroak ez dituzte garbitu

Elorregi eta Zubillaga arteko bidegorria bidegorriaren markak dauden tokiraino garbitu dute. Azken 150 metroak zergatik ez dituzten garbitu galdetzen du irakurle batek.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



Kintoak dantzan nagusien danborradan. AITOR AGIRIANO



Bederatzi bikotek hartu dute parte berakatz-zopa lehiaketan. AITOR AGIRIANO



Akrobaziak bizikletekin. IMANOL SORIANO



Udal musika bandak Lazarraga lorategian egindako emanaldia. JAGOBA DOMINGO



Abentura parkean. AITOR AGIRIANO



Magia trukoei adi. AITOR AGIRIANO

# Errosarioko jaiak ere disfrutatzeko izango dira

Sanmigelak jendetsuak izan dira eta horrelakoak izateko osagaiak ditu Errosarioko asteburuak ere. Herri Eguna eta Errosario Biharamun eguna izaten dira herritarren egun kutunenetakoak, baina gaur eta domekan kalean ibiltzeko aitzakiarik ez da falta

**Oihana Elortza** OÑATI

"Onak, eta egunez zein gauez jendetsuak" izan dira sanmigelak, Kultura zinegotziaren esanetan, eta bigarren asteburua ere horrelakoa izatea gura du. "Antolatutako ekitaldi guztiak egin ziren. Ez zen gertaera larririk izan eta uste dut herritarrek disfrutatu egin zutela. Datorren asteburu honetarako prestatu diren ekintza guztiak aurrera doaz, ez da aldaketarik egon", adierazi du Nerea Zubiak.

Gaurko bertso saioa izango da asteburuko hitzordu garrantzitsuenetako bat eta biharko Herri Eguna eta asteleheneko Errosario Biharamun eguna beste bi. Astelehenean karrozak uzteko tokia egokituko dute aurten ere agustindarren ondoan.

Egunotan, herribusak Arantzazuko zerbitzua bakarrik egingo du eta hondakinen bilketa berezia izango da zapatuan. Udal zerbitzuak itxita egongo dira martitzen goizera arte; kiroldegia eta gaztelekua martitzen arratsaldean zabalduko dituzte.



Foruen plaza lepo bete zen Gatiburen kontzertuan. IMANOL SORIANO



NIRE USTEZ

**JOSE LUIS MADINAGOITIA**

## Herriko jaietan, ondo pasa

Garai baten eta nonbaiten, bateren batzuek asmatu zituzten "herriko jaixak". Antropologian adituek diote herrian identitatea indartu egiten duten jaiak direla Euskal Herrikoak. Gogoratu behar dugu XVIII.ean Voltaire jaunak euskaldunak definitzeko erabili zuen esaldi hau: "Pirinioetako bi aldeetara kantu eta dantza egiten duen herria". Eta gaurko egunez ere kantuak eta dantzak presentzia handia dute gure jaietan. A ze asmakizuna, denon parte hartzearekin egun alai batzuk antolatzea, kultura, musika, ikuskizunak, jolasak, txapelketak, barrakak, txorimalo eta erraldoiak, txarangak... Adin ezberdinetako pertsonek era ezberdinetan gozatzeko aukera izaten dute. Gogoratzen dut 18 urterekin izaten nuen poz eta ilusioa herriko jaietarako, parranda bat edo beste, gaueko orduak nola geuretzako hartu saiatzen, gurasoen nahiaren kontra. Urteak pasatu ahala, parranda indarrak jaisten joan dira, baina beti eduki izan dut jaietarako ilusioa eta uste dut herri batek beharrezkoak dituela jaiak. Sanmigelak pasa dira eta Errosarioak datoz orain. Ondo pasa, negu luze, hotz eta iluna dator eta.

## Euskaraldiko herri bazkaria izango da astelehenean

Euskaraldiko herri bazkaria egingo da astelehenean, urriak 8. Txosnagunean egingo da eta txartelak txosnetan eta Arrano eta Ongi tabernetan daude salgai; langileendako 12 eurotan eta ikasleendako 10 eurotan. Bestalde, gaurko bertso saioan eta biharko herri bazkarian, Euskaraldiarekin bat egiteko eskuorriak egongo dira sinatzeko.



Eskola kirola ekimeneko aurkezpenean, udal ordezkariak, Aldundiko ordezkariak eta enpresetako ordezkariak. OIHANA ELORZA

# Eskola kiroleko saioak bi aste barru hasiko dituzte

Eguaztenean aurkeztu zuten Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartea. Hiru ikastetxeek elkarlanean sustatutako proiektua da, beste hainbat eragilerekin elkarlanean. 18/19 ikasturterako 491 neska-mutikok eman dute izena kirol ekintzetan parte hartzeko

**Arantzazu Ezkibel Galdos** OÑATI
Oñatiko Eskola Kirola elkartea buru-belarri ibili da proiektu berriaren norabidea zehazten; hala, lan horiek eginda, 18/19 ikasturtea martxan jartzeko ordua iritsi da. Urriaren 15ean hasiko dituzte saioak.

Eskola kiroleko koordinatzaile Rosa Mondragonek azaldu du gaztetxoek 27 entrenamendu saioa izango dituztela, 12 lehiaketa jardunaldi eta 15 topaketa. "Oso pozik gaude matrikulazio kopuruarekin: 491 gaztetxok eman dute izena. Nabarmentzekoa da LH-3 mailatik LH-6 mailara arteko ikasleen %74k eman dutela izena eskola kirolean", azaldu du proiektuaren aurkezpenean. Datu hori "altua" dela nabarmendu du Diputazioko Kirol Zerbitzuko buru Iñaki Iturriotzek.

**Jarraipena Aloña Mendin**

Eskola kiroleko kirol eskaintza zehazteko orduan, kontuan izan dute eskaintzak lotura zuzena izatea kirol elkarteekin. Modu horretan, gaztetxoek euren gustuko kirolean jarraitzeko aukera izango dute, Aloña Mendi elkartean –edo beste elkarteren batean.

18/19 ikasturteko aurrekontua 99.287,37 euro izango da. Udalak %46,57 jarriko du, izen-emateetan %27,53 lortu da, diru pribatua %14,28 izango da, Aldundiak %11,01 jarriko du eta gainerako %0,61a federazioek jarriko dute.

**Balioetan oinarrituta**

Eguaztenean egindako aurkezpenean, Mikel Biain alkateak nabarmendu zuen poztekoa dela horrelako proiektu batean "hain izaera ezberdinetako" eragileak ikustea. Elkartearen atzean herriko hiru ikastetxeak daude. Iokin Garai elkarteko lehendakariak azaldu zuen: "Ez da lan samurra izan, baina uste dut proiektu polita irten dela. Izen-emateak ikusita, aurrera egiteko esperantza dugu eta gogoarekin gaude".

**HERRIKO HIRU IKASTETXEEK PARTE HARTU DUTE ESKOLA KIROLEKO PROIEKTU HORRETAN**

Aldundiko ordezkari Iturriotzek esan zuen ez dela ohikoa eskola kirolean ikastetxeak eta herriko beste eragile batzuk nahastea; horregatik, "hezkuntza mundua ondoan izatea" garrantzitsua dela nabarmendu zuen.

Proiektua babestu dute Ulmak, Lanak, Natrak eta Fagor Industrialek. Natrako ordezkari Esther Carrilok azaldu zuen Natraren izaeran "talde lana" dagoela, eta horregatik babestu dutela proiektua. Lanako Mirari Zilaurrenek, Ulmako Raul Garciak eta Fagorreko Jone Urzelaik "pertsonak balioetan hezten" duen proiektua dela nabarmendu dute. Kooperatiben asmo eta balioekin bat datorren proiektua dela gaineratu dute.

## Gizon-proban 715 kiloko harria mugitu beharko dute

Gaur izango da proba, Olaiturrin, 20:00etan; oñatiarrak eta lezoarrak izango dira nor baino nor gehiago

**A.E.** OÑATI
Gizon-proba erakustaldia egingo dute gaur, 20:00etan, Olaiturriko kantxan; Oñatiko zortzi gazte eta Lezoko beste horrenbesteko lehiatuko dira. Zein izango da proba? 715 kiloko harria mugitzea. "20 minutu izango ditugu harria mugitzeko. Ez da araurik egongo; nahi beste denbora hartu dezakegu deskantsatzeko. Lehia irabaziko du harria tarte luzeenean mugitzen duenak", azaldu dute erakustaldian parte hartuko duten gazteek. Erakustaldi erakoa izango da proba; izan ere, ez dute ezer jokoan: "Proba amaitutakoan denok batera afaltzera joango gara, baina ez dugu apusturik egin", diote.

Oñatiarrek azaldu dute azkeneko hilabetean entrenatu direla: "Fisikoki ez dugu ezer berezirik egin, entrenamendua izan da harria mugitzea".

Proba egiteko ideia bi lehengusuen arteko "piketik" sortu zen. Oñatiko erakustaldiaren ondoren asmoa da beste erakustaldi bat egitea Lezon. Harria Legazpitik ekarri dute.

### Domekan jokatuko dituzte San Migel txapelketako finalak

Etzi, domeka, amaituko dute 36. San Migel pilota txapelketa. Zubikoa pilotalekuan jokatuko dituzte finalak, 17:00etan.

Txapelketan zehar hiru kategoriatako pilotariak lehiatu dira; hori horrela, domekan hiru final ikusteko aukera egongo da. Kadete mailako finala hau izango da: Igoa eta Arandia, Amianoren eta Azpirozen aurka. Ondoren, gazte mailakoen txanda izango da: Larrazabal eta Markaida Alberdiren eta Gonzalezen aurka lehiatuko dira.

Azkeneko partidua promes mailakoen finala izango da: Murua eta Gaskue Agirreamalloaren eta Cordonen aurka lehiatuko dira.

Zubikoa pilotalekuan Euskal Herriko pilotari hoberenetakoak ikusteko aukera egongo da. Finalak jokatu ostean sariak banatuko dizkiete txapeldunei eta txapeldunordeei.



ARATZ LOSADA

## Herriko pilotari txapeldunak

Herriko pilota txapelketak baditu irabazleak: emakumezkoetan, Ainhoa Zumalde eta Irati Usandizaga izan dira irabazleak; eta gizonezkoetan, Aitor Anduaga eta Eneko Arabaolaza. Finalaren aurretik 22 lagun elkartu ziren bazkaritan. Antolatzaileak gustura daude: "Egun borobila izan zen".



Kultura etxeko erakusketa gelan daude pinturak ikusgai. O.E.

# Herriko margolarien pinturak ikusgai daude

Oñatiko Margo Taldeak urtero antolatzen duen pintura lehiaketako koadroak eta pintura ikastaroan hainbat artista oñatiarrek egindakoak daude ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan: urriaren 21era arte, egunero, 18:00etatik 20:00etara

**Oihana Elortza** OÑATI
Ikasturte hasieran margo lehiaketa eta erakusketa egiteko ohitura du Oñatiko Margo Taldeak eta aurten ere horrelaxe izan da. Irailaren 23an egin zuten ageriko pintura lehiaketa, eta orain, erakusketa dute zabalik kultura etxean. Lehiaketan aurkeztu zituzten lanak ez ezik, Oñatiko Margo Taldeko margolariek egindako pinturak ere badaude.

### Aldaketa

Guztira, 60 pintura inguru daude erakusketa horretan. "Pintura lehiaketara aurkeztu ziren lanak gelaren sarreran daude jarrita, nagusienenak zein gazteenak, eta gureak dira barrurago eskegita daudenak", azaldu du Oñatiko Margo Taldeko kide Bixente Elgerok.

Nagusien kategorian, hamalau lan aurkeztu zituzten kalean egindako pintura lehiaketan eta umeen kategorian, lau. Gazte gehiago aurkezteko ahalegin berezia egiten dutela dio Elgerok, eta horretan jarraituko dutela. Helburu horrekin, datorren urtean aldaketak egingo dituzte; agian, iraileko pintura lehiaketan. "Gaztetxo asko daude margo ikastaroan, baina lehiaketara ez dira asko aurkezten. Bergaran, adibidez, bi egun ezberdinetan egiten dituzte lehiaketak, nagusien kategoriakoa egun baten eta umeena beste baten, eta hemen baino ume gehiagok ematen dute izena. Oihala erabili beharrean kartoiaren antzeko euskarri baten gainean margotzen dute eta erabiltzen dituzten margoak ere ezberdinak dira. Agian, probatu egin beharko genuke modu horretara edo beste batera egiten lehiaketa.

**DATORREN URTEAN LEHIAKETA BESTE MODU BATEAN EGITEA ARI DIRA PENTSATZEN MARGO TALDEKOAK**

Ez dakit hurrengo urtean izango den edo ez, baina egia da zer egin pentsatzen ari garela", azaldu du Elgerok. Eta gaineratu du: "Argi duguna da lehiaketa honi eutsi egin behar diogula. Hamaseigarrena izan da aurtengoa eta garbi ikusten dugu urtero egin behar dela, taldearen eta Udalaren laguntzarekin".

### Ikastaroa

Udalak antolatzen duen pintura ikastaroan egindako koadroak jartzen dituzte ikusgai Oñatiko margolariek. "Bina ekarri ditugu. Nire lanetan, adibidez, baten Urbia ikusten da eta bestean Foruen plaza. Tokiei argazkia atera, argazki hori handitu, eskalan jarri, eta hori aurrean dugula egiten dugu koadroa. Ikastaroko orduetan margotzen dugu. Lehiaketakoak, berriz, ordu gutxitan egindako lanak izaten dira", dio oñatiarrak.

Urriaren 21a bitartean egongo da erakusketa zabalik kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

## Txirrindulariei eskerrak emateko, diskoa egin du Irizarrek

'Pedaleando' du izena musikari oñatiarraren azken diskoak eta zapatuan aurkeztuko du Donostian

**O.E.** OÑATI
Bihar, zapatua, aurkeztuko du Juan Carlos Irizar musikari oñatiarrak bere azken diskoa. *Pedaleando* du izena eta txirrindulariek inspiratutako piezak sartu ditu.

Donostiako Aquariumean egingo du diskoaren aurkezpena Irizarrek zapatu eguerdian eta txirrindulari asko izango ditu ondoan. Horien artean: Marino Lejarreta, Federico Martin Bahamontes, Migel Mari Lasa, Jesus Arantzabal, Abraham Olano eta Haimar Zubeldia. "Beste txirrindulari askok bidalitako mezuak ere irakurriko ditugu. Esaterako, Pantaniren etxekoek bidalitakoa", dio Irizarrek.

Txirrindularitza-zalea da konpositore oñatiarra: "Kirol horrek eman didan gozamena jaso gura izan dut lan honetan. Txirrindularitza da gehien maite dudan kirola. Asko disfrutatu dut kirol horrekin, eta txirrindulariei eskerrak eman gura dizkiet horregatik. Eskerrak emateko modua da disko hau", dio egileak. Aurkezpenean, pianoa joko du Juan Carlos Irizarrek.

### Hirugarren asteburuan ekarriko dute 'Oreinak'

Urriko hirugarren asteburuan, 19tik 22ra, ekarriko dute Koldo Almandozen *Oreinak* filma Oñatiko zinema aretora. Donostia Zinemaldian Irizar saria irabazi duen filma da, Koldo Almandozen bigarren film luzea. Euskal Herriko ekoizpen onenaren saria irabazi du. Zuzendari Berriak sailean estreinatu zuten Zinemaldian eta Hego Euskal Herriko hainbat aretotan ikus daiteke astelehenetik. Oñatira urriko hirugarren asteburuan ekarriko dute.

Bestalde, hurrengo eguenean hasiko du denboraldi berriko ibilbidea zineklubak. David Truebak zuzendutako *Casi 40* filmak estreinatuko du ikasturte honetako zineklub denboraldia. Lucia Jimenez eta Fernando Ramallo dira filmaren protagonistak. Denboraldi berrian ere eguenetan izangoo dira zineklubeko filmak, 20:00etan.



JOKIN BEREZIARTUA

## Txillardegiren plaka Milikuan

Udalbatzak aho batez erabaki zuen Txillardegiren omenezko plaka Milikuako paretan jartzea; haren lana aitortu duen lehen erakundea izan da. Irailaren 27an jarri zuten, eta honela dio: *Hemen ikerketa lanean jardun zen Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, idazlea, irakaslea eta politikaria, oñatiar jatorrizko senitartekoa eta euskara batuaren aita.*


Mikel Linazisoro eskalatzailea, Bergaran. X.U.

# Mikel Linazisoro gazteen Olinpiar Jokoetan da

ESKALADA Europako eta Munduko txapelketetan lehiatu da aurten bergararra, baina Mikel Linazisorok (Bergara, 2000) oraingo astean du aspaldiko hitzordurik garrantzitsuena, Argentinan; domina bila joan da gazteen Olinpiar Jokoetara

**Xabier Urzelai** BERGARA

"Bai, noski! Mikelek dominaren bat janzteko aukerak ditu, gazteen Munduko Txapelketan erakutsi du hor egon daitekeela [podiumera igo da Europako eta Munduko txapelketetan]. Egia da senior mailako eskalatzaileak oraindik koska bat gorago daudela; irailean, esaterako, Munduko Txapelketa absolutura esperientzia hartzera joan zen, baina Buenos Airesen bere adinekoekin lehiatuko da, eta hor aurrean ibil daiteke", dio bergararra ondo ezagutzen duen Josean Mulasek.

Bergarakoa Bilbon izan zen domekan, Bizkaiko hiriburuan antolatutako Psicobloc txapelketan esku hartzen –eskalatzaileek soka barik eskalatu zuten, igerileku baten ondoan jarritako horman. Hormatik erortzen zena uretara jausten zen–.

Bada, Olinpiar Jokoak prestatzeko bidean Bilbokoa zen azken geltokia, eta bergararra gustura geratu zen bertan izandako sentsazioekin. Estatu mailako eskalatzaile onenak batzearekin batera, nazioartetik ere puntako eskalatzaileak etorri ziren; besteak beste, munduko txapelduna: "Hirugarren sailkatu zen. Finalerdietan, txanda erabakigarrian heldulekuetako bat bustita zegoen, eta irrist egin zuen. Gero, hirugarren edo laugarren sailkatzeko lehian irabazi egin zuen, eta podiumera igo ahal izan zen. Hortaz, pozik itzuli zen handik, eta astelehenean hartu zuen Madrilerako bidea, handik Buenos Airesera joateko", dio Linazisororen ama Ana Molinak.

Josean Mulasek esandakoarekin bat egiten du Ana Molinak, gauzak dakien moduan egiten baditu aurrean ibil daiteke Linazisoro: "Nahiz eta garbi daukagun dominaren bat lortzea oso-oso zaila dela. Etxean, gozatzeko esan diogu, halako aukerak ez direla egunero izaten eta disfruta dezala. Azken batean, egun txar bat izatea nahikoa da ordura arteko lana bertan behera geratzeko, eta presioa ere hor dago, lehenengo aldia da-eta halako txapelketa handi batean dagoena.

**Eskalatzaile osoa izateko lanean**

Eskalada kirol jarduera olinpiko bilakatuko da Tokion, 2020an, eta Linazisorok Podium izeneko beka bat dauka hitzordu hori prestatu ahal izateko: "Eskalada kirol olinpiko izatera pasa zenean, Mikelek txipa aldatu zuen. Ordura arte sokako eskaladan zen trebea, horretan ibili izan da buru-belarri. Baina Olinpiar Jokoetan hainbat modalitate izango dituzte: abiadura, zailtasuna eta *lead* deritzona. Eta azken urteotan beste modalitateetan trebatzen ibili da, eskalatzaile osoagoa izateko lanean".

## Kanporaketa saioa, astelehenean


Linazisoro Munduko Txapelketan.

Bihar, hilak 6, egingo dute, Buenos Airesen, Olinpiar Jokoetako inaugurazio ekitaldia, eta Parque Mujeres Argentinas kirol instalazioak gertu daude eguaztenean, hilak 10, eskaladako finalak hartzeko.

Hor egoteko, baina, Bergarako gazteak asteleheneko kanporaketa saioa gainditu beharko du. 09:00etan hasiko dute txapelketa, abiadura modalitatearekin –bi eskalatzaile aurrez aurre, eta gora lehenago iristen denak egiten du aurrera–. 11:00etan, berriz, *bouldering* modalitatea izango dute –eskalatzaileek zailtasunekin osatutako bidea gainditu behar dute ahalik eta huts gutxien eginda– eta 15:00etan *lead* modalitatea izango dute –saiakera bakarrean 15 metroko horma igo behar dute; gehienez, 6 minutu dituzte horretarako–. Hala, kanporaketa saio hori gaindituz gero, 10ean izango du finala.

# Oiartzunen bisita izango du Bergarak; UDAk, Hernanirena

FUTBOLA Erregional Preferentean lider dagoen Ilintxa hartuko du Aloña Mendik, zapatuan

**X.U.** ARRASATE

Ohorezko Erregional Mailako bosgarren jardunaldian, Bergarak eta Aretxabaletak etxean jokatuko dute eta Mondrak kanpoan. Mahoneroek puntu bakar bat gehiago duen Oiartzunen bisita izango dute Agorrosinen (zapatua, 16:30), eta Aretxabaletak seigarren dagoen Hernani izango du aurrez aurre Ibarran domekan (16:30). Mondrako jokalariek, berriz, Maritxu Kajoi ospatzeko tarte txikia izango dute gaur, bihar Azkoitian jokatuko dute eta (16:15).

**Aloñak liderraren bisita, bihar**

Erregional Preferentean, berriz, Aloña Mendik liga ondo hasi duen Ilintxaren bisita izango du, baina ezohiko ordutegian jokatuko dute, zapatu arratsaldean (15:30). Antzuolak, berriz, Zumarragan jokatuko du bihar (16:00), Mondrak Zumaiakoren kontra domekan (18:30) eta Aretxabaleta UDAk Beasainen zapatuan (17:00).


Aloña Mendik eta Lagun Onakek iaz jokatutako partiduaren une bat. GOIENA




Dani Lorenzo gasteiztarra, Oiartzunen kontrako partiduan, eraso jokaldia antolatzen. EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

# Euskal Kopa du jokoan MUk domekan Santurtzin

**SASKIBALOIA** Iñaki Ogararen mutilek denboraldiko lehenengo titulua izango dute jokoan domeka eguerdian. "Bizkaitarrak dira faboritoak, iaz ere eurek irabazi zuten, baina aurten zer egiteko kapaz izan gaitezkeen erakutsiko digu final horrek"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

MUk Euskal Kopa izango du jokoan Santurtziren kantxan domekan (12:00), baina hori ez da albiste, lehenengo jardunaldietan egindako lan onari esker bi talde horiek duela bi aste ezkero sailkatuta zeuden eta; hala, joan den astean Ordiziaren kontra galdutako partidua tramite hutsa izan zen: "Denboraldi-aurreko partiduek izaten duten tankera izan zuen, puntu gutxi egin genituen (66-69) eta azken asteotan entrenamenduetako lan-karga kantxan igarri zen, jokalariak freskotasun barik zeuden eta. Baina, finalerako txartela dagoeneko poltsikoan geneukanez, gauza berriak probatzeko baliatu genuen partidua, eta emaitzarekin ez, baina ateratako ondorioekin pozik geratu ginen", adierazi du taldeko entrenatzaile Iñaki Ogara *Arri*-k.

**Santurtzi, ligako oilarretako bat**

Hala, *Arri*-k garbi dauka etzi Santurtziren kantxan irabaztea ez dela samurra izango: "Baina gure onena ematera joango gara, lehiakorrak izan gura dugu, eta Kopa etxera ekarri gura dugu".

## EBAra begirako prestaketa lana

Euskal Kopa poltsikoratzeko lehian ibiltzearekin batera, txapelketa hau EBA mailan egingo duten denboraldia prestatzeko baliatzen dabiltza arrasatearrak. Urriaren 13an hasiko dute MUkoek liga –hori da benetako helburua– eta Burgosko Unibertsitatea izango da bisitari Iturripen. Hala, aurten, lau talde gipuzkoar izango dira kategoria horretan.



MUkoak Ordiziaren kontrako partiduaren aurretik. EUSKADIKO ESKUBALOI FEDERAZIOA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

OHOREZKO ERREGIONA.

**Anaitasuna-Mondra**
Zapatua. 16:15. Txerloia.
**Aretxabaleta-Hernani**
Domeka. 16:30. Ibarra.
**Bergara-Oiartzun**
Zapatua. 16:30. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

**Besain-Aretxabaleta**
Zapatua. 17:00. Loinaz.
**Mondra-Zumaiako**
Domeka. 18:30. Mojategi.
**Urola-Antzuola**
Zapatua. 16:00. Argixao.
**Aloña Mendi-Ilintxa**
Zapatua. 15:30. Azkoagain.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

**Real Sociedad-Bergara**
Zapatua. 16:00. Zubieta.
**Leintz Arizmendi**
Atsedena.

LEHEN ERREGIONALA

**Aloña Mendi**
Atsedena.
**Eibartarrak-Bergara**
Zapatua. 18:00. Unbe.
**Arizmendi-Segura**
Domeka. 13:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

**Urki-Aloña Mendi**
Zapatua. 13:45. Unbe.
**Elgoibar-Aretxabaleta**
Domeka. 12:00. Mintxeta.
**Zumaiako-Mondra**
Zapatua. 16:00. Zumaia.

**ARETO FUTBOLA**

EUSKADIKO TXAPELK.

**Mondrate-Labastida**
Zapatua. Zehaztu barik. Musakola.
**Eskoriatza-Sestao**
Domeka. 18:00. Manuel Muñoz.
**Scalibur-Aretxab. UDA**
Domeka. 10:30. Basauri.

OHOREZKO GAZTEAK

**Eskoriatza-Marrock**
Domeka. 12:00. Eskoria.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELK.

**Ford Mugarri-Urdaneta**
Domeka. 11:30. Iturripe.
**Muskiz-Fagor Industr.**
Zapatua. 18:30. Muskiz.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Munttarpe-Soraluce B.**
Zapatua. 16:00. Lezo.

GIPUZKOAKO B. MAILA

**Bergara-La Salle**
Zapatua. 19:00. Labegar.

GAZTE GIZONEZKOAK

**Aloña Mendi-Urnieta**
Domeka. Zehaztu barik.
**Arrasate-Donibane**
Domeka. 13:00. Iturripe.

GAZTEAK, EMAKUMEZK.

**Eibar-Athlon Aloña M.**
Gaur. 18:00. Eibar.

**SASKIBALOIA**

EBA

**Euskal Kopako finala: Santurtzi-EBA**
Domeka. 12:00. Santur.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Aloña Mendi-Atletico**
Egubakoitza. Gaur. 20:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

**Bergara Sor.-Electri.**
Zapatua. 16:00. Labegaraieta.

GIP. HIRUG. MAILA

**Aloña Mendi-Kurkubi**
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
**Take Coach-MU C**
Zapatua. 14:00. Tolosa.

EMAKUMEZKOAK

**Atletico-Eskoriatza**
Zapatua. 20:00. Donostia.

EMAK. BIGARREN MAILA

**Bergara Soral.-Zast**
Gaur. 12:30. Labegaraieta.

GAZTE, ERRENDIMENUA

**Ama Guadalupe-MU**
Gaur. 12:30. Labegaraieta.

EMAK. BIGARREN MAILA

**Bergara Soral.-Zast**
Gaur. 12:30. Labegaraie.

**ERRUGBIA**

EUSKADIKO TXAPELK.

**ART-Gernika**
Domeka. 13:00. Mojategi

18 URTEZ AZPIKOAK

**ART-Iruña**
Domeka. Zehaztu barik. Mojategi.

**PILOTA**

ARETXABALETAN:

Egubakoitza, 19:30ean hasita, bi partidu.

ESKORIATZAN:

Egubakoitza, 19:30ean hasita, partidu bat.

# Lehenengo puntuen bila Ford Mugarri eta Fagor Industrial

**ESKUBALOIA** Arrasatearrek galdu egin zuten joan den astean; oñatiarrek asteburuan hasiko dute liga

**X.U.** OÑATI

Euskadiko Txapelketan hasi dute liga, eta aurten ere bailarako bi taldeen helburua aurrealdean ibiltzea izango da, betiere, iaztik hona taldeetan izan dituzten gorabeheretara moldatu eta gero.

Hala, Ford Mugarri Arrasate etxean ahaleginduko da joan den astean lortu ez zuen garaipena eskuratzen. Arrasatearrek 22-19 galdu zuten Corazonistasen kantxa zailean, Gasteizen, eta asteburuan Urdaneta izango dute aurrean.

Oñatiarrek, berriz, asteburuan hasiko dute liga, San Migel jaiak tarteko joan den astean atsedena hartu zuten eta. Hala, jardunaldi bakar bat jokatuta, sailkapenean azken postuan dagoen Muskizen kantxan ahaleginduko dira ligako lehenengo bi puntuak batzen.

**Bergara, Lurraldekoan**

Euskadiko Txapelketa baino maila bat beherago, Soraluce Bergarak asteburuan hasiko du liga, zapatuan (16:00) Munttarperen kantxan, Lezon.




Egibar, Olano, Urrutia, Zupiria, Biain eta Agirrebaltzategi, kongresuaren hasiera-ekitaldian. EUSKALTZAINDIA



Miriam Urkia, Dorleta Alberdi eta Miren Azkarate. NEKANE MUÑOZ

# Egindako bidea berreraikitzen

**Euskara batuaren iragana, oraina eta etorkizuna aztertzen ari dira Euskaltzaindia, askotariko eragileekin, egiten ari den 'Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)' kongresuan. Bihar, zapatua, euskara batuaren adierazpena aurkeztu eta sinatuko dute**

**Aitziber Aranburuzabala** OÑATI

Euskaltzaindia mendeurrena ospatzen ari da. "Euskararekin, euskal kulturarekin eta euskal gizarte osoarekin duen konpromisoa berritzeko" baliatu gura du akademiak mendeurrena; horregatik, "guztiekin" ospatu gura dute urteurrena.

Helburu horrekin, bederatzi jardunaldi antolatu dituzte: Baionan egin zuten, irailean, lehenengoa. Ipar Euskal Herriak euskararen batasunari egin dion ekarpena aztertu zuten han, eta atzo, eguena, hasi zuten bigarrena; bihar, zapatua, bitartean egingo duten *Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)* izenekoa. Hain justu, Euskara Batuaren mugarri nagusietako bat izan zen Arantzazuko Biltzarra egin zela 50 urte bete diren honetan.

Datorren urtean egingo dituzte gainontzeko jardunaldiak: urtarrilean, hizkuntza eskubideena, Iruñean; otsailean, ahoskerari buruzkoa, Gasteizen; martxoan, dialektologiarena, Bilbon; maiatzean, literatura gaiak landuko dituzte, Bilbon; ekainean, berriz, onomastika jardunaldiak egingo dituzte, Gasteizen; gramatikari buruzkoak, Donostian, uztailean; eta irailean egingo dute azken kongresua, teknologia berriak eta euskara gaitzat hartuko dituena, Donostian.

## Orain dela 50 urte

Aurretik hainbat ekarpen izan baziren ere, 1968ko Biltzarrean euskara batuaren oinarri nagusiak ezarri zituzten. "Egunotako Biltzar honen bidez, ordutik euskara batuak egin duen bidea azaldu, egungoaz gogoeta egin, eta eginkizun dagoena" zehaztu nahi direla dio Euskaltzaindiko Komunikazio arduradun Iñaki Mendizabalek.

Garai hartan Euskal Herritik kanpo zeuden Paulo Agirrebaltzategi frantziskotarrak eta Jerardo Elortza filologo eta historialari oñatiarrak, hala ere, gertutik jarraitu zuten Biltzarra. "Egoera gogorra zen, salbuespen egoera zegoen ezarrita", dio garai hartan Erroman Teologia ikasten zegoen Agirrebaltzategik, eta zera gaineratu du: "Aurretik idazleek eta bestelako eragileek landu eta proposatutakoak *ofizializatu* ziren Bitzar hartan. Hala ere, *Jakin* aldizkariaren aldetik erabakia hartuta zegoen askoz lehenagotik, aipatutako bilera haietan erabakitakoak onartzeko eta aplikatzeko aldizkarian".

EUSKARALDIA
GOIENA TELEBISTA, ELGETA ETA LAZKAO
URRIAREN 10EAN, EGUAZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
JULEN IRIONDO ETA IZARO INSAUSTI KAZETARIEK AURKEZTUTA
goiena
Zu hemen zaude.





ARGIA.EUS

**1968KO ARANTZAZUKO BILTZARRA** 1: Plazido Mujika. 2: Juan Garmendia, *Zeleta*. 3: Pierre Lafitte. 4: Luis Villasante. 5: Imanol Berriatua. 6: Manuel Lekuona. 7: Antonio Maria Labaien. 8: Jose Antonio Arkotxa. 9: Julita Berrojalbiz. 10: Balendin Aurre-Apraiz. 11: Eufronio Agirre. 12: Pedro Mari Iriondo (¿). 13: Koldo Mitxelena. 14: Jose Luis Zurutuza. 15: Karmelo Etxenagusia. 16: Andoni Amutxategi. 17: Anbrosio Zatarain. 18: Aita Julian Igorrekoa. 19: Balendin Lasuen. 20: Bittor Arozena. 21: Juan Mari Lekuona. 22: Jose Mari Allur. 23: Ibon Sarasola. 24: Mikel Zarate. 25: Julene Azpeitia. 26: Isidro Baztarrika. 27: Patxi Altuna. 28: Basilio Bergara. 29: Pertika (semea). 30: Gabriel Intxauraundieta. 31: Josu Oregi. 32: Jose Basterretxea, *Oskillaso*. 33: Pierre Xarriton. 34: Euxebio Osa. 35: Iñaki Beristain. 36: Joan Mari Torrealdai. 37: Emile Larre. 38: Ramon Saizarbitoria. 39: Rikardo Arregi. 40: Patri Urkizu. 41: Libe Altuna. 42: Juan San Martin. 43: Pedro Berrondo. 44: Miren Goñi.

Elortzak kontatu du Biltzarraren nondik norakoak Alemaniatik jarraitu zituela: "Handik bueltatzeko nahiko gorabehera izan nituen, salbuespen egoeraren eraginez; hala ere, Biltzarrean egun baten egoteko aukera izan nuen. Batasunaren prozesuaren aurrerapausoak gertutik jarraitu nituen, Bilbon ari nintzen ikasten eta harremana nuen Villasante, Aresti eta beste kide batzuekin. 1978an, Bergarako UNEDen egin zen hurrengo Biltzarra, eta ordurako lanean ari nintzen han".

### Orain artekoa balioztatzeko

Arantzazu euskararentzako erreferentziala da, eta horren erakusle da egunero 150 pertsona batuko direla kongresuan. "Teknikariak, itzultzaileak, kazetariak eta euskalgintzako jendea da, gehienbat. Hizlarien artean askotarikoak daude; izan ere, akademia batek bakarrik ezin du euskararen pisua eraman, eta, ezinezkoa izateaz gainera, ez da komeni. Euskal eragileekin elkarlanean ari gara aspaldian, eta horrela jarraituko dugu. Gizartearen alor guztietara heldu nahi dugu, eta horren adibide dira Arantzazun aurkeztu ditugun *Euskara batuaren eskuliburua* eta erakundearen webgune berria", dio Mendizabalek, eta zera gaineratu du Miriam Urkia euskaltzain oso aretxabaletarrak: "Eragin handia izan dute sare sozialek, informazio asko zabaltzen da horien bitartez. Espero dut Euskaltzaindia apur bat gaztetzen eta gehiago ikusarazten joatea hemendik aurrera".

### Debagoieneko euskaltzainak

Hiru euskaltzain oso daude ibarrean: Ana Toledo antzuolarra, Patxi Uribarren aramaioarra eta Miriam Urkia aretxabaletarra. Euskal Filologian doktorea da Ana Toledo, Deustuko Unibertsitateko irakaslea da eta 2005ean izendatu zuten euskaltzain oso. Uribarren karmeldarra Teologian eta Filosofia eta Letretan lizentziaduna da eta 2008an izendatu zuten euskaltzain oso. Miriam Urkia Euskal Filologian doktorea eta UZEIko lexikografia saileko zuzendaria da titulu horrekin berriena: aurtengo otsailean izendatu zuten euskaltzain oso. Hala ere, urteak daroa erakundearekin lanean.

**EUSKALTZAINDIAK BEHARREZKOA DU EUSKAL GIZARTEA EUSKARAREN GEROA BERMATZEKO**

Aipatutakoez gainera, Sabin Salaberri musikari eta konpositore aramaioarra eta Pello Zabala frantziskotarra ere Euskaltzaindiko kide dira. Aurtengo apirilaren 27an ohorezko euskaltzain izendatu zituzten.

### Osagarriak ala aurkariak?

Mendizabalen esanetan, "Euskaltzaindia ez dago euskalkien aurka, baina bakoitzak bere tokia behar du", eta zera gaineratu du Urkiak: "Duda barik, osagarriak dira. Gauza formaletarako edo komunikabide nazionaletan, adibidez, euskara batua zaindu behar dela uste dut; betiere, baina, euskalkiak edo tokiko esamoldeak aintzat hartuta". Jerardo Elortzaren iritziz: "Euskara batua gipuzkoarregia da. Lan asko egin da, baina badago oraindik egiteko". Eta horrela borobildu du Paulo Agirrebaltzategik: "Euskalkia oso inportantea da, nire ustez: euskara elikatzen du".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!


SPC Heaven 10.1 tableta
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta
EROSKI ARRASATE


Berri Txarrak
Berri Txarrak taldearen eskutik, Infrasoinuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Berri Txarrak


Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ


Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
ZELAI ZABAL JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.


Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu zaitez: 2018 (urritik aurrera): 31€.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus
goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

## HILDAKOAK

**Pilar Agirre Gonzalez de Mendibil.** Aretxabaletan, irailaren 22an. 93 urte.

**Blasa Gallego Fernandez.** Arrasaten, irailaren 23an. 84 urte.

**Ilu Tena Sopo.** Oñatin, irailaren 23an. 54 urte.

**Consu Escudero Picazo.** Arrasaten, irailaren 26an. 70 urte.

**Antonio Vazquez Olivenza.** Arrasaten, irailaren 26an. 70 urte.

**Feliciano Rubio Abad.** Arrasaten, irailaren 28an. 83 urte.

**Maria Aranburuzabala Uriarte.** Aretxabaletan, 28an. 86 urte.

**Mari Luz Mendizabal Ezpeleta.** Arrasaten, 29an. 81 urte.

**Maritxu Eguren Uriarte.** Bergaran, irailaren 29an.

**Candida Umerez Oianguren.** Oñatin irailaren 29an. 93 urte.

**Fernando Olaortua Ormaetxea.** Elgetan, 29an. 58 urte.

**M. Mercedes Arrasate Landa.** Arrasaten, 29an. 74 urte.

**Lorea Arrieta Lizaso.** Bergaran, irailaren 29an. 83 urte.

**Eudoxia Rey Delgado.** Arrasaten, irailaren 30ean. 87 urte.

## ESKER ONA

# Maritxu Eguren Uriarte



2018ko irailaren 29an hil zen.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2018ko urriaren 5ean.

## OROIGARRIA



# Consu Escudero Picazo

# Antonio Vazquez Olivenza



2018ko irailaren 26an hil ziren.

*Eskerrik asko gure bizitzako zati garrantzitsu bat izateagatik. Betirako gure bihotzetan.*

Beñat, Iraia, Maite, Nagore, Kepa eta Elene.
Arrasaten, 2018ko urriaren 5ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| **ARRASATE** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 5** | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| **Zapatua, 6** | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| **Domeka, 7** | FERNANDEZ: Musakola, 11 / 943 79 22 26 |
| **Astelehena, 8** | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| **Martitzena, 9** | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| **Eguaztena, 10** | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| **Eguena, 11** | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |

| **BERGARA** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 5** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **Zapatua, 6** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **Domeka, 7** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 8** | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 9** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 10** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Eguena, 11** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 7 |

| **OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 5** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 6** | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| **Domeka, 7** | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 8** | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 9** | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 10** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Eguena, 11** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2018ko abenduaren 31ra arte:**
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2018 osoan:**
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.




### ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



## TXUTXU-MUTXUAK
















**1. Atletismoan ibilitakoak elkarrekin**
Bergaran azken 50 urteetan atletismoan ibili direnak elkartu ziren aurreko zapatuan, Pili Arinen eskutik. Debagoienetik kanpo bizi direnak ere egon ziren ospakizunean.

**2. 48 urte ezkonduta**
Jose Luis Azkarate eta Milagros Beitia arrasatearrak orain dela 48 urte ezkondu ziren. "Zorionak, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".

**3. Gipuzkoako txapeldun (1988/05/21)**
Pelloren *umeek* orain dela 30 urte irabazi zuten saskibaloiko Gipuzkoako Txapelketa. Buzkantz-afaria egiten dute urtero sanmigeletan; aurten, Arteagan batu dira.

**4. Bergarako bira**
Hilaren 23an eta 30ean, laugarren eta bosgarren etapak egin zituzten Pol-Poleko lagunek. Elosua-Bergara eta Bergara-Elorregi, hain zuzen ere. Ederto ibili ziren.

**5. Arrolakoak, Pirinioetan**
Pirinioetan barrena ibili dira Arrola taldeko mendizaleak: Leskunetik Zurizara eta Zurizatik Etxoko haranean barrena, hain justu ere. Paraje ederretan ibili ziren.

**6. 56 urte ezkonduta**
Pedro Garitano eta Rosa Mari Larrañaga bergararrek 56 urte bete dituzte ezkonduta. Bizipozean, euren familia handiarekin batera ospatu dute. Zorionak!

**7. Musakolakoak, Irlandan**
Musakolako kuadrillako lagunek astebete egin dute Irlanda aldean. Dublin, Belfast, Donegal, Connemara eta Galway bisitatu zituzten, besteak beste.

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Izaro Esnaola Tello**
Urriaren 10ean, 5 urte. Zorionak, gure printzesa politt hori! Egun bikaina pasa dezazula etxekoen partetik. Muxutxo pila zuretzat.



ARAMAIO
**Hegoi Azkarate Arriolabengoa**
Urriaren 10ean, 10 urte. Zorionak, laztana! Amatxoren, aitatxoren, Oihanen, amamen, aitaiten, osaba-izeben, Lideren eta Garaziren partetik. Ondo pasatu eguna!



BERGARA
**Asier Barbero Zumarraga**
Urriaren 9an, 5 urte. Anaia Beñaten eta amama Begoren partetik, zorionak eta muxu handi-handi bat.



OÑATI
**Danel Amenabarro**
Urriaren 8an, 5 urte. Urte askotarako, maittia!



OÑATI
**Xabi Lukas Korkostegi**
Urriaren 7an, urtebete. Zorionak, Xabi! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
**Arhane Katarain Leibar**
Urriaren 7an, 4 urte. Zorionak, maitte! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik. Jarraittu zarien bezelakua izaten. Asko maitte zaitugu!



BERGARA
**Intza Goikoetxea Lopez**
Urriaren 7an. Zorionak, maittia! Etxeko printzesak lau urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat, familixako danon partetik. Bereziki, Iker anaia. Pa!



ARETXABALETA
**Aines Lezeta Izuel**
Urriaren 6an, 6 urte. Zorionak Aines! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Irribarre eder horrekin jarrai dezazula urte askotan. Patxo handi bat! Zure familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Julen Garcia Sanchez**
Urriaren 5an, 9 urte. Zorionak, Julen! Heldu da zure eguna. Muxu handi bat denok partetik, laztana. Asko maite zaitugu. Ondo pasatu!



BERGARA
**Amaia Fernandez Maiztegi**
Urriaren 4an, 19 urte. Zorionak, Amaia! Patxo potolo bat, maitte zaittugonon partetik!



OÑATI
**Libe Idigoras Garcia**
Urriaren 3an, 6 urte. Zorionak, politt hori! Primeran pasatu zure egunean. Aitatxoren, amatxoren eta Aniren partetik, mundiala zara!



OÑATI
**Laia Irizar Palacios**
Urriaren 3an, etxeko printzesak hiru urte! Zorionak, etxekuen partetik.



BERGARA
**Arhane Elkoro Urzelai**
Urriaren 3an, 4 urte. Zorionak, maittia. Abenturaz betetako beste urte eder bat hasi da. Gozatu eta ondo pasatu. Txokolatezko muxu erraldoiak zuretako.



ARRASATE
**Maria Eugenia Urroz Arruabarrena**
Urriaren 3an, 68 urte. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, familiaren partetik! Batez ere Izar, Unax eta Iontxu!



OÑATI
**Sara Arenaza Barriola**
Urriaren 3an, 6 urte. Zorionak, politt hori! Ondo-ondo ospatu zure seigarren urtebetetze eguna. Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Unai Muñoz Sanchez**
Urriaren 2an, 7 urte. Zorionak, Unai! 7 urte! Ederto pasatu eguna! Etxekoak, lagunak eta, batez be, Bittor, Kenare, Julen, Maren eta Lur. Mua!



BERRIZ
**Zoe Valsera**
Urriaren 1ean, 8 urte. Berrizeko printzesarik ederrenarentzat, zorionak eta patxo handi bat izeba Usoa eta Ketyren partetik!



BERGARA
**Naroa Markina Urizarbarrena**
Irailaren 30ean, 3 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat familixakuen eta, batez ere, Haizearen partetik!



OÑATI
**Hodei Ruiz Martin**
Irailaren 29an, 8 urte. Zorionak, Hodei, familia osoaren partetik! Besarkada handi bat!



ARRASATE
**Aimar Domingos Garay**
Irailaren 24an, 3 urte. Zorionak, Aimar! Etxeko txikienak 3 urte bete ditu. Muxu handi bat familia osoaren, eta batez ere, Nahiaren partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 5

**OÑATI Odol ateratzea**
Urriko deialdia egin dute.
*Enpresagintzan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Margotutako hormak' erakusketa**
Josune Murgoitio arrasatearrak Euskal Herriko hormetan egindako pintaden eta mural aldarrikatzaileen esanahia erakutsi gura du.
*Arkupen, 18:30ean.*

**ELGETA Gaztelekuko erabiltzaileendako batzarra**
Zerbitzuari buruzko berrikuntzei buruz jardungo dute. Irekia.
*Gaztelekuan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Las chicas del balneario' antzezlana**
Ausart taldearen antzezlana. Sarrerak, lau euro.
*Zaraian, 19:00etan.*

**ARAMAIO Untzillako jaiak**
19:00etan, kanpai jotzea eta etxafuego jaurtiketa; eta 21:00etan, bertso afaria elkartean, Jon Maiarekin eta Amets Arzallusekin.
*Untzillan.*

**OÑATI Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra: kontzertua**
*Mende berri kantuz* delako emanaldia egingo du Euskeria Gazte Abesbatzak.
*Arantzazuko basilikan, 19:30ean.*

**OÑATI Giza proba**
Oñatiren eta Lezoren arteko erronka, 715 kiloren gainean.
*Olaiturrin, 20:00etan.*

**BERGARA 'Kopla barik, koplatan'**
Bi taldetan banatuta –Kioskoa eta Kontxa taldeak– kopla kantari ibiliko dira hainbat lagun, Ibon Leibarrek jarritako gaiak aintzat hartuta.
*Espoloian, 21:15ean.*

**OÑATI Bertso jaialdia**
Errosario jaietako saioa egingo dute Aitor Mendiluzek, Nerea Ibartzabalek, Andoni Egañak, Sustrai Colinak, Miren Artetxek eta Unai Iturriagak.
*Oñatin, 22:30ean.*

## ZAPATUA 6

**BERGARA Erreka garbiketa**
Taldeka banatuta, txoko ezberdinak garbituko dituzte.
*San Martin plazan, 08:30ean.*

**OÑATI Herri Eguneko azoka**
Animalien erakusketak; gazta, fruitu eta barazki lehiaketak; lore eta landare erakusketak; eta artisau salmenta.
*Unibertsitate etorbidean, 09:00etan.*

**OÑATI Sagardo dastatzea**
25 sagardotegitako sagardoa probatzeko aukera.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARAMAIO Untzillako jaiak**
12:00etan, meza; 14:00etan, auzo bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, Eriz magoa; 18:30ean, txokolate-jana eta dantzaldia Arkaitzekin eta Maddalenekin; iluntzean, parrilada; eta 22:30ean, dantzaldia.
*Untzillan.*

**ESKORIATZA 4X4 ibilgailuen triala**
XI. aldiz egingo dute.
*Torrebaso poligonoan, 15:00etan.*

**ESKORIATZA Jolasak**
Gaztetxoendako.
*Gazteleku pareko kantxan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Zinema gelako altzariak moldatu**
Gaztetxoendako ekintza.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**BERGARA Udazkeneko eta neguko erakusketa**
Bedelkarreko merkatarien eskutik, denboraldi berrirako tendentziak.
*San Martin plazan, 18:00etan.*

**OÑATI Gaitzerdirekin dantzaldia**
Errosario jaiak.
*Atzeko kalean, 18:30ean.*

**BERGARA Organo kontzertua**
Stanislav Surin organistaren eta *panen* txirula jotzen duen Helmut Hauskellerren emanaldia.
*Santa Marinan, 19:00etan.*

**OÑATI Koban eta Trikimailu taldeak eta DJ Big Mac**
Errosario jaiak.
*Txosnagunean, 22:00etan*

## DOMEKA 7

**ELGETA Intxortara bisita antzeztua**
Lubakietara egingo dute bisita. Hainbat puntutan, pertsonaia bereziak egongo dira. Debalde.
*Mendizaleen plazatik, 10:00etan*

**ARAMAIO Untzillako jaiak**
10:00etan, mendi irteera; 12:00etan, meza Aramaioko abesbatzarekin; eta 13:00etan, bermuta Arkaitzekin eta Mirenekin.
*Untzillan.*

**BERGARA Domeka Azoka**
Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko ekimena.
*Seminarixoan, 11:00etan.*

**BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua**
Kalerik kale ibiliko dira.
*Kaleetan, 13:00etan.*

**ARETXABALETA Antzerkia: 'Tomaxen abenturak, hamar urte'**
Tomax pailazoak hamar urte bete ditu, eta lagun guztiak gonbidatu ditu festara. Sarrerak, hiru euro.
*Arkupen, 17:00etan.*

**OÑATI Haurrendako parkea**
Errosario jaiak.
*Etxaluzen, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Degurixara irteera**
Perretxikoak batzera joango dira gaztetxoak.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**BERGARA 'Galeries Des Corsaires Baiona' erakusketa: azken eguna**
Gaur da azken eguna.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ELGETA 'Comunicado de muerte' antzezlana**
Frankisten lehenengo erasoaren eta frontea ezarri zeneko 82. urteurrenean, Banarte taldearekin.
*Espaloian, 19:00etan.*



KARKARA

**OÑATI Gozategiren kontzertua**
Taldearen 25. urteurrena ospatzeko, *G puntua* delako diskoa kaleratu zuen. Hori aurkeztuko dute Herri Egunean, eta beraien kanturik esanguratsuenen errepasoa egingo dute.
*Bihar, zapatua, Foruen plazan, 22:30ean.*

**OÑATI Blues kontzertua**
Noa Volldamn And The Hell Drinkers taldearen kontzertua, Errosario jaietan.
*Atzeko kalen, 19:00etan.*

**OÑATI Tarantella orkestra**
Dantzaldia egingo du.
*Foruen plazan, 20:00etan eta 23:30ean.*

**OÑATI Balkoitik balkoira, bertsotan**
Iker Zubeldiarekin eta Agin Laburureki n.
*Foruen plazan, 20:00etan eta 23:30ean.*

**OÑATI Tarantella orkestra**
Dantzaldia egingo du, .
*Kale Zaharrean, 20:30ean.*

**OÑATI Piroteknika ikuskizuna**
Argia, musika eta sua protagonistak.
*Foruen plazan, 23:00etan.*

## ASTELEHENA 8

**ARETXABALETA Antzerkia: 'Lorategian'**
Teatro Paraiso taldeak hiru emanaldi egingo ditu, 4 eta 5 urte arteko umeendako, Antzerkiaren Hilabetearen baitan.
*Arkupen, 09:15ean, 10:15ean eta 11:15ean.*

**OÑATI Sokamuturra**
Arno etxeko zezentxoak Foruen plazan ibiliko dira. 16 urtetik beherakoek debekatuta dute ibilbidean sartzea.
*Foruen plazan, 09:30ean.*

**OÑATI Salda, Pake Lekun**
Errosario Bixamon Eguneko ekintza.
*Pake Lekun, 11:00etan.*

**OÑATI Sokamuturra, Arno etxearekin**
Zezenak Foruen plazan ibiliko dira. 16 urtetik beherakoendako, sarrera debekatuta.
*Foruen plazan, 09:30ean.*

**ESKORIATZA Jolas kooperatiboak**
Mahai-jokoekin jolasten ikasiko dute umeek, bi txandatan: 17:00etan eta 18:15ean.
*Ludotekan.*

**OÑATI Di-bertsioak emanaldia**
Herriko musikarien eskutik.
*Txosnagunean, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Arizmendiarrieta, el hombre cooperativo' dokumentala**
Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza errepasatzen duen dokumentala ikusteko aukera. Debalde.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 40 urtekoen kinto bazkaria**
Kinto bazkaria egingo dute 1978an jaiotakoek, 40 urteak ospatzeko. Aretxabaletan bizi den eta kintoa den edonori dago zabalik gonbidapena. Azaroaren 24an

izango da eta izena emateko epea zabalik dago urriaren 30a bitartean.
*Arlutz tabernan, 21:00etan.*

## MARTITZENA 9

**ARETXABALETA Antzerkia: 'Jolastokia'**
Tdiferencia taldearen emanaldi bikoitza, 8-10 urte arteko neska-mutikoendako.
*Arkupen, 09:00etan eta 11:00etan.*

**ELGETA Ate irekiak ludotekan**
Bi urteko gelako umeendako.
*Ludotekan, 16:00etan.*

**ARRASATE 'Arizmendiarrieta, el hombre cooperativo' dokumentala**
Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza errepasatzen duen dokumentala ikusteko aukera.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Paco Etxeberriaren hitzaldia**
*Memoria histórica* delako hitzaldia egingo du, hori berreskuratzen egindako lanen gaineko argibideak emateko.
*Arkupen, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 10

**ARETXABALETA Antzerkia: 'Hareazko ipuinak'**
Markeliñe taldearen antzezlana 11 eta 12 urte arteko gaztetxoendako.
*Arkupen, 09:00etan eta 10:30ean.*

**OÑATI Eskulan ikastaroak: izen-ematea zabaldu**
Udalak antolatutako ikastaroetan parte hartu gura dutenek hilaren 19ra arte dute aukera.
*Kultura etxean, 10:30ean.*

**BERGARA Kafekonpon**
Etxetresna txikiak konpontzeko tailerra.
*San Joxepen, 16:00etan.*

**BERGARA 'Bergararrak aktibatzeko 365 arrazoi' hitzaldia**
Kike Amonarrizen berbaldia, Euskaraldia aitzakia hartuta.
*Irizarren, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Arrasateko gizarte-ekonomia' erakusketa**
Hilaren 28ra arte zabalik. Hilaren 19an eta 20an bisita gidatuak egingo dituzte, 17:30ean euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ARRASATE 'Kamarada' dokumentala**
Celestino Uriarte Arrasateko milizianoaren bizitza kontatzen du, erresistentzian egondako hainbat lagunen testigantzetan oinarrituta.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ELGETA 'Ama no sabe euskara' berbaldia**
Gazteleraz egingo du hitzaldia Xabi Payak, eta euskararen transmisioan euskaldunak ez diren gurasoek jokatzen duten papera izango du hizpide.
*Elgetako udaletxean, 19:30ean.*

**BERGARA 'Errementari: el herrero y el diablo' pelikularen emanaldia**
Paul Urkijoren pelikula fantastikoa, euskaraz. Sarrerak, hiru euro.
*Zabalotegin, 20:00etan.*

## EGUENA 11

**OÑATI Garbigune ibiltaria**
Materiala batzeko.
*Olakuan, 10:30ean.*

**OÑATI Bingo saioa**
Erretiratuendako.
*Pake Lekun, 17:00etan.*

**OÑATI 'Casi 40' filma, zineklubean**
Gaur hasiko da denboraldi berria.
*Zinema aretoan, 20:00etan.*

**ARRASATE Cigüeña taldea**
Kooltur Ostegunetako kontzertua. Indie eta hardcore-punk melodikoaren korronteetan igeri egiten du Valentziako taldea. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**ARETXABALETA Antzerkia: 'Hozkailua'**
Artedrama taldearen *Hozkailua* antzezlana. Sarrerak, lau euro.
*Arkupen, 22:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Black is beltza**
Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.

**Luis eta extralurtarrak**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Venom**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Johnny English**
Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**Al aire, patos**
Zapatua: 17:00.

**Book club**
Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Venom**
Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00.

**Al aire, patos**
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**GORBEIA**

**Un pequeño favor**
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:15. Domeka: 18:00. Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

**La monja**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 20:15. Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

**Hotel Transilvania**
Egubakoitzetik domekara: 16:15.

**Gauguin**
Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 20:20, 22:30. Domeka: 18:15, 20:20. Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

**Ha nacido una estrella**
Egunero: 17:30.

**Venom**
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30. Egubakoitzetik domekara: 16:15, 18:25. Domekatik eguaztenera: 20:10.

**Los futbolisimos**
Egubakoitzetik domekara: 16:30. Astelehenetik eguaztenera: 18:00.

**Johnny English**
Egubakoitzetik domekara: 18:30. Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

**Black is beltza**
Egubakoitza eta zapatua: 20:40, 22:30. Domeka: 20:40. Astelehenetik eguaztenera: 18:00, 20:00.

**Ana y Bruno**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.

**Ola de crimenes**
Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 20:25, 22:30. Domeka: 18:20, 20:25. Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

**Christopher Robin**
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30. Domeka: 16:15, 18:20, 20:25. Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

**Los increibles**
Egubakoitzetik domekara: 16:15.

**Viaje al cuarto de mi madre**
Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 20:25, 22:30. Domeka: 18:35, 20:25. Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

**Oreina**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 22:30. Domeka: 16:00. Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

**La milla 22**
Egubakoitzetik domekara: 20:10. Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

**BOULEVARD**

**Venom**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:30, 17:00, 19:15, 21:30, 23:45. Egunero: 12:30, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30. Martitzena: 17:00, 19:15.

**Ha nacido una estrella**
Egunero, martitzena izan ezik: 12:45, 16:45, 19:30, 22:15. Martitzena: 16:45, 19:30.

**Ola de crimenes**
Egunero: 12:10, 16:05, 18:10, 20:20, 22:20, 00:25.

**Christopher Robin**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:20, 15:45, 17:55, 20:05, 22:15. Martitzena: 15:45, 20:05, 22:15.

**Johnny English**
Egunero, zapatua eta martitzena izan ezik: 12:55, 15:55, 17:50, 19:40. Martitzena: 15:55, 19:40.

**Searching**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:10, 16.30, 18:45. Martitzena: 16:30.

**Todos lo saben**
Egunero: 12:50, 21:00, 23.40.

**Los increibles 2**
Zapatua eta domeka: 12:45. Egunero: 16:35.

**Yucatan**
Egunero: 19:05.

**Un pequeño favor**
Egunero: 21:40. Egubakoitza eta zapatua: 00:00.

**Megalodon**
Egubakoitza: 00:20.

**Predator**
Egunro: 17:45.

**La milla 22**
Egunero: 19:55, 22:05. Egubakoitza eta zapatua: 00:10.

**La monja**
Egunero: 18:15, 20:25, 22:25. Egubakoitza eta zapatua: 00:25.

**FLORIDA**

**Ha nacido una estrella**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22.30. Astelehena eta eguaztena: 17:15, 19:50, 22:30. Martitzena: 17:15

**Cold war**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 18:40, 20:35, 22:30. Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Venom**
Egubakoitza, astelehena, martitzena eta eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

**Ola de crimenes**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:20. Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**El reino**
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30. Martitzena: 17:30, 22:30.

**Black is beltza**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:35, 22:30. Astelehenetik eguaztenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Girl**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:35. Astelehenetik eguaztenera: 20:15.

**Carmen y Lola**
Egubakoitzetik domekara: 18:35. Astelehenetik eguaztenera: 22:30.

**Todos lo saben**
Egunero: 17:30. Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.

## KRITIKA

**El reverendo** ★★☆☆☆
**Zuz.:** Paul Schrader. **Herr.:** AEB (2017). **Aktoreak:** Ethan Hawke, Amanda Syfried, Michael Gaston.

# Egonezin existentziala

**ANTONIO ZABALA**

*El reverendo* oso film kriptikoa da. Paul Schraderren istorioetan pertsonaiak nahiko bakartiak eta atsekabetuak izaten dira. Beti munduarekin eta bere buruarekin borrokan daudenak. Zuzendariak kontatzen du txikitan izandako heziketa oso zorrotza izan zela. Horren ondorioz, idatzitako edo zuzendutako istorioetan, erruak, bekatuak eta erredentzioak pisu nabarmena izan dute. Idatzitako edo filmatutako lanen artean, *Taxi driver*, *Toro salvaje*, *El placer de los extraños* eta *Afliction* daude. Bere azkeneko filmean, zalantza erlijioso eta filosofiko asko dituen apaiz bat da pertsonaia nagusia. Guraso izan behar duen bikote bat ezagutuko du. Gizonak ez du haurra jaiotzerik nahi, klima-aldaketaren ondorioz mundua toki egokia ez dela pentsatzen duelako. Apaizak ondo ulertzen ditu gizonaren egonezin existentziala eta, aldi berean, emakumearen sentimenduak.

Schraderrek oso modu latza erabiltzen du istorioa kontatzeko. 1:33 formatuan, kamera ia mugitu barik, eta bukaerako zatira arte musikarik gabe. Kontatzeko era oso hotza da. Pertsonaiak sufritzen ikusten ditugu, baina ikusleoi gustatuko litzaiguke eurei buruz gehiago jakitea, eta gurekiko hurbilagoak izatea.

Filma bera eta pertsonaiak oso itxiak eta bereziak dira. Eta, batez ere, nahiko zaila egiten zaigu bi gizonek, aita izango denak eta apaizak, hartzen dituzten erabaki zorrotzak ulertzea eta sinistea.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude. goiena

AZKEN BERBA



ANDER ETXEBERRIA

## Jai handia

"Maritxu Kajoi da eusko lur gainean dagoen jairik handiena". Horrela idatzi nien behin kanpoko lagun batzuei jai hori zer den azaltzean. Esajerazioa izango da, agian, baina nolabait egiatik ez da urrun ibiliko.

Festaren egitarauan datorren ekitaldi kopurua oso txikia da –edozein kaleko jaietako programa baino xumeagoa–; batzen duen jendetza, aldiz, izugarrizkoa. Nekez gaindituko du proportzio hori beste edozein festak. Jaia bere esentzian: jendea batzen da jendea dagoen lekuan.

Interesgarria litzateke arrakastaren giltzarriak aztertzea, beste jai batzuk indartzeko balio baitezake. Gakoen artean egongo dira, besteak beste, ondokoak. 1. Egun bakarrekoa da, bizia; aukera bat besterik ez dago festarako. 2. Irudi propioa dauka, berezia, beste inon aurkitu ezin daitekeen multzoa: txikiteroen patroia bezala aurkezten da bere eskapularioaz, nobenarixuaz, mirariaz... Eta, nola ez, dotorezia da nagusi.

Guztira, parte hartzaileak bere egiten du aparteko jai hori, asteak lehenago darabil buruan eta Maritxu Kajoiko enbaxadore bihurtzen da. Hasierako lerroak bezalakoak idatz ditzake orduan. Ondo pasau!

BUKATZEKO



Valverde, Iñurrategi eta Arregi, Zabala jatetxe aurrean, sari banaketan. LOKATZA




Alejandro Valverde, Munduko Txapelketan urrezko dominarekin. EUROPA PRESS

# Labegaraietako probatik, Mundukoa irabaztera

Alejandro Valverde txirrindulari murtziarrak orain dela 22 urte irabazi zuen Bergaran jokatutako Altos Hornoseko lasterketa. Joan den domekan, berriz, Munduko Txapelketan, urrezko domina lortu zuen, Innsbruck-en (Austria), 38 urterekin

**Imanol Beloki** BERGARA
22 urte bete dira Alejandro Valverde txirrindulari murtziarrak Bergarako Altos Hornoseko lasterketa irabazi zuenetik; gaur egun, Labegaraietako Saria da proba horren izena.

1996ko maiatzaren 1ean lortu zuen garaipena Valverdek, Labegaraieta auzoko jaietan. Garai hartan, harrobiko txirrindularia zen Valverde, eta, ordurako, *El imbatido* esaten zioten. Gaur egun, berriz, goitizen horrez gainera, *Balaverde* ezizenez ere ezaguna da.

**Asteburu-pasa, bi garaipen**
Lokatza Ziklismo Eskolako ordezkarien esanetan, Valverde Oñatin zituen ezagun batzuen etxera joan zen asteburu-pasa, eta, Bergaran izan zen Altos Hornoseko lasterketa irabazteaz gain, hurrengo egunean izan zen Zegamako lasterketa ere irabazi zuen.

**Zabala parean, sari banaketan**
Argazkian, ezkerretik eskuinera, Alejandro Valverde, Nagore Iñurrategi –auzotarra– eta Gurutz Arregi daude –Bergarako txirrindulari onenetakoa izandakoa–, Zabala jatetxe aurrean. Edozelan ere, argazki originalean, Antton Blanco ere agertzen da, lasterketaren babeslea izan zena.

**Urrezko domina, 38 urterekin**
Joan den domekan, irailaren 30ean, lortu zuen Munduko Txapelketako urrezko domina Valverdek, Innsbrucken (Austria). 38 urte ditu murtziarrak, eta ortzadar maillota janztea lortu du, azkenean.

Hainbat bider igo da podiumera Munduko Txapelketan, eta, azkenean, lortu du erretiratzeko moduko garaipena. Gainera, garaipen horrekin, Munduko Txapelketan domina gehien lortu dituen txirrindularia da. Zazpi lortu ditu: brontzezko lau, zilarrezko bi eta urrezko bat, hain zuzen ere.

OÑATIKO JAIAK ETA MARITXU KAJOI
GOIENA TELEBISTA
URRIAREN 11N, EGUENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
goiena
Zu hemen zaude.

